



Amaya Valdemoro
saskibaloijokalaria
ohiari elkarriketa

Eguzki izpien
aurrean, beti
babestuta



JATETXE HANDIAK ERE ZABALTZEN DABILTZA POLIKI-POLIKI

la hiru hilabete itxita egon ostean eta kalte nabarmenak jasanda, hasi dira erreserbak hartzen / 5

Koldo Lasa, Bergarako Lasa jatetxeko sukaldaria, jatetxeko jangela nagusian, atzo, irekiera egunean. IMANOL BELOKI

Plazetara aldarriak kartoietan idatzita eroatera dei egin die herritarrei Gure Esku ekimenak / 6

SINADURAK



IKER
AGIRRE / 8



AITOR
UGALDE / 38



IBON
ARRUPE / 14



ANDER
ETXEBERRIA / 48

ARGI URDINETIK BABESTEKO
EKIPAMENDUA

BETAURREKOA

+

LENTILLAK
(6 hilabete)

199€

Balioz gaitza 2020/06/05 12:00 arte. www.multipopticas.com

BABESTU ZURE BEGIAK PANTAILETATIK



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multipopticas.com

Barra, esentzia berreskuratzear

Alarma egoera hilaren 21era arte luzatzea onartu du asteon Espainiako Kongresuak, eta, ondo bidean, Hego Euskal Herria hirugarren fasean sartuko da hilaren 8an; modu horretan, besteak beste, tabernekin barra zerbitzua eskaini ahal izango diete bezeroei

Eneko Azurmendi ARRASATE

PSOE-Unidas Podemos Gobernuak alarma egoera luzatzeko egindako proposamenak 177 baieztatu eta 155 ezezko –EAJK alde bozkatu du eta EH Bildu abstentitu egin da–. Halaber, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak fase berriko neurriak ezartzeko autonomia izango dutela adierazi du asteon Pedro Sanchez Espainiako presidentea. Era berean, Eusko Jaurlaritzak hainbat eskaera egin dizkio Osasun Ministerioari, hirugarren faseari begira.

Lurralde historikoen arteko mugigarritasuna baimentzea da eskakizunetako bat. Horrekin batera, autonomia erkidego ezberdinetako mugakide diren lurraldeen eta probintzien arteko mugikortasuna ere eskatu du Jaurlaritzak, "balidin eta fase berean badaude". Halere, ez dago baieztatu ofizialik, oraingoz. Hori bai, hilaren 22tik aurrera Frantziarekiko eta Portugalekiko mugak irekiko dituela aurreratu du Espainiako Gobernuak.

Fase berriari dagokionez, garrara publikoan %100eko maiztasunak eta edukierak baimentzea gura du Jaurlaritzak, "maskararen nahitaezko erabilera-ekin eta geltoki itxietan ausazko tenperatura kontrolekin".

Bestalde, saltoki, denda eta merkataritza-guneetako edukiera handitzea proposatu du Urkulluk, %60ra igoz, eta tabernak, jatetxeak eta elkarte gastronomikoak edukiera-mugarik gabe erabiltzea ere gura du –mahaien artean bi metroko distantzia errespetatuz–. Horri lotuta, barrako zerbitzua baimentzea aurreikusitako dute; kasu horretan ere, bezeroen edo bezero-taldearen artean bi metroko tartea utzita.

Halaber, hotel eta ostatu turistikoak eremu komunitateko %50eko edukiera izateko eta naturako turismoa eta mendi ibilaldiak gehienez 30 pertsonako taldeentzat baimentzeko eskaera ere egin du Jaurlaritzak.

Kirol, kultura eta aisialdiari lotuta bestelako neurriak ere jaso dituzte; besteak beste, liburutegiaren edukiera %50ekoa izatea –mailegurako eta irakurketa-erako–, eta zinema, antzoki eta gune itxi nahiz irekietako ekitaldiak ere %50eko edukierarekin egin ahal izatea. Bestalde, goi mailako arraunean eta pilotan entrenatzen hasteko aukera ere gaineratu dute.

Azkenik, udalekuen inguruko eskaera ere gehitu du: haur eta gazteei zuzendutako eguneko aisialdiko jarduerak %50eko edukierarekin egitea, hain zuzen ere –gehienez, 80 lagun barruko espazioetan eta 200 espazio irekietan–. "Halere, asko jota, 12 pertsonako taldeetan antolatuta beharko dute, begiraleak barne".

BILAKAERA EPIDEMIOLOGIKO ONA

AZKEN BI ASTEETAN EZ DUTE KASU POSITIBORIK ATZEMAN BAILARAN

Bilakaera epidemiologikoari dagokionez, geroz eta hobe izaten ari da Debagoiengan, azken bi asteetan ez dituztelako positibo berririk atzeman PCR proben bitartez. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak atzo emandako datuen arabera, 1.561 pertsona hil dira guztira EAEn, eta eguaztean zortzi hildako berri erregistratu zituzten. Oraindik 22 pertsona daude Zainketa Berezien Unitatean, eta gaixorik daudenak 1.689 dira orotara.

GSR Debagoiengan, positibo bat

Adinekoren egoitzei dagokionez, une hauetan Aretxabaletako GSR Debagoiena da Gipuzkoa osoan koronabirus kasuak dituen bakarra. "Kasu positibo bat daukagu eta lau egoiliarrek emaitza indeterminatua dute. Horrek esan gura du lau antigenotik batek oraindik gene positibo batzuk dituela, baina efektu negatiboa duela", adierazi du Inge Landaluze zuzendariak –ikus eskumako orriko elkarriketa–.

MAIATZEKO LANGABEZIA DATUAK

HEGO EUSKAL HERRIAN 3.767 LANGABE GEHIAGO ZEUDEN MAIATZEAN

Lanbidek maiatzeko langabezia datuen berri eman du asteon. Hala, pandemia hasi zenetik, ia bi puntu egin du gora bailarako udalerririk gehienetan; Antzuolan, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Arrasaten, Elgetan, Leintz Gatzagan eta Oñatin, hain zuzen ere. Hala ere, Bergaran eta Aramaioren egoera ez da horrenbeste aldatu. Martxotik hona, %8,15etik %8,95era egin du gora langabeziak Bergaran. Aramaioren kasuan, egoerak hobera egin du; izan ere, martxoan %2,38koa zen tasa eta orain %2,25ekoa.

Hego Euskal Herrian, 3.767 langabe gehiago zeuden maiatzean –horietatik 2.700 zerbitzuen sektorean–. Hala, 182.852 herritar daude guztira lanik gabe. Osasun alorrean ez bezala, Gipuzkoa izan da ekonomikoki kaltetuena izan den lurraldea, %3,06 hazi da eta langabezia, eta 1.138 langabe gehiago daude orain –guztira, 38.317–.

Gainerako lurraldeei erreparatuta, Bizkaian %1,99 egin du



Luis Mari Fernandez Pou, Oñatiko Aker tabernako zerbitzaria, trago bat ateratzen. E.A.

gora langabezia-tasak eta 1.555 langabe gehiago daude. Nafarroan, %1,72 hazi da eta 695 dira langabeak; eta Araban, %1,62ko igoera erregistratu da, eta 379 langabe gehiago daude.

Irakurketa itxaropentsua

Lanbideko Borja Belandia zuzendariaren esanetan, jardueraren suspentzea euskal lanmerkatua dinamizatzen hasten ari da. "COVID-19aren pandemiaren ondorioz aldi baterako erregulazio-espeditatearen eraginpean egon diren pertsonen ia erdia dagoeneko irten da egoera horretatik", azaldu du.

Hala ere, Belandiak itxaropen mezua zabaldu nahi izan du: "Hasi gara tunelaren amaieran argia ikusten, eta gure jarduerak hasi da suspentzean, baina oraindik ez zaio aurreko eritimoari heldu, eta horrek jarraitzen du ondorioak uzten".

Beherakada, Adegiren ustez

Adegik egindako aurreikuspenaren arabera, Gipuzkoako ekonomiak %7-10 artean egingo luke behera 2020an. Enpresen elkartek azaldu du fakturazioa %21 jaitsi dela lehen lauhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. "Era berean, enpresen %74,5ek adierazi dute lehen lauhilekoan salmentak gutxitu egin direla". Horrekin batera, adierazi dutenez, enpresen %76k diote eskari maila txikia dela, "2010eko apiriletik izandako baxuena". Azkenik, susperraldia

gertatzeko urtebete baino gehiago beharko dela uste dute enpresen %65ek, Adegik egindako inkestaren arabera.

KANPAINAURRE GIROA

IÑIGO URKULLU ETA MADDALEN IRIARTE DEBAGOIENAN IZAN DIRA AZKEN ASTEAN

Aurreko egubakoitzean, Arantza Tapia Ekonomia sailburuak eta Iñigo Urkullu lehendakariak Mondragon Taldeko ordezkarien industria kontseiluan parte hartu zuten, gonbidatu gisa, Aretxabaletako Otalora jauregian, eta lehen eskutik jaso zuten kooperatiba taldeak bizi duen egoera. Orain arte egindakoak eskertu eta elkarlanerako dei egin zuten lehendakariak.

Eguaztean, bestalde, Oñatiko Larraña Etxean egon zen Urkullu, Jonan Fernandez Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lan-kidetzaren idazkari nagusiarekin eta Monika Hernando Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarekin batera. Harrera-zentroa gertutik ezagutzeaz gain, egoiliarren eta langileen kezkek partekatuta zituzten agintariak.

Bestalde, EH Bilduk kanpainareko ekitaldia egin zuen Oñatin, Maddalen Iriarte, Mikel Otero eta Jasone Agirrerekin. "Zerbitzu publikoaren berrazterketa egin beharra dago, krisi ezberdinetan bizitzea egokitu-tuko zaigulako datozen urteetan,



eta ezin dugu irabazi ekonomikoaren eta gutxi batzuen interesak defendatzen dituzten patronalen presiopean politika egiten jarraitu", azaldu zuen Iriartek.

UZTAILAREN 12KO HAUTESKUNDEAK HAUTESKUNDEETAKO MAHAJETAN ALDAKETAK EGONGO DIRA HERRIETAN

Hauteskunde-kanpainan eta egunean bertan hartu beharreko neurriak zehaztu ditu Jaur-laritzak aste honetan. Kanpainari dagokionez, "saihestu egingo da edozein eratako objektuak edo liburuxkak eskura ematea, eta leku itxietan egiten diren ekitaldietan, gel hidroalkoholicoa jarriko da sarreran, eta eskuzkoa ez den zakarrontzi estalkidun bat irteeran".

Egunean bertan, hauteslekuak ez dira adinekoen egoitzetan kokatuko eta 41 hautesleku gehiago jarriko dituzte EAEn, "jende pilaketak ekiditeko".

Arrasaten, esaterako, Ferixalekuan partez, Kulturaten egongo da hauteslekuetako bat eta ikastetxeetan gela gehiago erabiliko dituzte. Bergaran, bestalde, Seminarixoan jarriko dituzte mahaia. Aretxabaletan, Kurtzebarri eskolan beharrean, Ibarra kiroldegian egongo dira mahai guztiak, eta Eskoriatzan, kultura etxean beharrean, udal pilotalekuan jarriko dituzte.

Posta bidezko botoek, gora

Estefania Beltran de Heredia Segurtasun sailburuak azaldu-takoaren arabera, epe berean, duela lau urte eskatu zen boto bakoitzeko zortzi eskatu dira dagoeneko. Eskaera egiteko, *Hauteskundeak.eus* webgunean dagoen EINren formularioa bete behar da, eta, sinatu ostean, dagokion posta-bulegora eraman. Hori egiteko epea uztailaren 2an bukatuko da.

IKASTETXEAK, MARTXA HARTZEN

IKASTETXE BATZUEK HASI DITUZTE AURREZ AURREKO ESKOLAK; BESTE BATZUEK, EZ

Debagoieneko ikastetxeak ere ari dira pixkanaka martxa hartzen. Miguel Altuna institutuan, esaterako, maiatzaren 25ean hasi zituzten lehen eskolak. "Escola praktikoak bultzatzen ari gara, bereziki, lehen eta bigarren ebaluazioetako errefortzu modura. Modulu praktikoak egiten ari gara, premia gehien duten ikasleei zuzenduta, eta gainontzeko guztiei ere aukera eman diegu klasera etortzeko, nahiz eta askok etxean geratzea erabaki duten", adierazi du Josune Irazabal zuzendariak.

Ebaluazioa atzeratu egin dute. "Normalean, ekainaren 4rako bukatzen dugu hirugarren hiruhilekoa, baina ekainaren 12ra arte luzatu dugu aurten, ikasleei

ikastetxera etorri eta galderak egiteko aukera eskaintzeko. Gero, ezohiko deialdirako beste bi aste geratuko zaizkigu".

"Nahiko ondo" moldatzen ari direla dio Irazabalek. "Eraikin berriarekin zortea dugu, espazio oso zabalak eta handiak direlako eta sarrera asko ditugulako. Hori dela eta, nahiko erraz kudeatu dezakegu egoera. Gogorrena maskarak erabiltzea izaten ari da, ez gaudelako ohituta. Gainera, irakaskuntzan oso garrantzitsua da espresioa. Egoerara ohitzen ari gara oraindik".

Itzulera, "uste baino errazagoa"

Arizmendi Ikastolako Almen gunean ere aurreko astean eta aste honetan hasi dira eskolak. "Uste baino errazagoa izan da. Ikasleak oso kontzientziatuta etorri dira eta ez da arazorik egon. Irakasleok ere gogotsu geunden aurrez aurre jardutera bueltatzeko", dio Leire Arana irakasleak. Batxilergoko lehen eta bigarren mailakoak, Lanbide Heziketakoak, Oinarrizko Lanbide Heziketakoak eta Zereginen Ikaskuntza Gelakoak dira klaseetara itzuli direnak. Han ere, egiteke zeuzkaten azterketa edo lanak eta errefortzu lanak egitera bueltatu dira, oro har.

Segurtasun neurri guztiekin ari dira. Maskarak erabiltzen dituzte eta eskuak garbitzeko materiala ere prest dute. "Sarrera eta irteerak nondik egin ere antolatuta daukagu. Hori guztia osatzeko, egunaren bukaeran

garbitzaileak erabilitako eremuak garbitzen dituzte egunero, dena prest utziz. Eskerrak haiei ere!", dio Aranak.

Gaur itzuliko dira Elkar Hezin

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean gaur itzuliko dira klaseetara, "betiere, Hezkuntza Sailak ahalbidetu duenaren barruan", Leire Arietaleanizbeaskoa zuzendariaren esanetan. "DBHko 4. mailan eta batxilergoko lehenengo mailan, aurrez aurreko indargarriak eta ezohiko probak egiteko eta batxilergoko bigarren mailan, indargarriak eta EBAU probak prestatzeko. Ikastetxeko gainontzeko ikasleek, berriz, etxetik, telematikoki lanean jarraituko dute".

Ohiko segurtasun neurriez gain, sarrera-irteerak era ordnatuan egingo dituzte. Bestalde, ordutegiak eta taldeak antolatuko dituzte, segurtasun distantziak betetzeko. "Ikasleak, ohiko gelatan jardun beharrean, egoerak eskatzen dituen baldintza berrietara egokitzeko gelen berrantolaketa egin dugu".

PARKETXEAK ETA MUSEOAK, IREKITA

ARANTZAZU PARKETXEA, IREKITA; MUSEOAK, ASTEBURUAN

Gaur, egubakoitza, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da, eta, hori baliatuz, Arantzazu

parketxeak hainbat ekintza antolatu ditu astebururako. Bihar, zapatua, hegazti sarraskijaleen inguruko hitzaldia eskainiko du Mikel Olano basozainak, 11:30ean. Aurrez ize-na eman beharko da, 943 78 28 94 eta 699 335 183 telefono zenbakietara deituta, *arantzazu@gipuzkoanatura.eus* helbidera mezu bat bidalita edo *www.gipuzkoanatura.eus* atariaren bitartez.

Domekan, Arantzazu inguruko paisaiak gozatzeko ibilaldi gidatua egingo dute, 11:30ean abiatuta. Horretarako ere ize-na eman beharko da.

Ekainaren 14an, pago motzak, kultur eta natur ondarea ezagutuko dituzte; ekainaren 20an, Arantzazuko altxorren bila jardungo dute; eta ekainaren 27an, *Basoa, lasaitasun iturri* izeneko ekintza egingo dute.

Museoak bihar irekiko dituzte

Bihar, zapatua, irekiko dituzte Bergarako Laboratorium, Leintz Gatzagako Gatz Museoa eta Arrikruz Oñatiko kobak, guztiak ere erreserba bitartez.

Laboratoriumi dagokionez, 943 76 90 03 telefonora deitu beharko da eskaera egiteko; Gatz Museoko bisita gidatuak jaso ahal izateko, 943 71 47 92 zenbakira deitu edo *info@gatz-museo.com* helbidera idatzi -ikus 25. orria-; Arrikruz Oñatiko Kobez gozatzeko, azkenik, 943 08 20 00 telefonora deitu.

"Ez dugu gura inor bidali Eibarko ospitalera"

INGE LANDALUZE GSR DEBAGOIENA EGOITZAKO ZUZENDARIA

Azken astean asko hobetu da egoera Aretxabaletako GSR Debagoiena egoitzan.

Zein da egoitzako egoera?

Kasu positibo bat daukagu eta lau egoiliarrek emaitza indeterminatua dute. Horrek esan gura du lau antigenotik batek oraindik gene positibo batzuk dituela, baina efektu negatiboa duela. Azken horiek astelehenerako negatibo izango dira, seguruenek, eta esperantza daukagu positibo eman duen horrek negatibo ematea datorren astean. Izan ere, positibo izaten jarraitzen dutenak Eibarko ospitalera bideratuko dituzte. Hala ere, gure asmoa da, ahal

izanez gero, behintzat, inor bideratu beharrik ez izatea hara, eta ea lortzen dugun.

Egoitzan positiborik ez izatea da asmoa epe motzean?

Bisitak hasi ahal izateko, ezin dugu kasu positiborik izan egoitzan. Diputazioak esan du ekainaren 8tik aurrera bisitak egitea posible izango dela, baina ezin dugu positiborik izan horretarako.

Zelan daramazue egoera?

Oraindik kasu positiboak izateak arraroa dirudi, azkenak garela, baina gu berandu hasi ginen kasuak edukitzen, beste egoitza batzuk lehenago hasi ziren. Galderari erantzunez, ondo



GSR DEBAGOIENA

daramagula esango nuke. Ikusten dugu kutsatuak erreperatzen ari direla apurka. Gainera, gehienak asintomatikoak izan dira. Proba asko egin ditugu, batzuei bi

bakarrik, baina gehienei hiru PCR probatik gora egin dizkiegu. Bilatzen ibili gara, ez dugu itxaron sintomak eduki arte. Bilatzen duenak aurkitzen du, eta horrek ere lagundu digu. Askok ikasi dugu guztiok, eta langile guztien lana ere goraiatzeko da. Material aldetik ere ez dugu arazorik izan, enpresek eta Diputazioak une oro ekarri digute eta.

Egoera kontrolpean duzue?

Badira asteak kontrolpean daukagula. Hasiera izango zen zailena, agian, baina zortea izan dugu, kasu positiboak astiro joan direlako agertzen. Guztira, 38 kasu positibo izan ditugu, baina ez dira guztiak batera etorri. Alde horretatik, ez da kaosa izan. Horrek asko lagundu digu egoera kudeatzeko orduan.

Maialen Santos DEBAGOIENA

Baliabide faltarengatik egunerokoan laguntza ekonomiko edota soziala behar duten pertsonen egoera are gehiago zaildu da azken asteetan, COVID-19 gaitzaren eraginez. Diru-sarrerarik apenas duten familiek inoiz baino gehiago behar izan dute laguntza; eta langabezian geratu eta laguntza eskatu behar izan duen familiarik ere egon da. Era berean, bailarako eragile ezberdinak "inoiz baino gogorrago" ari dira lanean, pertsona zaugarrienen premia guztiak asetzera helburu.

Otorduak egunero banatzen

Oñatiko Elikagaien Elkartasun Proiektuko boluntarioak -Acesma elkartearen barruan- "atse-denik gabe" aritu dira lanean koronabirusaren krisia hasi zenetik. Bertan koordinatzaile lanetan diharduen Ibis Rodriguez boluntarioak GOIENARI azaldu dio krisia hasi aurretik martitzenetan eta egubakoitzetan banatzen zizkietela elikagaiak beharra zutenei; gaitzaren eraginez, ordea, bazterketa soziala sufritzeko arriskuan daudenak gehiago dira, eta, hortaz, banaketa arratsaldero egiten dihardute orain: "Duela gutxira arte, 78 familia laguntzen genituen, eta orain, 109. Guztira, 280 lagunek jasotzen dute gure laguntza".

Elikagaien Elkartasun Proiektuari esker laguntza "egunero" jasotzen duenetako bat da Amada Aguiar. GOIENARI azaldu dionez, bost lagun bizi dira etxean, eta dio laguntza jasoko ez balu egoera "zailean" biziko liratekeela. Hala ere, dio koronabirusak ez duela bere egoera askorik aldatu: "Gutxienez, krisiak iraun bitartean lanean jarraitu ahal izan dut, ordu gutxi batzuek bada ere". Nancy Barberoren egoera antzekoa da; berak ere egunero jasotzen du laguntza, baina langabezian dago, "lan bila" ari den arren. Berak aitortu moduan, dohaintzan jasotzen dituen elikagaiei esker ez balitz, bere egoera "kritikoa" litzateke: "Seme bat dut etxean, eta berak kezkatzen nau gehien".

Ibis Rodriguezek aitortu duenez, eskaria "nabarmen" handitu da azken boladan; eta horrek esan gura du baliabide eta elikagai gehiago behar izan dituztela. Gauzak horrela, beste erakunde batzuetatik etorritako

Laguntza-sareak, inoiz baino indartsuago behartsuenen mesedetan

Oñatiko Elikagaien Elkartasun Proiektuko boluntarioek 109 familia laguntzen dituzte egunerokoan. Bailarako Caritasek jasotako eskaerak "nabarmen" hazi dira COVID-19 gaitzaren eraginez, eta Bergarako Elikagaien Bankuan ere "gogor" ari dira lanean



Oñatiko Elikagaien Elkartasun Proiektuko boluntario bat, familia bati elikagaiz betetako kutxa ematen. XABI URZELAI

errefortzua jaso du taldeak; Gurutze Gorriari esker 5.000 kilo elikagai banatu dituzte -udaletzeko brigadaren laguntzaz-; eta Bergarako elikagai bankuaren laguntzaz, beste 2.000 kilo. Oro har, Rodriguezek azaldu du beste elkarte batzuekin "sarean" lan egitera ohituta daudela, eta "elkarlana" dutela oinarri. Boluntario taldeari buruz galdetuta, adierazi du talde "politikoa" aritzen dela lanean, eta "eskertzekoa" dela egunerokoan egiten duten lan guztia.

Caritas ere laguntzen

Caritasen ere igarri dute gaitzaren eragina, boluntario lanetan aritzen den Horazio Argaratek azaldu duenez: "Jende askok behar izan du laguntza; kasu honetan, baita psikologikoa ere". Horren harira, dio Caritaseko boluntarioak pertsonengandik

'Bazkari salbatzaileak'

Egungo egoeraren harira sortu diren elkartasun proiektuetako bat da *Bazkari salbatzaileak* izenekoa. EIT Food-ek, Ausolan-ek eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Madrilgo elikagai bankuek martxan jarritako ekimen honen bidez, ikasturtea bukatu artean, ume eta nerabeentzako 60.000 menu baino gehiago banatuko dituzte premia handien duten familien artean. Bailaran, zehazki, 300 otordu banatzen dituzte egunero; 150 Oñatin eta 150 Bergaran.

"gertu" egoten saiatu direla, baita "lasaitasuna" ematen ere. Rodriguezekin bat dator Argarate, eta aitortu du azkenaldian laguntza eskaerak "izugarri" hazi direla eta telefono dei asko jaso dituztela "larritasun handiko egoerek eragindakoak".

Esaterako, Oñatin eta Aretxabaletan laguntza bonuak banatu dituzte Caritasetik; onuradunek herriko komertzioetan elikagaiak eta gutxienezko higiene produktuak eros zituzten. Udalek eta Eusko Jaurlaritzak emandako diruari esker banatu dituzte bonuak, baina jendeak Caritasi dohaintzan emandako dirua ere baliatu behar izan dute: "Beharrezko produktuez gain, fakturak ordaintzeko edota botikak erosi ahal izateko 100.000 euro baino gehiago eskaini ditugu". Bailarako gainontzeko herri gehienetako udalek

ere eskaini dituzte antzeko laguntzak, baina Horazio Argaratek azaldu du kasu horietan ez dituela Caritasek kudeatu.

Elikagaien banaketari dagokionez, Argaratek azaldu du herrietan laguntza-sareak sortu direla, eta horiei "oso eskertuta" azaldu da. Adierazi duenez, Caritaseko boluntario asko adinekoak dira, eta askok ezin izan dute lagundu konfinamenduak iraun bitartean. Horrenbestez, boluntario gehiagoren beharra izan dute; gehienak, gazteak.

Horretaz gain, etenaldiaren ostean, *Bidean* programa martxan du berriro Caritasek. Lan munda integratzeko eskolak eskaintzen dituzte Arrasaten duten egoitzan, eta, gutxinaka bada ere, jendea hasi da eskoletara itzultzen, etorkizunera begira lanbideren bat izatea helburu.

Elikagai Bankuan, ohiko martxa

Bergarako Elikagaien Bankuan ez dute etenaldirik egin azken asteetan, eta, gutxi-asko, lanean aritu dira ohiko boluntarioak. Euretako batek, Jose Antonio Agirrebeñak, aitortu duenez, "normal" ari dira euren jarduna egiten; eta onuradunek hilean behin jasotzen dute laguntza. Halere, aitortu du egun batzuetan "larrialdizko laguntza" eman behar izan dutela, "egoerak bul-tzatuta". Eskaera %30 inguru igo dela kalkulatu du Agirrebeñak, eta hori guztia gestio-natzeko arduradun bat izan dute une oro izendatuta.

Bestalde, boluntarioak azaldu du stocka badutela Bergarako bankuan, baina kalteren bat ere jaso dute; izan ere, azken minutuko banaketa delakoa ezin izan dute egin azken asteetan: "Ohi-tura dugu supermerkatuetan saldu ezin daitezkeen baina kontsumitzeko moduan dauden elikagaiak biltzeko, eta martxoaren 15az geroztik produktu fresko gutxi eskuratu ahal izan ditugu". Halere, azken hilabetean hasi dira supermerkatu batzuetara joaten, eta datozen asteetan progresiboki lehengo ohi-turara itzuliko direla aurreikusten dute.

FAKTURAK ORDAINDU ETA BOTIKAK EROSTEKO LAGUNTZA EKONOMIKOA BEHAR IZAN DUTE ZENBAITEK



Arrasateko Arteaga jatetxea, jendez beteta dagoela. MAIDER LARRAÑAGA

Jatetxe handiak "kalte nabarmenak" jasanda ari dira lanera itzultzen

Bailarako jatetxeak ari dira ateak zabaltzen, gutxinaka. Gordetako elikagaietako asko aprobe txatu ezin izanak eta gastu finkoei aurre egin beharrak galera ekonomikoak eragin dizkie ostalariei. Ospakizun gehienak bertan behera geratu dira, gainera

Maialen Santos DEBAGOIENA

Bailarako jatetxe handiek ateak itxita izan dituzte martxoaz geroztik, eta euren jarduna eten behar izanak "kalte ekonomiko handiak" eragin dizkie guztiei. Konfinamendua arintzeko planaren baitan, zabaltzen ari dira berriro, pixkanaka; batzuek azken egunetan ireki dituzte ateak eta beste batzuek datozen asteetan irekitzeko ari dira prestatzen.

Erreserbak hartzen hasita

Arrasateko Arteaga jatetxean martitzenean hasi ziren martxan, "etenaldi luze baten ostean". Bertako arduradun Maider Larrañagak azaldu du lehen egunetan jatetxea "topera" izan dutela, eta datozen egunetarako ere "erreserba ugari" egin dituztela bezeroek. Hala ere, uste du "irekieraren nobedadeak"

erakarri duela jendea, eta dio egunak pasa ahala bisita kopurua "egonkortuz" joango dela, ziur aski. Bergarako Lasa jatetxeak, bestalde, atzo zabaldu zituen ateak, eta lehen egunetarako erreserba batzuk izan dituela aitortu du bertako arduradun Koldo Lasak: "Batez ere, ostiral eta zapatuan etorriko zaizkit bezeroak". Zabaldu aurretik, baina, jatetxea atontzen aritu da bi egunetz: "Hainbeste denbora itxita izan ostean, garbiketa lan ugari egin behar izan ditut". Eta Lasako sukaldeburuak "argi" du: koronabirusa indarrez itzuliko balitz, berriro itxiko luke jatetxea.

Oraindik itxita dauden arren, zabaltzeko prestatzen ari diren bailarako jatetxeetako bi dira Oñatiko Zelai Zabala eta Leintz Gatzagako Gure Ametsa. Lehenak ekaineko azken asteetan

irekitzea aurreikusten du, eta bertako arduradunak, Alberto Elorzak, adierazi du dagoeneko gauzak prestatzen hasita daudela. Edozelan ere, dio zabaltzen dutenean ikusiko dutela zein "martxa" dagoen. Gure Ametsaren kasuan, "laster" dira zabaltzekoak. Josune Ibabe arduradunak GOIENARI azaldu dio "traba" handi bat dutela; izan ere, Arabarekin mugan dago jatetxea, eta, probintzia arteko mugimenduak debekatuta daudenez, ezin dute bezero arabarririk hartu: "Zabalduko bagenu, zati handi batek ezingo luke etorri". Gauzak horrela, ziur aski, konfinamendu-arintzearen hirugarren fasera arte itxarongo dute jatetxeetako ateak irekitzeko.

Segurtasun neurri "guztia"

Jatetxeetatik azaldu dute segurtasun neurriak errespetatu ahal

izateko "espazio arazorik" ez dutela, laurak baitira jatetxe handiak, "leku askokoak". Arteagatik adierazi dute bezeroak "izugarri ondo" ari direla betetzen segurtasun neurriak: "Maskarekin etortzen dira, eta distantziak mantentzen ere saiatzen dira". Gaineratu duenez, sarrera eta irteera banatu egin dituzte, "jendeak topo egin ez dezan". Zelai Zabala ere ari dira prestatzen; mahai batzuk kendu egin dituzte, eta elkarren artean distantzia handiagoa utzi. Elorzak azaldu du, gainera, langile bat desinfekzio lanak egitera soilik bideratzea ari direla aztertzen, "komunak eta barandak garbi mantentze aldera".

Ospakizunak, bertan behera

Arrasateko Arteagan azaldu dute jatetxean egitekoak ziren jaunartzeak "bertan behera" geratu direla. Hori bakarrik ez; ezkontzak egiteko ere "arazoak" izaten ari dira, eta bertan behera geratu ez direnak "atzeratu" egin dituzte. Arteagan egingo duten lehen ezkontza uztailan izango da, eta "era berezian" egingo dutela kontatu du Maider Larrañagak: "Ehun gonbidatu inguru dira etortzekoak, baina ezin ditugu guztiak batera hartu". Horrenbestez, ezkontzaren ospakizuna bi egunetan egitea erabaki dute ezkongaiak: "Batean, familiarekin, eta bestean, lagunekin". Koldo Lasak azaldu duenez, bihar, zapatua, ospatuko dute lehen ezkontza Lasa jatetxean: "Urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Baina ez da ospakizun handia izango; hogeit bat lagun elkartuko dira". Zelai Zabalen ere apiriletik hasita ezkontzak ospatzekoak ziren, baina asko "datorren urtera" atzeratu dituzte. "Kintada bat eta bazkari familiar ugari ere egitekoak ginen", zehaztu du Alberto Elor-

"IREKITZEAZ BAT, ERRESERBAK IZAN DITUGU; JATETXEA BETE EGIN DUGU"

MAIDER LARRAÑAGA, ARTEAGA

"EZKONTZAK BERTAN BEHERA GERATZEAK KALTE HANDIAK ERAGIN DIZKIT"

KOLDO LASA, LASA JATETXEA

zak. Hala, uztailearen 25ean izango dute lehen ezkontza, "dena ondo bidean". Gure Ametsako egoera ere antzekoa da, eta kalkulatu dute hamar ezkontzetako otorduak atzeratu egin direla. "Halere, irailera eta urriko ezkontzak mantendu egiten dira, momentuz".

Itxiera, "kolpe latza"

Jatetxeak itxi behar izateak "kalte handiak" eragin ditu ostalarientzako. Gure Ametsako arduradunak dio urteko sasoi hau "oso indartsua" izaten dela ostalarientzat, eta, beraz, hozkailu eta izozkailuak "goraino beteta" izaten dituztela. Gauzak horrela, "ezustean" harrapatu zuen itxieraren aginduak, eta jatetxean zituzten elikagai fresko guztiak langileen artean banatu zituzten, "gal ez zitezen". Iozkailuko zenbait elikagai mantendu ahal izan dituzte, baina beste batzuk "galdu" egin direla aitortu du Koldo Lasak. Elikagaiez haratago, izandako gastua "handia" izan dela dio: "Esaterako, argindarra ordaintzen jarraitu behar izan dugu, diru-sarrera minimorik izan gabe ere". Gaineratu du ezkontzek "salbatu" egiten dutela euren lana, baina, horien faltan, galera ekonomikoak "izugarri handiak" izan direla.

Jatetxe gehienetan, etxekoekin gain, langile finkoak dituzte egunerokoan, eta gehienak ERTEAN egon dira denbora honetan guztian –eta gehienek hala jarraitzen dute–. Horretaz gain, ospakizunetarako langile gehiago kontratatzen dituzte ostalariek –errefortzu modura–, eta azaldu dute aurretik "nekez" izango dutela pertsona gehiago behin-behineko kontratatzeko aukera. Hala, ostalaritzan diharduten langileek ere kalteak izango dituztela uste dute arduradunek.

"DESINFEKZIO LANAK EGITEKO PERTSONA BAT JARTZEA ARI GARA AZTERTZEN"

ALBERTO ELORZA, ZELAI ZABALA

"ARABAREKIN MUGAN GAUDE, ETA BERTAKO BEZEROAK EZIN DIRA GURERA ETORRI"

JOSUNE IBABE, GURE AMETSA



Debagoiendarrak 2018ko ekainaren 10ean Gure Eskuk antolatutako giza katean. GOIENA

Plazak aldarriz betetzeko dei egin du Gure Esku-k

'Hamaika gara' ekimenaren baitan, domekarako, hilak 7, norik bere aldarria kartoi zati batean idatzi eta herriko plazetara eramateko dei egin du Gure Esku-k. Bailaran, Aramaioko Gure Esku-k deialdiarekin bat egin eta plazara irtetera animatu ditu herritarrak

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Gure Esku-k martxoaren 11n abiatu zuen *Hamaika gara* ekimena, erreferendumaren aldeko sinadura bilketarekin. Osasun krisiak guztiz baldintzatu du egitasmoa, baina, eta hain zuzen ere, aurkezpena egin eta egun gutxira, osasun krisiak dena hankaz gora jarri zuen: sinadura bilketa aldi batez sustatzeari

utzi, eta aurreikusitako kale mobilizazioak udazkenera atzeratzea erabaki zuten ekimen berriaren sustatzaileek.

Hala, *Hamaika gara* ekimenaren bitartez, erreferendum baten aldeko sinadura bilketa jarri zuten martxan Gure Esku dinamika itxialdiaren aurretik, hainbat eragile sozialekin elkarlanean. "Gure bidean mugarri

izango da ekimen hau", azaldu zuten orduan Amalur Alvarez eta Josu Etxaburu bozeramaileek.

"Sinadura bilketa masiboa" izango zela iragarri zuten, "etorkizun politikoaz eta gai guztiez erreferendum bidez erabakitzearen alde, erabakitzeko eskubidea arautzea helburua duena". Bilketa gain, beste hainbat ekintza egingo dituztela adierazi dute.

Mobilizazioak domekan

Fase berrietan herritarrek eta aldarrikapenek plaza publikoa berreskuratzeko garaia dela uste du dinamikak: "Premiazkoa da bizi dugun eta datorren krisiari Euskal Herritik eta guztion artean erantzun behar diogula adieraztea, eta tokiko erabaki burujabeak aldarrikatzea". Horregatik, *Hamaika gara* ekimenean bat egindako eragileek herri erantzun bat emateko dei egin dute, *Hemen erabaki, herritarrok erabaki* lelopean, datorren iganderako: "Parte-hartzaile bakoitzak bere aldarria kartoi zati batean idatzi eta etxetik plazara eramango du, eta han lurrean utzi". Helburua da 11:00etatik 14:00etara bitartean plazak aldarriz betetzea.

Egoerara egokitutako formatuarekin eta hartuko diren beharrezko neurri guztiekin, parte-hartzaile guztien osasuna eta segurtasuna zorroztasunez bermatuko direla ziurtatu dute antolatzaileek. Domekako mobilizazioen ondoren pixkanaka erreferendumaren aldeko sinadura bilketari ekingo diotela zehaztu dute antolatzaileek, eta udazkenetik aurrera kanpaina indartzeko asmoa erakutsi dute.

Debagoienean, Aramaion

Bailararen kasuan, Aramaioko Gure Esku-k *Hamaika gara* ekimenak egindako deialdiarekin bat egin eta bakoitzaren aldarriarekin plazara hurbiltzeko dei egin du domekarako. Era berean, gaur eta bihar, informazio mahaia jarriko dute plazan, 20:00etan.

Gure Esku-tik zehaztu dutenez, Debagoieneko gainerako herrietan ez dute domeka honetan ekintza horrekin bat egiteko deialdi berezirik egingo, baina

datozen asteetarako ekintza batzuk antolatzeko asmoa dutela zehaztu dute.

Bazkietza kanpaina

Ekimena martxan jartzeko diru inbertsio "handia" egin duela azaldu du Gure Esku-k, eta, hain zuzen, bazkideen ekarpenen eta ekimenari lotutako salmenten bidez berreskuratzea aurreikusita dutela adierazi dute. Osasun krisiak eragindako geldialdiak, baina, salmenta bidezko diru sarrerak atzeratu egin dituela azaldu dute, "estualdian" jarri duela herri dinamika.

Egoera horretan, "komunitatearen babesa" eskatu eta bazkide diren horiei 20 eta 50 euroko ekarpen bereziak egiteko aukera emango diete. Oraindik bazkide ez direnek bi eratara lagundu ahal izango dute: uneko ekarpen berezi baten bidez, zein bazkide eginez.

Konfinamenduan ere lanean

Hasiera batean aurkeztutako ekintzak atzeratuak izan diren arren, COVID-19ak eragindako geldialdian *Gelditu. Hausnartu. Erabaki* solasaldi digitalak antolatu dituzte, koronabirusak eragindako egoeraren ondorengo mundua nola aldatuko den hausnartzeko asmoz: "COVID19-aren ondorengo mundua nola aldatuko den elkarri galdetuz, zer gertatuko zain geratzen bagara, iraganaren antz gehiegi izango duen normalitate berri batera igarotzeko arriskua handia da".

KORONABIRUSAREN KRISIAK "ESTUALDIAN" JARRI DU EKIMENA ETA EKARPENAK EGITEKO AUKERA IREKI DUTE

'Izan bidea' dinamikaren baitan, zenbait ekitaldi Debagoienean

Aretxabaletan, Bergaran eta Arrasaten egin zituzten joan den asteburuan bailarako herrietako lehen ekintzak

J.O. DEBAGOIENA

Sarek abiarazitako *Izan bidea* dinamikaren barruan hainbat ekitaldi egin dituzte azken astean Debagoieneko herrietan. Euskal presoen aldeko ekimenak hiru milioi kilometro pilatzea du

helburu; hain zuzen ere, Euskal Herriak duen biztanle kopurua: "Presoen eta iheslarien auziari behin betiko konponbidea eman, jendartea aktibatu eta aniztasuna batzea da dinamika berriaren helburua".

Aretxabaletari dagokionez, domekan Urkuluko urtegiari itzulia emanez egin zituzten lehen kilometroak. Otalora parean agerraldia egin zuten lehengo, Garikoitz Garcia preso aretxabaletarraren egoera salatzeko, eta ostean, babes neurriak hartuta, eta distantziak zainduta, Urkuluko urtegiari itzulia eman zioten, oinez, korrika, patinetan edo bizikletan.

Bergaran ere, Gure Artera-Sarek antolatuta, elkarretaratze ibiltaria egin zuten egubakoitz



Bergarako elkarretaratze ibiltaria. GOIENA

iluntzean Bergaran, *Izan bidea* dinamikaren baitan. Elkarren arteko distantziak errespetatuz eta zintei helduta, bi ilaratan zeharkatu dituzte herriko hainbat kale.

Arrasaten, Kurtzetxikitik aurkeztu zuten domekan eguerdian *Izan bidea* ekimena. Hala, arrasatearrak ere dinamikara batu ziren. Talde argazkia atera zuten, eta *30 urte asko da! aski da!* lelodun pankarta erakutsi zuten, "presoen eta iheslarien auziari aterabidea emateko asmotan".

Oñati gestio heziketa

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Izen-ematea

Ekainaren 1etik 19ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP

- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683



ZABALIK

IKER AGIRRE

Telenekea

Ostirala, koronabirusa gure bizitzetan programatu zenetik 89. eguna.

07:20. Iratzargailuak ohi bezala jo du. Altxatu eta kafea berotzen dudan bitartean, egungo egoeran banaezinak bihurtu zaizkigun eramangarria eta wifia piztu ditut, eguna konexio onean hasteko asmoz.

8:20. Eguneko lehenengo bilera. Parez pare dut duela hiru hilabete hezur-haragizkoa zen lankide bakoitza, pospolo-kaxa bat baino txikiagoa den laukitxo batean sartuta bakoitza. Bilerarekin hasi bezain pronto, konexio arazoekin hasi gara: "Ez zaitut ikusten"; "Ez dut ondo entzuten"... diote laukitxo ñimiño horietatik datozen ahotsek. Lehen autokonexiorako eta ingurukoekin konektatzeko zailtasun gutxi bagenituen, orain beste arazo bat gehitu zaigu zerrendara. Gainera, aurretik aipatutako esaldiek norbere barnean inpotentzia, haserrea eta ezjakintasuna loratzen dute, goizeko kafeak emaniko energia xahutuz.

HEZUR-HARAGIZKOAK ZIREN LANKIDEAK, POSPOLO-KAXA BAT BAINO TXIKIAGO DEN LAUKITXO BATEAN

Behin konexio arazoak gaintuta, bileran guraso den bati haurra atentzioa eskatzen ari zaio, eta laukitxo horretan bertan tentsioa nabari duzu, guraso eredugarriaren testa izango balitz bezala. Erantzun egokia eman

behar du; pospolo-kaxa erakusleho erraldoi bihurtu da segundo gutxiren bueltan. Elkarren arteko barretxo lotsati batekin gurasotasun testik ez dagoela birgogorarazi nahi izan diot, naturaltasuna ereinez.

Txandak errespetatzea ere zaila... bat hizketan hasi eta besteak nahigabe zapaltzen duenean sortzen den bost segundoko isilunea eta tentsioa "segi, segi zuk" batekin lasaitzea lortzen da.

Konturatu orduko, arratsaldeko bostak direla iragarri du zure eskumuturrekoa ordezkatzen duen ordenagailuko erlojuak. Amaitu da eguneko azken bideo deia. Egun osoan bizi izandakoak azaleratzen hasi zaizkit orain; bakarrrik nago, ez dago inor nirekin konektaturik, ezin dut bilera osteko sentsazioa elkarbanatu. Telenekatuta nago; buruko mina, bizkarra ere ez daukat hobeto, begietako nekea...

Bihar, beste teleegun bat izango da.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Espezie inbaditzailea

ARANTXA URRETABIZKAIA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Oraindik indarrean dugun itxialdiari zirrikitu bat zabaldu zaion honetan, laborategi aproposa sortu zaigu jendearen portaera aztertzeko.

Denbora dugu, baita premia ere, geure buruaz dugun irudia ez baitator beti bat errealtatearekin.

Ados, gehiengo zabalak arauak errespetatu ditu, erabakiak hartzen dituzten agintariak gustuko izan ala ez.

Baina herritarrok osatzen dugun basoaren barruan espezie inbaditzaile berri

baten sarrera eta garapena antzeman dut egunotan.

Agian, hor zegoen, ezkutuan, baldintza egokien zain.

Espezie hori *listilo*-ena da, *listopasatu*-ena, pikaroena.

Espanian gutxienez XVI. mendetik dokumentatua eta literaturara eramana, pertsona askoren eredu eta irudi bilakateraino, gurean ez da, orain arte, tradizio hori errotu.

Guk beste balio batzuk hobetsi izan ditugu, gu hitzekoak gara, zintzoak, maltzurkeriaren kontrakoak.

Goizean goiz, kirola egitera; goiz erdian, erosketak eta botikak; bazkalondoan, txakurra ateratzera;

iluntzean, amarekin edo aitonarekin paseatzera.

Tartean, beste hamaika aitzakia; udaltzain batek zertan ari zaren galdetzen badizu, esaiozu guraso zaharrak zaintzera zoazela, ezindu bati laguntzeko asmoz atera zarela kalera.

Pikaroarentzat pitzadura guztiak bilaka daitezke zirrikitu, zirrikitu oro bidezidor.

Badaki nola saihestu gainerakoontzat nahitaezko diren arauak.

Badaki nola mozorrotu errebelldiaz bizkorkeria besterik ez dena.

Errebelldia, ordea, beste zerbait da.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Maite Igartua.

Publizitatea

Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

BERBAGAI

"Aisialdi bidaiekin hasi gara eta ilusio handia egin digu"

MARIFE MUÑOZ ARABA AUTOBUSETAKO UGAZABA

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA 1978. urtean aitak sortutako autobus enpresan dihardu lanean bere bi anaiekin batera. Koronabirusaren krisia modu ozenean pairatu dute, lan jarduera bat-batean geratu zenez geroztik martxoaren 13an. Batik bat, eskola eta aisialdi bidaiek eskaintzen dituzte.

Zenbat autobus dituzue?

Guztira, hamabi; zazpi handi eta beste bost txiki. Orotara, hamabi langile ari gara enpresan. Horien artean, hiru anai-arrebok. Langileetako batzuk jardun osora eta beste batzuk erdira. Egunero-egunero, bederatzi ari gara.

Zein da zuen lan ohikoena?

Astean barrena, batik bat, eskola bidaiek egiten ditugu Eusko Jaurlaritzarendako, eskola publiko zein ikastola kontzertatuendako. Horretaz gain, enpresei ere eskaintzen diegu zerbitzua. Asteburuetan, aisialdi bidaietan – sagardotegi, upategi, ezkontza...– zein Arrasate,



Marife Muñoz, Araba autobus baten aurrean, Labegarrietako industrialdean. E.A.L.

Bergara eta Aretxabaletako kirol klub nagusiendako aritzen gara.

Nola eragin dieue geldialdiak?

Bat-batean etorri zen jaitsiera. Martxoaren 13an utzi genion eskola bidaiek egiteari.

Asteburuan, 14an eta 15ean, sagardotegietarako dena hartuta geneukan, baina bertan behera geratu zen dena. Martxoaren 16a izan zen gure azken laneguna, enpresak ere geratu zirelako.

Ez diozue berriro ekin?

Maiatzaren erdialdean izan genuen Bergarako Lacor enpresaren eskaera bat. Dulantzina dute logistika-biltegia, eta Internet bidezko salmenta eskaera handi bati erantzun ahal izateko hasi ginen Bergaratik Dulantzira egunero garraiatzen langileak. Egunean bi zerbitzu egiten ditugu. Ideia bat egiteko, dena geratu aurretik, astean barrena, egunean, 50 edo 60 zerbitzu egiten genituen. Gaur egunean ari gara egiten krisiaren aurretik egiten genuen guztiaren %2.

Eskola garraioa ez duzue berrabiaraziko datorren ikasturtera arte?

Oraingoz, atzo, eguena, hasi eta ekainaren 15era arte, Bergarako Ipintza institutura eroango ditugu ikasleak Elgetatik eta Bergaratik. Selektibitateko prestatzeko. Autobus bana, joan-etorria. Bestela, datorren ikasturtera arte itxoin behar. Lehen, eskolako joan-etorriak ziren gure lan jardunaren %65 eta gainerakoa fabriketarako.

Aisialdi bidaiek egiten hasi zarete?

Justu bihar, zapatua, izango dugu lehen bidaia. Antzuolako zazpi laguneko kuadrilla batek kontratatu gaitu Getariara jatetxe batera

eroateko. Sekulako ilusioa egin digu.

Ze babes neurriekin ari zarete?

Gaur egun, edukieraren erdiarekin. Aulki batzuk prezintatuta. Gelak ere badarabiltzagu. Eta maskararekin etortzea eskatzen diegu bidaiariei, derrigorrezkoa da eta. Badirudi astelehenetik aurrera bus bidaietan ez dela izango edukiera mugarik.

Ekainaren 8tik aurrera asteburuetakoa lan jarduera berrabiarazi daitekeela uste duzue?

Zaila izango da. Jende asko dago ERTE egoeran edo ziurgabetasun handiarekin lanagatik. Askok kostako zaigu normaltasunera itzultzea. Irailean-edo, akaso...

Geldi egon zareten hilabete hauetan zertan aritu zarete?

Langileak ERTE partzalean izan ditugu. Bestalde, nire anaiak tailerrean: autobusak puntuan izateko egunero arrankatzen, bateriak kendu eta ipintzen, garbitu eta garbitu, barrutik zein kanpotik... halakoetan. **Jaurlaritzari eskaintzen zenioten zerbitzua eten egin zela-eta kalte-ordainik jasoko duzue?** Kontratuak bertan behera geratu ziren. Diru hori berreskuratu egingo dugula uste dugu.

ITURRI ONETIK

Jaiak, kontzertuak eta sari banaketak 'streaming' bidez

Koronabirusak hainbat ekitaldi bertan behera utzi ditu. Ondorioz, Bergarako jaiak *streaming* bidez eta telebistaz eman zituen Goienak. Datozen egunetarako hainbat ekitaldi iragarri ditu telebistan eta *Goiena.eus*-en: zapatuan, Jimmy Jazz-en Brigade Locok eta Arkada Socialek beste batzuekin emango duten kontzertua; ekainaren 12an eta 14an, Oñatiko Corpus jaien gaineko bereziak; 19an, Bergarako Koldo Eleizalde sari banaketa; 23an, Arrasateko San Juan jaietako buruzko berezia...

ALBISTE IZAN ZEN

2003-06-08

Gerrako biktimen omenezko monolitoa

1936ko gerran fusilatu edo desagerrarazi zituzten debagoiendarrak omendu zituzten Debagoieneko udalek. Bergarako eta Antzuolako alkateek izan ezik, gainerako alkateek parte hartu zuten ekitaldian. Arrasateko Laubide plazan jarritako plaka oroigarria bistaratu zuten, batutako jendetzaren eta biktimen senideen aurrean. Oroigarrian, fusilatu edo desagerrarazi zituzten 106 debagoiendarren izen-abizenak ageri dira.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

'#Blacklivesmatter', gai bakarra sare sozialetan

"Beltzen biziak inporta" duela ozen esateko, AEBetako protesta eta kaleetako mugimendu baketsuek sekulako jarraipena izan dute sare sozialetan:

@m_erdoiza: "Ze azkar ikasi dugun arrazakeria zurrizten".

@gadianak: "Arrazakeria ez da sortzen, irakasten da...".

@markbellid: "Ze politika sare sozialetan dana baltza ikustia arrazakeria salatzen. Ze politika baita jentia gizartian hain errotuta dauen zerbaite behin betiko erradikaitteko emun bihar dan lehenengo pausua emuten ikustia, deseraikuntza eta desikasketa".

Eskerrik asko

LURDES ARREGI ETA KARMELE SAN SEBASTIAN

(GARITANO-ARREGI ETA IPARRAGIRRE-SAN SEBASTIAN FAMILIEN IZENEAN) ANTZUOLA

Inoiz, ipar-haize zakar eta izoztuak kolpatzen gaitu eta gure bizitzako puzzlea osatzen duten pieza guztiak lur jota uzten ditu, uzten gaitu. Berreraikitzen hasteko, gainera, haize txar horrek pieza ezinbesteko bat eraman duela ohartzen gara. Horixe da Gorkaren heriotzak ekarri diguna. Minez eta hitzik gabe utzi gaitu.

Atsekabe eta samin horretan jaso dugun gertutasunak, berotasunak eta maitasunak ere hitzik gabe laga gaituzte. Jasotako amaiera gabeko besarkada bakoitzak ukitu gaitu, hunkitu. Familiaren izenean eskerrik beroena momentu latz hauetan gugana hurbildu zaren bakoitzari, urrun zaudetelako ezin izan zaretenoi gerturatu eta zuen egoeragatik hurbiltzeko ere indarrik izan ez duzenoi, gure begirune osoa; bizitzak bide-lagun bihurtu gaitu.

Esker berezi bat amaierako agurra antolatatu zenuten guztioi, Oinarin dantza taldeari, Alboradak txistu taldeari, eta ia denok han

zinatelako, herri osoari. Jaso dugun guztia jasotzeko ez dago dudarik Gorkak zerbait oso ondo egin duela. Gorka joan zaigu, baina hori dena utzi digu. Kandelak izartxo bat piztu digu zeruan argi egin dagigun!

Eskerrik asko denoi!

Kutxabank ez itxi!

PILAR ETXANIZ

LANDATXOPEKO ZUZENDARITZAKO KIDEA ANTZUOLA

Andre agurgarri horri: Debagoieneko erretiratuen eta pentsiodunen hamar elkarte hauek zuzentzen gara zuregana: Eskoriatzako Olazar; Aretxabaletako Basotxo; Arrasateko Abaroa, Uribarri, Musakola eta Toki Argi; Oñatiko Pake Leku; Bergarako San Joxepe; Leintz Gatzagak Toki Eder; eta Antzuolako Landatxope. Elgetako Xalbadorpe elkartearekin 8.000 bazkide inguru gara.

Elgetako Kutxabank ixtear dagoela jakin dugunean, herritarrekin eta, batez ere, Xalbadorpe elkartearekin bat egiten dugu. Adinduen elkarteak garen heinean, uste dugu neurri honek eragin zuzena eta kaltegarria duela kolektibo honengan. Izan ere, multzo anitza

osatzen dugun arren, asko eta asko gara teknologia digitaletan trebatuta ez gaudenok. Banketxe-zerbitzu zuzenik ez edukitzeak arazoak sortzen dizkigu eguneroko banku-operazioak egiterakoan, gure autonomia pertsonala mugatuz eta murriztuz; erabaki diskriminatzailea iruditzen zaigu.

Bere burua aurkezterakoan, honela diosku Kutxabankek: "Pertonekin konpromiso tinkoa duen erakundea gara. Gure bezeroak dira Kutxabanken lehentasun nagusia, gure negozio-eredua hurbileko hartu-emanen". Banketxeak argitaratu dituen datuen arabera, berriaz, 2019an, 352,2 milioi euro garbi irabazi zituen, aurreko ekitaldian baino %6 gehiago.

Ondorioz, ez dugu Elgetako zerbitzua ixteko arrazoirik ikusten; bai, ordea, herritarrei egiten zaien kaltea. Bereziki, adin nagusikoei, hauek izanik, hain zuzen ere, urte gehien euren konfiantza eta dirua banketxean mantendu dituztenak. Ezin dugu onartu hartu duzuen erabakia, eta bertan behera utz dezazuela eskatzen dizuegu.

Gure eskaera ontzat emango duzelakoan agurtzen zaitugu.

Poliziaren basakeriarik ez! Ez AEBetan, ez hemen, ez inon!

PITER ENCINAS

ARRASATE

Beste George Floyd bat gehiagorik ez! Ez hemen, ez inon! Gure ingurutik, gure bizitzatik poliziaren basakeria baztertu behar dugu eta hori lortzeko lehenengo urratsa salatu eta kritikatzeko da. Poliziaren biolentziari ezin diogu babesik eman eta ezin dugu errugabetu.

Sadiko hauek poliziatik kaleratu behar ditugu, soberan daudelako. Uste dut epaileak inpartzialagoak izan beharko liritekeela eta, horrelako gertaeren aurrean, zorrotzagoak izan. Gogoratu nahi dut orain dela hilabete eta erdi, gutxi gorabehera, Bilbon gertatu zena, gazte gaixo bat eta bere ama ertzainek atxilotu zituztenean. Barne ikerketa egon zen, baina poliziei ez zitzaion ezer gertatu. Aitzitik, bideoa egin zutenak ikertuak izan ziren eta isuna jaso zuten.

Arrasaten maiatzaren 23an gertatu zena ere azkena izan beharko litzateke. Badakit pertsona batzuek esaten dutena, zorionez Euskadi ez dela Ameriketako Estatu Batuak, baina, agian, han gertatzen

dena gure etorkizuna izan daiteke; zergatik? Alde batetik, gaur egun, inpunitatea daukatelako; eta, beste aldetik, bere garaian herritarrek ez zutelako kritikatu edota poliziaren basakeria onartu egin zutelako. Gogoratu egin behar al dut hemen Euskadin erailak egon direla eta poliziei ez zaiela ezer gertatu? AEBetan gertatzen dena eduki nahi dugu gure gizartean?

Hala, ez nau harritu GOIENA astekarian irakurri dudanak: kazetariak Arrasaten maiatzaren 23an gertatu zenari buruz galdetzen dio *politikari* bati, eta erantzunak 12 hitz eduki zituen: "Ez daukat ezer esatekorik. Guk babestu egin nahi dugu udaltzainek egindako lana". Eta ez zuen ezer esan nolakoa izan zen ertzainaren atxiloteta. Oso ondo! Hurrengorako, poliziak *baimena* dauka nahi duena egiteko. Gero, batzuk haserretzen dira Ertzaintza EAJren polizia" dela entzuten dutenean.

Martin Luther Kingek esan zuen: "Iluntasuna argiarekin bakarrik desagerrarazi dezakegu. Gorrotoak ezin du gorrotoa desagerrarazi, bakarrik amodioak egin dezake".

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Boente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Arexabaleta / Irabalbarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoizuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskorialza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.



21 zinegotzietatik hamalau, ikusleentzako eserlekuetan jazarrita; musukoekin eta distantziak mantenduz. X.G.

Udal aurrekontuan 4.711.125 euroko jaitsiera, doituta

Gobernuaren doikuntza proposamenek aurrera egin zuten EAJren eta PSE-EEren botoekin; oposizioak aurka botatu zuen. Jaitsiera estaltzeko hiru bide erabiliko dituzte: 2019ko soberakina, egin gabeko gastuak eta atzeratutako inbertsioak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Apirilean osoko bilkura telematikoa egin ostean, bilkura presentziala egin zuten martitzenean udalbatza aretoan. Zinegotzi guztiek hartu zuten parte eta elkarren artean segurtasun tartek mantendu zituzten. Aurpegi berriak ere izan ziren: EH Bilduko Gaizka Erañarentzat lehen bilkura izan zen eta PSE-EEko Victoriano Fuentesek zinegotzi kargua hartu zuen ostera, Oscar Garcia hutsik utzi eta gero.

4,7 milioi gutxiago

Aurreko astean aurkeztu zuen Gobernuak aurrekontuari doikuntzak egiteko proposamena, eta euren aldeko 12 botoak nahi-koak izan ziren gaia bilkuran onartzeko. EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek aurka botatu

zuten. Arrasateko Udalaren diru-sarrerak 4.711.125 euro gutxituko dira 2020an zehar. Jaitsiera alor hauetan desglosatzen da: Gipuzkoako Aldundiko Foru Funtsetik 3.200.000 euro, jarduera ekonomikoen zergatik 100.000 euro, eraikuntzako zergatik 300.000 euro, karga urbanistikoetan 200.000 euro, bestelako jardueretan 53.125 euro eta udal tasen bidez 858.000 euro. Azken horien barruan sartzen dira kiroldegiko abonamendu eta ikastaroak ez kobratzea –itxita egongo den

SAN JUAN JAIK EZ EGITEAGATIK 93.000 EURO AURREZTUKO DITUZTE, ETA ERABAKI DUTE NORA BIDERATU

denbora tartean– eta komertzio eta ostalariei sei hilabetez barakatutako tasak –lurzoru publikoa erabiltzeagatik eta zaborragatik kobratzen zaiena–.

Doikuntzak, atalez atal

2020ko aurrekontuan sortutako hutsune hori estaltzeko, hiru bide nagusi erabiliko ditu Gobernuak. Zehazki, kopuru hauek bideratzea onartu zuten osoko bilkuran: 1.986.572 euro, iazko aurrekontuko soberakinetik; 1.212.000 euro, egin gabeko gastuetatik; eta 1.512.552 euro, atzeratutako inbertsioetatik.

Hauek dira diren egin gabe geratu diren 1.212.000 euroko gastuak: inbertsioak, 474.000 euro; aurrekontu parte hartzaileak, 250.000 euro; ondasunak erostea eta zerbitzu arruntak, 350.000

euro; pertsonal gastuak, 7.500 euro; eta 2019 urtetik txertatutako kreditu-erabilgarriak, 130.000 euro. Atzeratutako bi inbertsioak hauek dira: Juan Arzamendi Musika Etxea, 1.012.552 euro; eta Kulturola, 500.000 euro. Kreditu txertatuen formula erabili dute horiek eteteko. Horrek ez du esan nahi bi proiektu horietako lanak gelditu egongo direnik 2020an, lanek euren bidea jarraituko baitute. Horri buruz galdetuta, Gobernuak azaldu zuen 2020an zehar bi obra horietan egingo diren lanak ez direla 2020ko aurrekontuan ezarritako partidekin ordainduko, aurreko ekitaldietan obra horiek ordaintzeko ezarritako poltsa metatuetatik baizik.

2019ko soberakina

Iazko gerakin erabilgarria 2.908.142 eurokoa da. Apiril hasieran, hori nola banatuko zuen iragarri zuen Gobernuak, baina, azkenean, era honetara banatuko dute: 1.986.572 euro, doikuntzetara; eta 921.570 euro, kreditu gehigarrietara. Azken zifra hori apirileko osoko bilkurako kreditu aldaketa espedientearen onartu zen, eta hiru bloketan banatzen da: 2020an txertatu ezin izan diren dotazioak, 129.200 euro –TAO sistemaren parte hartze prozesua edo Makatzenako igogailua konpontzea, adibidez–; 2020. urte hasieran hartutako erabakiak, 392.370 euro –danborradarako jantziak, ekipamendu informatikoa edo Mankomunitatera ekarpena, besteak beste–; eta COVID-19arekin lotutako laguntzak, 529.000 euro –erosketa bonuak, pobrezia kontrako kontusaila handitzea eta komertzioa sustatzeko ekintzak–.

Jaien partidatik, 93.000 euro

San Juan jaiak "bere horretan" ez egiteagatik, urte osoan jaiak egiteko dagoen partida 93.000 euro gutxituko dute. Honela banatuko dituzte 93.000 euro horiek: 50.000 euro tokiko merkataritzan, ostalari zein elkarteek pandemiari loturiko osasun neurri eta protokoloak betetzeko egindako gastuak laguntzeko –xaboiak, ozono makinak...–; 25.000 euro COVID-19aren eraginez zerbitzu publikoak zabaltzeko egin beharreko prebentzio erosketak egiteko –norbera babesteko ekipamenduak, esaterako–; 10.000 euro baserri bideetan inbertsioak egiteko; eta 8.000 euro udal aseturien zabalkunderako.

Doikuntzen eztabaida

EAJko bozeramaile Anuska Ezkurak azaldu zuen COVID-19a osasun krisia sortzeaz gain krisi soziala eta ekonomikoa sortzen ari dela. Alor ekonomikoan Udalaren aurrekontuan izango duen eragina baretzeko "baliabide propioak" erabiliko dituztela azaldu zuen, eta adierazi Gobernuak ez duela "inor atzean utziko". "Gastu soziala mantendu edo handitu egingo dugu, tokiko merkataritza laguntzeko bideak jarri ditugu eta enplegua sortzea izango da beste lehentasun bat, Arrasateko langabezia-tasa %2 hazi baita".

EH Bilduko Maider Morrasede zera adierazi zuen: "Gobernuak ez da kontziente aurrean dugun krisiaren tamainaz. Jendeak ez du aukeratu beharko sukualdea berri edo ez; jendeak ez du edukiko hozkailua zerekin bete. Zuhurtzia eskatu dizuegu Ekobulebarra bezalako inbertsioekin. Hala egin dute udal teknikari eta kontu-hartzaileak ere, baina zuek, hala ere, 2,5 milioi konprometitu dituzue proiektu hori egiteko. Gure ustez, zuhurtzia da hilabete batzuetan inbertsio-

Diru sarrerren jaitsiera eta doikuntzak

Hauek dira zifrak.

Jaitsierak

- **3.200.000 euro** Gipuzkoako Aldundiko Foru Funtsa.
- **858.000 euro** Udal tasak.
- **300.000 euro** Eraikuntzen zerga.
- **200.000 euro** Karga urbanistikoak.
- **100.000 euro** Jarduera ekonomikoen zerga.
- **53.125 euro** Bestelako jarduerak.

Doikuntzak

- **1.986.572 euro** 2019ko soberakina.
- **1.212.000 euro** Kreditu ez erabilgarriak.
- **1.512.552 euro** 2021era atzeratutako kredituak.

rik ez konprometitzea krisiari benetako neurria hartu arte".

Elkarrekin Arrasateko Igor Urizarrek antzeko kritikak egin zituen: "Idazkariaren eta kontu hartzailearen iritzia egin duzue, eta 2,5 milioi erabiliko dituzue Ekobulebarrean, zuen postal elektoral prest edukitzeko". Besteak beste, adierazi zuen Udal Aseguruen zabal-kundera Gobernuak bideratuko dituen 8.000 euroak Juan Arzamendi Musika Etxearen "kudeaketa txarraren ondorio" direla.

Pintaketak gaitzesteko mozioa

EAJk eta PSE-EEK mozio bateratu aurkeztu zuten, maiatzaren 22an batzokian *Patxi Ruiz SOS* idatziz agertutako pintaketekin lotuta, non, nagusiki, gertatutakoa gaitzesteko eskatzen zieten gainontzeko alderdiei, eta Gobernuak "bizikidetzaren alde" egiten duen apustua berresten zuten. Gobernuko alderdien aldeko botoekin onartu zuten mozioa; EH Bilduk aurka botatu zuen, mozioak "EH Bildu publikoki konprometitzea" helburu zuela iritzita, eta Elkarrekin Arrasate abstenitu egin zen.



Irudian, borobilduta, aprobetxamendu pribatiboko eremua. ARRASATEKO UDALA

San Balerioko lurren afera

Lehen eztabaida puntua San Balerioko lur bati erabilera publikoa ematearekin lotuta egon zen. Udalak negoziazio prozesua hasi zuen aurreko agintaldian San Balerio auzoko Meatzerreka 7 eta 8. zenbakidun lurzoruen jabeekin, euren etxearen aurrealdea bidez-zor publiko izateko. Zera lortu nahi zuen Udalak: paso publikoak zabalera nahikoa edukitzea, iturrira sarbidea edukitzea, eta San Balerioko jaiak ospatzeko etxe pareko gunea erabiltzea. Akordioa ez da posible izan, eta epaile batek erabakiko du nork duen arrazoia. Esan behar da jabeek Arartekora eraman zutela gaia eta hark arrazoia eman ziela. EH Bilduk "kezka" adierazi zuen Udala akordiora iristeko gai ez izateagatik, Elkarrekin Arrasatek Hirigintza Sailaren kudeaketa gogor kritikatu zuen, eta Gobernutik adierazi zuten "interes publikoa defendatzeko" ahalegina egin dutela.



Morras eta Ezkurra. X.G.

Elkarlanik eza, agerian berriz ere

Hirigintza batzordean akordioak lortu berri dituzte Gobernuak eta oposizioak, baina aurrekontuen doikuntzan, beste behin, agerian geratu da euren arteko harremana ez dela ona eta gai garrantzitsuetan ez dela elkarlanik izaten ari. Interbentzio hasieran, EH Bilduk horri egin zion erreferentzia. "Etsita eta kezkatuta gaude Gobernuaren elkarlan faltarekin. Beste herri batzuetan harreman ona dago Gobernuaren eta oposizioaren artean; baina Arrasaten, ez. Doikuntza negoziatzeko bilera bat eskatu dizuegu, baina ez diguzue ezer erantzun". Ogasun batzordeburu Ander Garayk adierazi zuen batzordean Gobernuaren proposamena aurkeztu ostean astebeteko epea eman zitzaiola oposizioari ekarpenak egiteko, baina ez zutela "inongo proposamenik jaso" —abenduan, aurrekontuekin lotuta, antzekoa esan zuten—. Ogasun batzordean aritzen den EH Bilduko Joseba Ezpeletak zera adierazi zuen: "Ogasun batzordea ez da foru egokia, ez baitago gauzak negoziatzeko aukerarik. Guk mahai baten bueltan negoziatzen dugu, eta hala egitea tonto-lana da. Aspertuta gaude". Harreman txarrari buruz, EAJko Anuska Ezkurak adierazi zuen halako kasuetan bi aldeek dutela erru zati bat. "Akordioetara ez iristeko erru guztia guri botatzen diguzue, baina zuek ere baduzue erruaren zati bat. Guk gurea onartzen dugu, baina onartu zuek zuena ere".

10€ EMAN 30€ JASO





Txikiak
egiten gaitu
HAUNDI

ARRASATEKO
ENPRESA TXIKIAK
ETA KOMERTZIOA
SUSTATZEN

Familia guztientzako bermatuta

LORTU
ZURE BONUAK
BAZEN
EDO UDALETXEAN

Informazio gehiago | www.txikiakegitengaituhaundi.eus



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Udaltzainen jarduera kopurua, ia bikoiztuta

Martxoan, apirilean eta maiatzean, 959 kontrol dispositibo jarri dituzte, 2.217 pertsona identifikatu, hiru pertsona ikertu, 212 zigor proposamen gauzatu eta 5.254 ibilgailu geratu kontroletan; herritarren kontsulta informatiboak "boskoiztu" egin dira

T.M. / X.G. ARRASATE

Arrasateko Udaltzaingoak martxoan, apirilean eta maiatzean egindako lanaren berri emateko, Maria Ubarretxena alkateak eta Zigor Andino udaltzainburuak agerraldian egin dute. "781 jarduera egin ditugu azken hiru hilabeteetan. Baina horiei COVID-19arekin lotutakoak gehitzen badizkiegu, guztira 1.541 jarduera izan dira. Horrek esan nahi du jarduera bikoiztu egin dela, gutxi gorabehera", adierazi du Zigor Andino udaltzainburuak.

Normalean, hiru hilabeteko 811 eta 850 jarduera izaten dituztela azaldu zuen Andinok; beraz, kopurua bikoiztetik geratu geratu dira. Ubarretxena alkateak udaltzainek egindako "lan pedagogiko eta informatiboa" goraiatu zuen, eta euren "profesionaltasuna eta inplikazioa" eskertu. Esaterako, informazio eske herritarrengandik jasotako deiak "boskoiztu" egin direla azaldu zuten. Telefono deiez



Konfinamendu garaian Musakola auzoan egindako jarduera bat. GOIENA

gain, 211 aurrez aurreko artatze ere egin dituzte. Hiru hilabete hauetan, 959 kontrol dispositibo jarri dituzte Arrasateko udaltzainek, 2.217 pertsona identifikatu, hiru pertsona ikertu, 212 zigor proposamen gauzatu eta

5.254 ibilgailu geratu kontroletan. Trafikoaren lotutako jardunak eta lapurretek behera egin dute -hamar lapurreta izan dira, guztira-. Igo direnak berriz, elkarbizitza arazoekin zerikusia duten jarduerak izan dira.

Udaltzainburuaren interbentzioa osoko bilkuran

Galde eta eskeetan, Zigor Andino udaltzainburuak hitza hartu zuen, maiatzaren 23an bi labanarekin kalean zihoan gizonetakoaren atxiloketaren inguruan hitz egiteko. Bertan Udaltzaingoak eta Ertzaintzak egindako lana defendatu zuen, irmoki. "Bi labanarekin bere burua kaltetzen ari zen gizonetakoaren bizia salbatzea eta gainontzeko herritarren segurtasuna bermatzea izan genituen helburu".

Azaldu zuen euren kode deontologikoak argi diola indarra erabiltzea azken aukera dela, eta "ahalik eta kalte txikiena eraginez" helburu nagusia lortzen ahalegindu zirela azaldu zuen.



Zigor Andino, osoko bilkuran. X.G.

Aktuazio horrekin lotutako agertutako kritikei ere erreferentzia egin zien: "Lan ona egin duzula uste duzuenen, batzuek zure profesionaltasuna zalantzan jartzen dute, egindako

esfortzua eta izandako arazoak kontuan hartu gabe". Zera gehitu zuen: "Aurreiritziz beteta dauden horientzat erraza da kritikak egitea etxeko erosotasunetik". Andinok ez zuen EH Bildu aipatu bere agerraldian, baina gogoratu behar da atxiloketan Ertzaintzak izandako jokabideari buruzko argibideak eskatu zituela koalizio abertzaleak, ohar bidez, joan den astean.

EAJtik "babesa eta elkartasuna" adierazi zieten udaltzainei, eta "azken hilabeteetan egindako lanagatik" zoriondu zituzten. PSE-EEko Yoana Sanchezek "eskerrak eta animoak" eman zizkien udaltzainei.



Ikasle gazte bat apunteak hartzen. PEXELS

Apunteen bankua sortu du Zaintza Sareak ikasleekin batera

Ikas materiala kolektibizatzea "denontzako mesede" dela sinetsita jarri dute martxan ekimen berria

X.G. ARRASATE

Google Drive plataforma erabiliz, ikastetxeka, mailaka eta gaika sailkatuko dituzte apunteak, eta hauek partekatzea animatu nahi izan dituzte herriko ikasleak. Webgune bat sortu dute apunteak bilatzeko -Arrasatekoapuntebankua.blogspot.com-, eta horiek partekatu nahi dituztenek arrasatekoapuntebankua@gmail.com helbidea erabili dezakete. Hezkuntza sistemak ikasleen arteko lehia sustatzen duela uste dute ekimenaren bultzatzaileek, baina argi dute "jakintza denona eta denontzat"

izan behar dela. "Guk egindako lana gordetzera eta jakintza ez partekatzea bultzatzen gaitu sistema honek. Baina guk ez dugu horretan sinisten. Guk jakintza denona eta denontzat izan behar dela uste dugu. Horregatik, jakintza askatu behar dugun ustearekin sortu dugu apunteak elkarbanatzeko txoko hau". Diote koronabirusaren eraginez telematikoki ikasi beharrrak baldintzatu duela, hein handi batean, ekimen honen sorrera, baina uste dute apunteak partekatzeko beharra aspalditik zegoela.



NIRE USTEZ

IBON ARRUPE

Ez da kikiltzeko momentua

Ezta beldurtzekoa ere, Arrasateko Udala adoretu eta sendo baitago COVID-19ak ekarri duen osasun krisiari eta krisi ekonomiko latzari aurre egiteko.

Arrasatear guztion urteetako esfortzuari esker Udalak banketxeekin daukan zorra hutsa izanik, non edo han lortuko ditu herritargo zabal baten babesa daukaten proiektu estrategikoak aurrera ateratzeko beharrezko baliabideak; esan bezala, kikildu gabe.

Bai jadanik martxan daudenak bukatzeko -Kulturola, Musika Etxea, Erguingo igogailu sistema- eta baita aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan, auzo altuetarako irisgarritasunean eta mugikortasun jasangarriaren bultzadan iraultza bat ekarriko duten funtsezko bi proiektu komunitario nagusiak bukatzeko -Ekobulebarra eta Santa Teresako igogailu sistema-.

Arrasatearrok sarritan demostratu dugu garai zailei aurre egiteko daukagun gaitasuna, eta, zalantzarik ez, oraingoan ere egingo dugula. Aurrera, ba. Aurrera bolie!

Terraza kentzeko eskaintza egin du Udalak

Ekobulebarraren baitan, irudiko terraza eta arkupea kendu nahi dituzte, gune "irekiagoa eta seguruagoa" izateko. Terrazara sarbidea dutenei 1.500 euro eskaini dizkie Udalak; plazako bizilagunek diote eremuaren "jabetza komunitarioa" dela; Udalak, aldiz, publikoa

Xabi Gorostidi ARRASATE

San Andres eta Musakola auzoak bidegorriz lotzeaz gain, Grupo San Juan auzoa "eraldatuko" zuen proiektua zela azaldu zuten Gobernutik, 2017an. Bertako hainbat gune oinezkoentzat bihurtzeaz gain, Garibai kaletik Alfontso X Jakintsua plazara sartzeko terraza eta arkupe zatia kendu nahi dituzte, gune "seguruagoa eta irekiagoa" izan dadin. "Genero ikuspegia aintzat hartuz, herriko gune ilunetako bat da".

Jabetzaren inguruko zalantzak

Udaleko Hirigintza Sailak esku hartzea egiteko tramiteak hasi ditu. Hala, terrazara sarbidea duten bi lagunei –plazako 1. eta 8. atarteetako lehen solairuko bizilagunei– hitzarmen zirriborroa helarazi diete. Besteak beste, bakoitzari 1.500 euro eskaini dizkiote terrazarekin lotuta izan ditzaketan eskubideen truke. Terraza kenduz gero, 1. zenbakidun atartekoek jarri nahi du-

ten igogailua eremu horretan kokatu ahaliko zela ere jasotzen du dokumentuak.

Auzoko bizilagun batzuk GOIENArekin harremanetan jarri dira. Eurek diote terraza eta arkupe horren jabetza ez dela bi lagunena, "komunitarioa" baizik. "Terrazara sarbidea bi lagun horien etxetik egin behar da, baina jabetza komunitarioa da". Froga gisa, jakinarazi dute duela lau urte arkupean konponketa lan batzuk egin zirela, "50.000 eurotik gorakoak", eta plazako atarte guztien artean ordaindu zituztela, "Udaletik jabetza komunitarioa" zuela esan ostean.

Udalak dio katastroaren arabera jabetza publikoa duela kendu nahi den arkupe zatiaren zoruak. Azaldu du duela lau urteko konponketa horiek plaza osoko arkupeko hainbat gunetan egin zirela, eta, auzokideekin eskriturak irakurri eta gero, plazako atarte guztien artean ordaintzea adostu zutela.



Irudiko terraza eta arkupea kendu nahi dituzte Ekobulebar proiektua egiteko. X.G.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Zebra-bidea, konponduta



Nafarroa etorbideko zebra-bide altxatu hori konpondu egin dute. Orain dela aste batzuk atal honetara txistua bidali zuen herritarra pozik agertu da: "Ordua zen. Eskerrik asko Udalarari".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Conekta

2020ko ekainaren 4tik 8ra

BEZa
oparitan*



ordenagailuetan

aukeratutako 4k
SAMSUNG
telebistetan

Bazkideentzat soilik

*Kutxatik pasatzean, Eroski Club txartelearen sartuko dizugu, berehala, erositako produktuen BEZaren zenbateko baliokidea. Zenbateko hori zure hurrengo erosketetan trukatutako ahal izango duzu. Kontsultatu itzazu gainerako baldintzak eta eskuragarritasuna zure hipermerkatuan.



EROSKI

ARRASATE



Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30

"Azken hiru hilabeteotan genituen final guztiak"

EDURNE ELKORO ARRASATE DRAGOI GIMNASIA TALDEKO ENTRENATZAILEA Martxoan, apirila eta maiatza oso okupatuak izan ohi dira Arrasate Dragoi Gimnasia Taldearentzat. Aurten, ordea, erabat desberdinak izan dira hilabeteok gimnastentzat

Eneko Azurmendi ARRASATE

Gimnasta arrasatearrek irailean hasi zuten denboraldia, ohi moduan, eta urtarrilera bitartean prestaketa fisikoa landu zuten. Gero, arlo "teknikoagoarekin" hasi ziren, taldekako eta bakar-kako dantzeekin, aerobikoan zein erritmikoan. Denboraldia hasi eta gutxira, ordea, koronabirusak mundua gelditu zuen.

Ze momentutan zeundeten orduan?

Denboraldiko zatirik politenean harrapatu gintuen. Otsail hasieran denboraldia hasita geunden, eta martxoan bigarren fase guztiak eta finalak genituen, bai aerobikoan eta baita erritmikoan ere. Denboraldi bukaera planifikatuta geneukan, entrenamendu "gogorragoekin", eta prestaketa lan horietan geundela etorri zen koronabirusa. Aerobikoaren kasuan, Frantziar harrapatu gintuen, Aix Les Bains hiriko Aquae Open Cup nazioarteko txapelketan, martxoaren 13ko asteburu hartan bertan.

Eta egin zuten txapelketa hori?

Gu aste horretako eguenean irten ginen harantz, eta orduan esan zuten eskolak itxi behar zituztela. Hala ere, Frantziar oraindik ez zen ezer entzuten, eta antolakuntzakoek esan ziguten guztia aurrera zihoala. Beraz, ni ez, baina talde osoa hara joan zen, eta, behin han zeudela, zapatuan, bertan behera utzi zuten txapelketa.

Asteburu aldrebesa, beraz.

Bai; nazioarteko txapelketa zenez, eguenean hasi zituzten entrenamendu ofizialak, materiala probatzeko. Aste berean, mundu osotik zetozen talde batzuek esan zuten ez zirela joango, eta geroz eta talde gutxiago geratzen ziren parte hartzeko. Hala ere, guri baietz esan zigutenez, aurrera egin genuen, baina, azkenean, bertan behera geratu zen.

Pena handia hartuko zenuten, ezta?

Bai. Oso gogor entrenatzen ari ginen txapelketa horretara



Edurne Elkoro. GOIENA

"MARTXOAREN 13KO ASTEBURUAN TALDEA FRANTZIAN ZEGOEN, NAZIOARTEKO TXAPELKETA BATEAN"

begira. Izan ere, gimnastentzat oso aukera polita zen nazioartean eta nazioarteko gimnastekin lehiatzeko. Haien artean ere kolpe gogorra izan zen. Horren ostean, gainera, Euskadiko Txapelketa, Espainiako Txapelketa eta beste hainbat genituen.

Izan ere, martxoan, apirila eta maiatza beteta eduki ohi dituzue.

Hala da. Hiru hilabete horietan genituen final guztiak, baina denbora gutxian bertan behera geratu ziren, bai entrenamenduak, eta baita txapelketak ere.

Txapelketaren bat egiteko aukerarik badaukazue oraindik?

Eskolartekoetan, guztia bertan behera geratu da. Espainiako Aerobikoko Txapelketa maiatzean egitekoak ziren, eta Espainia Federazioa aztertzen ari da urrian edo azaroan egitea posible izango litzatekeen. Baina oraindik ezin gara entrenatu,

eta ez dakigu irailetik aurrera nola egongo diren gauzak. Inork ez digu ezer ziurtatzen; beraz, ez dakigu zer egingo dugun.

Arrasaten ere egiten duzue erakustaldi pare bat garai hauetan...

Horiek ere bertan behera utzi behar izan ditugu, datorren urtera arte, gutxienez. Gure kirolean kontaktu asko dago, bai gimnasten artean, eta baita materialarekiko ere, elkarbanatu egiten dutelako; beraz, ezin izan digu ezer egin. Pena ematen digu, San Isidro jaietan txiki-ekin erakustaldi bat egin ohi dugulako, eta ekaineko kurtso bukaerako erakustaldia ere asko gustatzen zaie gurasoei. Baina aurten ez da posible izango, eta datorren urtean ere, auskalo!

Gimnastek nola eraman dute konfinamendua? Hainbat talde online entrenatu dira hilabete hauetan.

Hasiera batean, pentsatu genuen ez zela oso luze joango, eta bideo batzuk bidaltzen genizkien gimnastei, etxean edozein momentutan egin ahal izateko. Batez ere, malgutasuna lantzeko ariketak izan dira, oso garrantzitsua delako gure kirolean. Materialekin lan egitea zailagoa da etxean; beraz, mantentze-lan

batzuk egin zitzaten gura genuen. Bideo desberdinak bidaltzen joan gara, apurka-apurka.

Bideo horiek berritzen joan zarete?

Hori da. Konturatu gara hau luzerako doala eta datorren ikasturtera arte ezingo dutela gonorazko ezer egin. Beraz, noizean behin ariketak egiten badituzte, ondo, baina presio barik, ez dagoelako txapelketarik. Hasieran, oso gogotsu zeuden, data hauean lehiatzeko aukera egongo zela pentsatuz, baina dagoeneko ekainean gaude, eta, txapelketarik egon ezean, motibazioa galdu egin dute, normala den moduan. Noizean behin, argazkiak edo bideoak bidaltzen dizkigute bueltan. Helburua da orain arte landutakoa ez galtzea.

Denboraldia bukatutzat eman duzue?

Bai. Datorren denboraldira begira jarrita gaude, ahal dugun heinean, prestatzen eta alternatiba ezberdinak pentsatzen, entrenatzeko orduan talde murriztuagoak, eta abar. Baina oraindik ezer ez dakigunez, ezin dugu erabaki zehatzik hartu.

Gimnasta batzuentzat azken denboraldia izango zen hau. Pena da.

Pena handia. Gazte mailako hiru bat talderentzat azken denboraldia zen hau, 15 gimnasta ingururentzat. Adin horretara iristen direnean, normalean, utzi egiten dute, ikasketak dirrela eta. Batzuek dagoeneko uztea erabaki dute, pena handiz, eta beste batzuek zalantzak dituzte oraindik. Agian, irailean sorpresaren bat edukiko dugu.

Datorren denboraldia irailean hasiko duzue?

Hasiera batean, bai, baina ez dakigu. Entrenatzaileok bideo-deiak egiten ari gara antolatzeke eta taldeak osatzen joateko. Baina, finean, 150 gimnasta ditugu, hiru talde desberdinetan banatuta, eta, kopuru handiak direnez, ez dakigu utziko diguten elkarrekin entrenatzen.

Zuek, bost entrenatzaileok, jarraitzeko asmoa duzue?

Beharko. Taldean sartzeko itxarrote-zerrendak ditugu, eta, gazte mailako batzuek utzi arren, gimnasta berriak sartuko zaizkigu taldean. Beraz, jarraitu egin beharko dugu, oraingoz.

Txapelketak noiz itzuliko dira?

Oso urrutiti ikusten dut hori. Azken txapelketan, esaterako, 200 gimnasta inguru elkartuko ginen, gurasoak kontatu barik. Jende asko da. Pazientziar hartu beharko dugu, luzerako doa.



Arrasaten jarri duten erakusleihoa. A.E.

Herritarrak eskubaloira gerturatzeko, lau drone

Arrasate Eskubaloia kalera atera da, kirola gehiago ezagutarazteko eta jendea batzeko helburuarekin

E.A. ARRASATE

Eman pasea eskubaloari lelopean, kalera irtetea erabaki du Arrasate Eskubaloik, herritarrek kirol hori gehiago ezagutu dezaten. "Urterto, irailean larri ibiltzen gara taldeak osatzeko. Iaz, adibidez, Musakolako lau txapelketa oso baliagarria izan zitzaigun jendea erakartzeko, neska askok eman zuten izena. Aurten, ezin izan dugu txapelketa antolatu, eta beste zerbait egin beharra geneukan", azaldu du Ines Azpiazu presidentea.

Hori dela eta, ekainean zehar, astero eskubaloia inguruko galdera bat egingo diete herritarrei, sare sozialen bitartez, eta domeketan drone bat zozketatuko dute -16 urtetik beherakoei zuzenduta egongo da-.

Azpiazuk nabarmendu duenez, futbolaz eta saskibaloiaz harago aukera asko daude Arrasaten, eta hori jarri gura izan du indarrean. "Pertsona bakoitzak bere gaitasunak ditu, eta probatu arte inoiz ez da jakiten. Pena da gazte guztiak futbolera joatea, beste kirolak probatu barik, eta gero erdibidean gertatzea", gaineratu du.

Gainera, erakusleio bat jarri dute kalean, informazioa banatzeko; irailera arte edukiko dute. "Ea helburua lortzen dugun".



Piano ikasle bat eta irakasle bat, musukoa jarrita, Arrasate Musikalen. ARRASATE MUSIKAL

Kurtso bukaeran, klase presentzialak aukeran

Hiru asterako bada ere, klase presentzialak berreskuratu dituzte Arrasate Musikalen —ekainaren 19an bukatuko dute—. "Pena da azken txanpan gaudela, baina ikasle zein irakasle gogotsu zeuden itzultzeko", adierazi du Edorta Aiastui ekintza arduradunak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hasiera batean, klase indibidualak izaten ari dira. "Nahiko talde handiak ditugu, eta nahia go izan dugu zuhur jokatu, pilaketak ekiditeko. Gero, irailan, ikasle guztiak hastea da asmoa, eta gure gelak horretarako egokitzen ari gara. Esango nuke badaukagula lekua bi metroko distantzia hori gordetzeko ikasleen artean", azaldu du Aiastui.

Online jarraitu edo presentzialera bueltatzeko aukera izan dute ikasleek. "Nik, adibidez, 30 ikasle ditut eta erdiek online jarraitzea erabaki dute. Orain arte, etxean eroso sentitu izan dira, eta, konexio telematikoa oso ona izan denez, etxetik jarraitzearen aldeko apustua egin dute", dio Aiastui.

Haren esanetan, ordea, klase presentzialetan beti da errazagoa irakastea. "Telematikoki aritzean, aspektu batzuk ezin dira ondo landu: soinua, afinazioa, artikulazioa, eta abar". Hala ere, esperientzia positiboa izaten ari

dela onartu du. "Ikasleek kontzentrazioa asko mantendu dute etxean, eta, batzuen kasuan, ilusioa berpiztu die bizilagunentzat jotzeko aukera izateak ere. Nik ikasle guztiak zoriondu ditut, etxetik lan eginda oso jarrera ona erakutsi dutelako. Esperientzia guztietatik ikasten da, eta ikusi dugu modu horretan ere egin daitezkeela gauzak".

Balizko kontzertua, uztailean

Uztailean Arrasate Musikal Big Banden kontzertua egiteko aukera aztertzen ari dira, Monterron parkean. "Berez, uztailean 2an egitekoak gara, baina, agian, oso goiz da; gure kontzertua Blues Jaialdian txertatzeko aukera ere aztertzen ari gara, eta herrira gerturatu. Ikusiko dugu, oraindik ez dugu ezer erabaki".

Trikitixa Eskolan izena emateko aukera, ekainaren 12ra arte

Arrasateko Trikitixa Eskolak bi bide jarri ditu 2020-2021 ikasturtean matrikulatzeko: korreoa eta telefonoa

E.A. ARRASATE

Normalean, eskoletan-eta ematen dute aukera matrikulatzeko, baina, egoerak baldintzatuta, korreoz eta telefonoz bakarrik eman ahalko da izena aurten, arrasatetrikitixaeskola@gmail.com helbidera idatzita edo 686 99 05 80 zenbakira deituta. "Nahikoa da izen-abizenak, adina eta ikasi gura duena jartzea. Izan ere, panderoa, esaterako, taldean erakusten dugu eta taldeak egiteko beharrezkoa zaigu adinak jakitea. Trikitiaren kasuan, ez da beharrezkoa", azaldu du Maixa Lizarribar irakaslea.

Gainera, aste honetan klase presentzialak berreskuratu dituzte, 12 urtetik gorako ikasleekin. Halere, online jarraitu gura duenak badu horretarako aukera ere, orain arte moduan. "Itxialdia hasi zenean, zerbait pentsatu beharra geneukan, eta tele-

matikoki ikasleekin kontaktua mantendu dugu. Guk ere moldatau egin behar izan dugu, egoera berezia izan delako. Batzuek ez dute jotzeko gogo handirik eduki, eta haien erritimoa ere egokitu egin behar izan dugu. Bestalde, beste ikasle batzuek inoiz baino lan gehiago egin dute etxetik. Inprobisazio bat izan da aste batetik bestera, gauzak probatzen joan gara".

Ikasturte amaierarako zer?

Ekainaren 19an emango diote bukaera kurtsoari. "Jaialdia ekainaren 18rako aurreikusita geneukan, Amaia antzokian, baina ezingo dugu egin. Beraz, hilaren 19ra arte klaseak mantenduko ditugu, eta, orain arte inprobisatzen joan garen moduan, egun horretan ere zerbait inprobisatuko dugu, ziur asko, baina egoerak baldintzatuko du hori".

Udal Biblioteka zabalik dago astelehenaz geroztik

Arrasateko Udal Biblioteka maileruak eta itzulketak egiteko bakarrik ireki dute. Goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara. Horri lotuta, 10:00etatik 11:00etara, lehenasuna izango dute 70 urtetik gorako herritarrek. Seguratasun neurriak errespetatzeko

eskatzeaz gain, banaka joateko dei ere egin du Udalak, mendeotasuna dutenen edo 14 urtetik behera daukatenen kasuan izan ezik.

Maileguak alde aurretik eskatu beharko dira etxetik, online katalogoaren bitartez, kulture@arrasate.eus helbidera idatzita edo 688 68 91 13 zenbakira *whatsapp* bat idatzita edo 943 25 20 25 zenbakira deituta.

Santa Marinako auzo biblioteka irailera arte itxita mantenduko dute.

ion ELEKTRIZITATEA

Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak
24 orduko zerbitzua

658 99 59 12

Deitu!!!

bertako
Iragotzaileak | ascensoristas

Liderrak zuri esker

24/7 24 orduko zerbitzua

Pieza guztiak barne

Euskarazko zerbitzu profesionala

ORDUTARIKO ZERBITZUA **100€** /hileko

+1.200
bezera baino gehiago

ARRASATE Garala Berrikuntza Gunea 943 903 450 www.bertako.eus



Udaletxeko harreran, herritarra artatzen. ARAMAIOKO UDALA

Udaletxea eta liburutegia, jendearekin berriro

Aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen ari dira asteleheneetik, beharrezko neurri guztiak hartuta –Udalak bere webgunean sortu duen atalean kontsultatu daitezke horiek eta COVID-19arekin lotutako beste batzuk–; jendea badabil, baina ez kopuru handietan

Julen Iriondo ARAMAIO

Udaletxeko bulego nagusira igotzeko, gizarte zerbitzuetara igotzeko edota Aramaioko Argindar Banatzailearen bulegora joateko, neurri hauek izan behar dira kontuan: sartzeko, tinbrea jo eta igogailutik edo eskaileretatik igo –igogailua erabiltzekotan, maskara jarri eta banan-banan igo–; aldiko pertsona bakarra egon ahal izango da bulegoan; segurtasun distantzia mantendu; norbaitekin elkartzuz gero, bi metroko distantzia mantendu, eta, ezin bada, maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da; bulegora sartu aurretik, eskuak desinfektatu beharko dira.

Ordutegiak ondorengoak dira: Udalarena, 09:00etatik 14:30era; Aramaioko Argindar Banatzailearen bulegoarena, 12:00etatik 14:00etara; eta gizarte zerbitzuetarako aurrez hartu behar da txanda, 945-43 04 60 zenbakian eguazten eta barikuetan eta 945-45 50 11 zenbakian astelehen eta eguazten.

Liburutegiak ere astelehenean ireki zituen ateak. Maskara jartzaren eta bakarrik joatearen eskakizuna errepikatzen da hemen ere, eta igogailua beharrezkoa bada bakarrik erabiltzeko eskatu dute. Liburua aurretik aukeratu daiteke, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean kontsulta eginez, Internetez –postaz edo telefonoz ere egin daiteke erreserba: kulturetxea@aramaio.eus edo 945-44 53 74–. Behin liburutegian, liburuak utzi eta jaso baino ezingo da egin, ezingo da bertan egon; liburuak entregatu ondoren, hamalau egunez egon beharko dira geldirik, hurrengoak berriz maileguan jaso arte. Bestalde, kopia egiteko zerbitzua martxan

**POSTA ELEKTRONIKO
ETA TELEFONO
BIDEZKO KONTSULTAK
UGARITU EGIN DIRA
GIZARTE ZERBITZUETAN**

dago. Liburutegiko ordutegia da: astelehen, eguazten eta barikuetan, 17:00etatik 19:00etara; eta martitzen eta eguazten, 11:00-etatik 13:00etara.

Olga Jauregi arduradunak Goienari adierazi dio ibili dela jendea astean zehar liburutegian, behin ateak zabaldua; beste hainbeste, gizarte zerbitzuetako Leire Espinosak: aurrez aurreko kopuruetan aldaketa handirik ez dela izan zioen, baina telefono eta posta elektronikoko bidezko harremanak asko ugartu direla lehengoetik. Udalaren bulego orokorrean, azkenik, "oso jende gutxi" ibili da.

Gelak eta arkitektoa

Udalak jakinarazi du herriko taldeek aukera dutela kultura etxeko euren gelara igo eta materiala hartzeko –bilerak egiteko, arduradunari esan behar zaio–. Arkitektoarekin egoteko, berriz, telefonoz eskatu behar da hitzordua; hilaren 16an hasiko da aurrez aurrekoekin.



Iazko jaien hasiera. IMANOL SORIANO

Inkesta, jaiak egiteari buruzko herritarren iritzia jakiteko

Hainbat galdera dira, eta neurriak errespetatzearen gaineko prestutasunaz ere galdetzen zaie horietan

J.I. ARAMAIO

Udalaren webgunean dago inkestarako sarbidea –domekara arte bete daiteke–; galderok jasotzen ditu: "Zure ustez, momentuko egoera kontuan hartuta, jaiak antolatu behar dira? Zerbitzua antolatzen bada, prest egongo zinateke osasun zerbitzuak zehazten dituen neurriak mantentzeko –bi metroko distantzia pertsonen artean, ekintzetan jarritako egotea...–? Ulertuko zenuke, edukiera zaintzeko, ekintzaren batean kanpoan geratzea? Hau guztia kontutan hartuta, zer motatako ekintzak antolatuko

zenituzke? Beste zerbaitek burutzen zaizu Aramaioko jaiak bereziak izan daitezkeen?". Jaiak, izatekotan, egoera berrira egokituta izan beharko lukete.

Taldeekin eta auzoekin bilerak

Herritarren iritziaz gain, taldeen eta auzoetako ordezkarien iritzia –auzoetako jaiekin zer egin erabakitzeko– ere jakin nahi du Udalak, eta bilerak egingo ditu astelehenean, hilak 8, 17:00etan aurrenekoekin eta 18:30ean bigarrenekin, udaletxean –presentzialak izango dira, neurriak errespetatuta–.



Umeak eta begiraleak, iazko udalekuetan. GOIENA

Haurrentzat ekintzak, bai edo ez?

San Martin eskolaren bitartez inkesta helarazi zaie Aramaioko gurasoei ere. Helburua da udako ekintzak direla-eta haur eta nerabeentzat zerbaitek antolatu daitezkeen neurtzea eta ondoren erabakitzea. Domekara arte erantzun daiteke hau ere.

"Jazzaldian eta Aste Nagusian jotzeko ginen"

IDOIA ASURMENDI MUSIKARIA

'Ilun ta abar' proiektuarekin dihardu: hitzordu politak zituzten aurretik, baina bertan behera geratu zaizkie; sortzeko aprobeztatu du, eta diskoa grabatuko dute abuztuan

Julen Iriondo ARAMAIO

Musikeneko ikasketak, Euskal Herriko Gazte Abesbatza, Pargorri, Ertzak... eta orain, beste egitasmo ilusionagarri bat du esku artean hemeretzi urteko aramaioarrak.

Azaldu zer den *Ilun ta abar* proiektua, Idoia.

Orain, Donostian bizi naiz, eta azaroan aurkeztu nuen proiektu hau Kutxa Kultur-en bekarako. Euskal Herriko sei talderi ematen diete. Ni bakarlarri moduan aurkeztu nintzen; hori bai, Arrasateko Maria Oseseekin elkarlanean ari naiz kantu asko sortzen, bera idazlea da eta kantuak bion artean egiten ditugu. Beka eman zidaten, eta topera ari gara. Musika banda bat sortu dut beste hiru musikarirekin, Maria ari zait laguntzen letra batzuk sortzen, beste batzuk neuk egiten ditut... Kontzertuak bertan behera geratu zaizkigu, baina abuztuan disko bat grabatzeko asmoa dugu. Ezin dugu oraindik entseatu, baina telematikoki ari gara harremanetan bandarekin.

Bekarekin ze aukera duzue, zer dakar berarekin beka?

Urte honetarako da, 2020rako: Tabakalera lokal bat eman digute entseatzeko; kontzertuak lortzen dizkigute –Jazzaldian jo



Idoia Asurmendi. I.A.

"EZ ZAIT GUSTATZEN DEFINITZEA, POP ETA FOLK INGURUAN MUGITZEN GARELA ESANGO NUKE"

behar genuen uztailean, eta Aste Nagusian ere bai; dena bertan behera geratu da, baina espero dut itzuliko direla kontzertuak etorkizunean; eta dirulaguntza eman digute, gure kasuan, diskoa grabatzeko.

Ze pena Jazzaldiarena eta Aste Nagusiarena...

Bai, baina, behintzat, atera diogu beste alde hori, konposatzen ari naiz topera, eta kantuei forma ematen.

Eta nolako musika egiten duzue banda honekin?

Ez zait gustatzen estiloa definitzea eta esatea "bada, gara pop", adibidez; askotariko eraginak ditugu, eta topera dezakezu kantu bat poperoagoa, baina baita beste bat folk erakoa ere. Pop eta folk inguruan mugitzen garela esango nuke.

Aurrekontua estaltzea bermatu ezin, eta mendi duatloirik ez

Aramaioko mendi duatloia iaz egin zen lehenengo aldiz, Untzillan. Aurten berriz ere antolatzeke asmoa zuten, baina beharrezko dirurik lortu ezin, eta ez da posible izango. "Gure esku dagoen guztia egin dugun arren, zoritxarrez, ezin izan dugu behar genuen guztia lortu", adierazi dute antolatzaileek. "Laster" itzultzeko itxaropena agertu dute.



lazio edizioko argazkia. GOIENA

Gaur hasiko dira Kurtzetagain taldearen saioak

Kurtzetagain plater tiroketa taldeak gaur, barikua, berrabiaraziko ditu saioak. Eta aurreantzean, eguenetik domekara egingo dituzte saioak, 16:00etan hasita. Ohikoa den moduan, saioak hasi aurretik hori jakinarazten duen kartela jarri beharko dute, bertatik pasa daitezkeen oinezkoiei abisua emateko –bide zaharrea–.



Plater tiroketan. GOIENA

Alex Mendikuterren konfinamenduko argazkiak, ikusgai

COVID-19ak eragin duen konfinamenduak iraun duen bitartean, Alex Mendikutek hainbat argazki egin ditu, eta guztiak bildu ditu bideo muntaia batean. Argazki asko eta asko bere leihotik ateratakoak dira, eta beste batzuk kalera irten den egunetan atera ditu. Ia 24 minutuko bideoa osatzen dute argazkiek –Youtuben dago, Udalaren kanalean–.



Mugikorrari begira. ALEX MENDIKUTE

Julen Leturiondori laguntzen

Eibartarrak lehenengo abestia atera du aurreko astean –*Que me corten la cabeza*–, eta bertan aritu diren musikariren artean ere badago Idoia Asurmendi: "Konfinamenduan idatzi zidan pianoarekin parte hartu nahi nuen galdetuz. Baietz esan nion. Proiekzio handia duen mutila da, artista: gitarra eta pianoa kontrolatzen ditu, eta oso ondo abesten du".



Julen Leturiondo. J.L.

Aramaioko Gure Esku-ren mahaia, domekakora begira

Aramaioko taldeak bat egin du Gure Esku-k Hamaika Gara ekimenaren barruan domekarako deitu duen ekitaldiarekin. "Ekitaldiaren berri emateko eta kartoi batzuk banatzeko", gaur, barikua, eta bihar mahaia ipiniko dute herrian, 20:00 aldera. Egungo eta datorren krisiari Euskal Herriatik erantzutea aldarrikatzen du Gure Esku-k.

OHARRAK

Autobus zerbitzua

Autobus zerbitzuak ordutegi zabalagoa du astelehenetik aurrera, Gasteizerako eta Arrasaterako joan-etorrietan.

Puntu berdea

Puntu berde mugikorra Aramaion barrena ibiliko da ekain bukaeran. Ekainaren 19an Ibarren egongo da, 25ean Urribarrin, eta auzoz auzo ibiliko da tartean.

Diru-sarrerak 1,6 milioi euro murriztuko dituzte

Aretxabaleako Udal Gobernuak proposatzen duen 2020ko aurrekontu egokitzapenak udal zerbitzuak mantentzean jartzen du arreta, bereziki gizarte zerbitzuenean, eta 2019ko gerakinarekin estaliko du diru-sarreraren murrizketa

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaleako Udal Gobernuak 2020ko udal aurrekontuak berrikusi, eta egokitzapenaren proposamena aurkeztu zuen eguaztenean, osoko bilkuren aretoan. Udalaren diru-sarrerak 1,6 milioi euro murriztuko dituztela adierazi zuten, koronabirusaren krisiaren ondorioei aurre egiteko, eta Udal Gobernuak proposatzen duen aurrekontu egokitzapenak udal zerbitzuak mantentzean jartzen duela arreta azpimarratu zuten, besteak beste; bereziki, gizarte zerbitzuenean indarra jarriko dutela, eta 2019ko gerakinarekin estaliko dutela diru-sarreraren murrizketa gaineratuz.

Gainera, Unai Elkoro Aretxabaleako alkatearen aparteko bi ordainsariak kenduko dituztela gaineratu zuten, eta liberatutako bi zinegotzien soldata ere gutxituko da; horrek 60.000 euro inguru aurreztuko dituela urtean adierazi zuten. "Neurri horrek bere horretan jarraituko du Foru Funtzaren diru-sarrerak 2019ko mailara itzuli arte, orduan onartu baikenituen lanaldi osoko bi liberazioak", adierazi zuen Unai Elkoro alkateak.

1.653.000 euroko jaitsiera

Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik 1.264.000 euro gutxiago jasoko dute, eta, horrekin batera, udal tasen eta zergen bilketaren jaitsiera, guztira, 400.000 eurokoa izango da: 350.000 euro kiroldegiko abonamendu eta ikastaroen kuotei dagozkie irailera arte ez dira kobratuko; 30.000 eta 10.000 euro, hurrenez hurren, zaborraren eta uraren tasak murrizteari; eta 7.000 euro ez dira jasoko terrazen tasetatik.

Unai Elkoro alkateak azaldu duenez, Udalak "Foru Funtsetik %20-25 gutxiago jasoko du, baina aurrekontua %25ean oinarrituta doitu dugu, egoera okerragoan, aurreikuspenak ez



Karmele Uribarri eta Koldo Zubillaga zinegotziak, Unai Elkoro alkatearekin. UDALA

baitira onak". Horrela, udal aurrekontuak 8,4 milioi eurora murriztuko dira, iazko amaieran onartutako 10.093.700 euroen aldean.

Gizarte zerbitzuetan arreta

Udal Gobernuak proposatutako aurrekontu egokitzapenak gizarte zerbitzuetan jartzen duela arreta adierazi zuten. Alarma egoeran Gizarte Larrialdietarako Laguntzen partida ekonomikoa handitu egin dute -Eusko Jaurlaritzatik 26.000 euro iritsi zaizkie-, baita etxer etxeko laguntza zerbitzuarena ere. "Gizarte zerbitzuak gure lehentasunetako bat dira; diru-hornidura programa guztietan mantentzen da eta indartu ere egiten da", gaineratu du Elkoro.

Inbertsio batzuk, bertan behera

Horrekin batera, udal sailen gastua doitzera ere proposatu

ARETXABALETAKO UDAL AURREKONTUAK 8,4 MILIOI EURORA MURRIZTUKO DIRELA ADIERAZI DUTE

du Udal Gobernuak, baita elkarte eta talde ezberdinei zuzendutako dirulaguntzak ere. 2019ko aurrekontuko diruzaintzako gerakinari dagokionez, 2,6 milioi euro inguru, 2020ko kontuetako diru-sarreraren murrizketa neurri batean konpentsatzeko erabiliko da. "Baina aurreikusleak ere izango gara eta gerakin hori 2021erako gordeko dugu, gaur egungoaren antzeko egoera ekonomikoa aurreikusten dugulako", azpimarratu zuen Elkoro.

Proiektuen atalean, hiru egitasmoz estrategikoak izaten jarraituko dute, agintaldiaren ikuspegitik: zentro soziosanitarioa, komentuan egokituko den adinekoentzako gizarte zentroa eta Santakurtz kaleko Hornidura eta Saneamendurako Plan Berezia (PEAS) eta berrurbanizazioa. Hala ere, aurreikusita zeuden proiektu batzuek egoera ekonomikoa hobetu arte itxaron beharko dutela gaineratu zuen: Ibarako futbol zelaiko argiteria berritzea eta aldagela aurrefabrikatuak jartzea eta Arbizelaiko trialsina praktikatzeko espazioa egokitzea.



Ibarra kiroldegian egindako zumba saio bateko irudia. GOIENA

Astelehenean jarriko dituzte martxan kirol jarduerak

Ekainaren 15etik aurrera, berriz, igerilekua, fitness aretoa eta rokodromoa izango dira erabilgarri

I.B. ARETXABALETA

Segurtasuna bermatzeko, garbitasun eta desinfekzio protokoloak eta neurriak ezarrita, eta araudiak eskatutako baldintzak beteta, astelehenetik, ekainaren 8tik aurrera, kirol jarduerak eskaintzen hasiko dira Ibarra kiroldegian. Lehenengo astean, soilik, ikastaroak jarriko dituzte martxan, eta eskaintzak, ordutegiak eta espazioak birplanteatu dituzte horretarako. Ekainaren 15etik aurrera, berriz, igerilekuak, fitness aretoa eta rokodromoa irekiko dira zenbait baldintza ezarrita.

Hitzordurik hartzea ez da beharrezkoa izango, baina, aforo mugatuak izango da areto-espazio bakoitzean, eta horren ondorioz, denborak ere mugatuak izango dira.

Abonatuen prezioak

Jarduerak doan izango dira (Martxoan izena emanda zeuden abonatuentzat), eta zerbitzua erabiltzen duten abonatuak: 16,78 euro ordaindu beharko dute hilean; haurrek, berriz, 8,95 euro hilean.

Zerbitzurik erabiltzen ez duten abonatuak, ez dute inolako kargurik izango iraila bitartean.



MIRARI ALTUBE

Ekaineko bonuak, bide onetik

Ekainean, bost euroko 1.000 bonu atara ditu Udalak -maiatzean 650 izan ziren-, eta, eguaztenerako, erdia pasatxo zegoen salduta. Dena den, oraingoan, ez da egon halako ilararik eta herritarrak poliki-poliki gerturatu dira Arkupera erostera. 16 urtetik beherakoei bideratutako bonuak -50 zentimoko 300- mantsoago dabilzala saltzen adierazi dute.

Euskara etxe guztietara iristeko egitasmoa, abian

'Etxetik euskaraz berrikeran' izenarekin Loramendi elkarteko Barrikeran taldeak ume eta gazteekin hasi gura du lanean; jakinik konfinamendu sasoian askok ezin izan dutela euskaraz berbarik egin etxean, hori bideratzeko saioak antolatuko dituzte

Mirari Altube ARETXABAETA

Eskola da euskaraz jarduteko gune bakarrenetakoa hainbat umerendako, eta hori badakite Loramendi elkarteko kideek. "Udako oporraldian euskararen erabilera asko jaisten da etxe batzuetan, eta konfinamendu egoeran beste horrenbeste gertatu da", dio Paloma Martinezek, Barrikeran taldeko eragileak. Horri konponbidea topatu nahian, mintzapraktika saioak antolatu gura dituzte umeendako eta gaztetxoendako.

Berba egin zein entzun

Etxean euskaraz berba egiterik ez duten 6 eta 12 urte arteko neska-mutiko guztiei bideratu diete -Lehen Hezkuntzako 1. mailatik DBH-ko 2. mailara artekoak-. Ekimenak aurrera egin dezan, baina, ezinbestekoak dira euskaraz dakiten boluntarioak: "Euskara oparitzeko prest dagoen euskaldunik ez badago, taldeak ezingo dira osatu".

Hala, behin taldea osatuta, familiek elkarren artean adostuko dute saioak zelan eta noiz egin gura dituzten: etxean telematikoki edo kalean, derrigorezko segurtasun neurriak hartuta. "Euskaraz jardutea da kontua, berba egitea zein entzutea: ipuin bat irakurtzea bata

besteari, egunean egindako zer-bait kontatzea, errejeta bat azaltzea...", dio Palomak, eta gaineratu du: "Nik badut beste ideiatxo bat ere. *Fortnite* bideo-jokoa oso modan dago orain. Online jokatzeko da eta edozein herritako lagunekin jartzen dira kontaktuan jokalariek. Nik gurako nuke taldetxo bat sortzea euskaraz jardun dezaten jolasean dabilzan bitartean".

Mintzapraktika saioetarako astean birritan edo hirutan elkartzeko proposatu dute, saio bakoitza 30-40 minutukoa izanik.

Izen-ematea zabalik dago

Baterako zein besterako izena emateko epea zabalik dago. Horretarako, Loramendi elkarteko kideekin jarri behar da harremanetan: 685 75 67 29 eta euskara@loramendielkartea.eus.

Dagoeneko jaso dituzte lehenengo deiak, hartzaileenak zein emaitzenak, eta Loramendiko kideak ekimenarekin hasteko gogotsu daude. "Euskara bizirik dago, eta, gainera, gure eskuetan -mingainetan- dago bizirik mantentzea eta transmititzea", dio Martinezek, gonbidapen gisa.



Gaztetxo bat Herriko Plazan. GOIENA



MIRARI ALTUBE

Liburutegiak zabaldu ditu atekak

Eguaztenean zabaldu zuten Udal liburutegia eta herritarrek harrera beroa egin diote. Oraingoz, liburuak maileguan hartzeko bakarrik sar daiteke -itzulketak egiteko kaxa Arkupeko atarian dago- eta 14 urtetik beherakoek heldu batekin joan behar dute. Aste honetan goizeko ordutegia izan du (10:00-13:00) eta baloratzekotan geratu dira arratsalde zabaldu edo ez.

Batzar orokorra egingo du Loramendik ekainaren 18an

Bertaratzeko asmoa dutenek aurrez jakinarazi beharko dute, eta ekarpenak ere egin daitezke aurretik


M.A. ARETXABAETA

Loramendi elkarteak batzar orokorra egingo du ekainaren 18an, eguena; lehenengo deialdia 18:30ean izango da eta bigarrena 18:45ean. Udaletxe zaharreko lehenengo solairuko gelan elkartuko dira, eta bazkide guztiak gonbidatu dituzte. Segurtasun neurriak zaintze aldera, bertaratzeko asmoa izanez gero aurrez jakinarazteko eskatu dute.

2020ko plangintza

Iazko jardueren eta diru kontuen berri emango dute lehenengo,

eta 2020ko plangintza eta diru kontuak aurkeztuko dituzte gero. Galderak eta eskaerak egiteko aukera ere izango dela adierazi dute: "Dena den, aurrez edozein ekarpen egin nahi izanez gero edo zalantzarik balego, gogorazki gura dugu udaletxe zaharrean aurkituko gaituzuela, astelehenetik ostiralera, goizez". Bertaratzeko asmoaren berri emateko edo ekarpenak bideratzeko mezu bat ere bidal daiteke, edo telefonoz deitu: euskara@loramendielkartea.eus edo 943 77 09 70 eta 685 75 67 29.



Odontologia estetikoa
Endodontzia
Inplantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 09:00-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaeta • Tel.: 943 79 93 55

"Atzetik datozenak dira errefortzu inportanteena"

MIKEL LARBURU FUTBOL ENTRENATZAILEA

UDAko ohorezko erregionaleko taldearen gidaritza izan du Larburuk (Zumaia, 1985), eta gustura dago lortutakoarekin; hurrengo denboraldiari begira lanean hasita daude

Mirari Altube ARETXABALETA

Osasun larrialdiak futbol denboraldia gerarazi egin zuen martxoan. Hala, UDAko ohorezko erregionaleko seigarren postuan bukatu du, 38 punturekin. **Taldeak ez zuen ezer jokoa, baina denboraldia errematatu barik geratu den sentsaziorik baduzu?**

Bai, badut pena apur bat, gure momentu onenean moztu zelako. Hasiera pattala izan genuen, baina gero, bigarren bueltan, partidu bakarra galdu genuen, Hernaniren aurka. Oilar guztiak bata bestearen atzetik zetozen, baina gu ere ondo geunden, eta, behintzat, bosgarren postuan bukatzeko asmoa geneukan.

Lehen denboraldia egin duzu UDAn; laburtu zelakoa izan den.

Iritsi nintzenez, bi urte pattalak izanak zituen taldeak, eta hasiera harekin kostatu egin zitzaigun arrankatzea. Jendea baxu samar zegoen eta animoari dagokionez lan handia eduki genuen; gehienbat, sinetsarazteko hori baino askoz gehiago ginela. Partiduak irabazten hasi ginenean eta jendea animatzen hasi zenean, benetako potentziala erakutsi genuen; bigarren bueltan partidu bakarra galtzeak bederatzitik zerbait esan nahi du. Hurrengo urtera begira sinistu egin dugu eta pauso are eta handiagoa emateko gai gara esango nuke.

Hortaz, helburua bete da?

Bai, baina pena dut gorago bukatzeko aukera ikusten nuelako. Helburu nagusia aurreko bi urteak gaunditzea zen, eta hori lortu dugu, oinarri sendo bat eginda, gainera. Orain, jende gaztea dator azpitik, indar handiarekin, eta denboraldi berriari begira ilusioarekin nago.

Orduan, lanean hasita hurrengo denboraldiari begira?

Bi-hiru baja garrantzitsu izan ditugu, baina atzetik badatoz gazteak, taldea Euskal Ligara igotzea lortu duten jubenilak,



Mikel Larburu agindua ematen partidu egun batean. UDA

"SINISTU EGIN DUGU, ETA HURRENGO DENBORALDIAN PAUSO ARE ETA HANDIAGOA EMATEKO GAI GARA"

hain zuzen ere. Fitxaketa pare bat ere egin ditugu, eta taldea ia itxita dugula esango nuke. Konfinamenduan, gainerako taldeak aurreratu gura izan ditugu; jendea ukitu dugu.

Fitxaketen gainean ezer aurreraterik?

Gasteiztarrak dira; zeintzuk diren klubak esango du ofizial egindakoan. Ezer sinatu barik ez gara aurreratuko... Baina gogotsu datozela bai.

Zer indartu nahi izan duzu horiekin?

Gehienbat, atzealdea. Ander Maguk belauna apurtu du, ezkerreko alboko lokailu gurutzatua puskatu duela berretsi digute, eta horren postua indartu gura izan dugu. Horrez gain, zelai erdian jokatzeko duen Gillen Marrek utzi egin du, eta postu horretarako ere fitxatu dugu. Baina errefortzu garrantzitsuenaz azpitik datozenak dira, in-

dartsu datozen jubenilak; konpetentzia handia jarriko dute taldearen maila handitzeko.

Hortaz, jokalarik gazte horiek izango dute lekua...

Zalantzarik gabe; guztiak izango dute aukera bai denboraldi aurrean, bai urtean zehar. Guk haiekin kontaktatu dugu.

Denboraldi-aurrea aipatu duzu; uztailean lanean hasteko asmoa?

Iaz uztailean egin genituen entrenamendu batzuk, baina aurten ez dut uste. Denboraldi hasiera urri aldera atzeratuko ote den esaten dute. Asmoa da ahal den bizkorren hastea lanean, baina, jakin arte denboraldiaren data, ezin finkatu denboraldi-aurrea. **Lehen denboraldia honetan gusturara egon zara UDAn?**

UDAk, niretzat, dena dauka klub bezala: instalazio onak; zale beroak, asko laguntzen digutenak partiduetan; zuzendaritza inplikatuak; eta jokalariek ere elkarrekin oso inplikatuak. Hasiera pattala izan arren, zuzendaritzak ikusi zuen lan ona egiten genbiltzala, pazientzia izaten jakin zuen, eta gero ikusi dira emaitzak. Beste pauso bat ematea da asmoa, UDAk egon behar duen tokian egoteko.



Oihana Aldai, ospitalean erabiltzen diren eskularruak jantzita. OIHANA ALDAI

Oihana Aldaik ez du jarraituko Kordobako Pozoalbense taldean

Akordiorik ez du lortu elkartearekin, eta uztea erabaki du; zerbait lotu bitartean, erizain lanetan dihardu

M.A. ARETXABALETA

Iazko urtea bukatzearekin batera agur esan Eibar taldeari eta Kordobako Pozoblanco herrirako bidea hartu zuen Oihana Aldaik. Orduetik, Pozoalbenseko atezaina izan da aretxabaletarra, osasun larrialdiak bertan behera utzi zuen arte futbol denboraldia martxoan. Orain, talde andaluziarrean egindako ibilbidea bukatutzat eman du. "Denbora gura nuen beste zerbait begiratzeko eta lotzeko. Baina ez zidaten eman, eta, erabakirik ere ezin nuen hartu, egokiena bertan behera

uztea zela iritzi nion", adierazi du Aldaik.

Aurrera begira jarrita oraindik ez duela ezer lotuta onartu du, denboraldia bera ere ez dakitelako noiz hasiko den. Hori bai, futbola uzteko asmorik ez du, inondik inora: "Ez dut utzi gura, bereziki, urtea hain arraroa izan ostean. Negoziazio etapa bat zabalduko da orain, eta ikusiko dugu zer gertatzen den".

Martxoan etorri zen etxera Kordobatik erizain lanetan ekiteko, eta Zumarragako ospitalean dihardu lanean, "oso gustura", gainera.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Maskara erabiliak, edozein tokitan

Herritar bat kexu agertu da maskara "asko" ikusten dabilelako kale bazterretan zein bidegorrian: "Zikinkeria galanta da gero han eta hemen botatzea. Erantzukizunez joka dezagun".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Feriarik ez, baina egiten dena ahaztu barik

Zapatu honetan zen egitekoa 24. Eskoriatzako Ferixie, baina COVID-19aren ondorioz ezingo da egin. Hala ere, ikus-entzunezko umoretsua egin dute egun honetan egiten diren ekintza guztiak kontuan hartuta, parte hartzen duten guztiei eskerrak emateko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Arizmendi Ikastolako Jose Arana gunekoek antolatutako Eskoriatzako Ferixie herritarrek egutegian markatuta izaten duten eguna izaten da, eta zapatu honetan 24. edizioa zen egitekoa. Azokarik ez da gongo, baina antolakuntzako kideek ez dute eguna ahazterik nahi, eta, hori horrela, aurtengo ferriako kartela egin dute, eta baita azokak izaten dituen ekintzak modo umoretsuan ikus-entzunezko batean adierazi ere.

Feria ez egin arren, Youtube plataforman *FERIXIE 2020* idatzita zapatura begira eskoriatzarrei zuzendutako proposamenak ikusi ditzaketela adierazi dute Arizmendiko kideek: "Egoera zein den ikusita, Ferixie ezingo da egin urtero moduan, baina uste dugu ikastolarentzat eta eskoriatzarrentzat egun garrantzitsua dela, eta, hori horrela, bideo bat egitea aukera ona zela pentsatu genuen, zapatuan feria eguna izango dela adierazteko eta egiten den guztia gogorarazteko. Hala, ekintza batzuk ere proposatuko dizkiegu familiei etxean egin ditzaten", adierazi du Jon Kortazar Arizmendi Ikastolako irakasleak.

Ikus-entzunezko umoretsua

Ikus-entzunezkoan, ferian egin, ikusi eta erosi daitezkeen gauzen berri eman dute modu umoretsuan bertan parte hartu duten protagonista guztiek: aurpegiak margotzen eta maskarak egiten, urteroko txartel salmentaren parodia egiten, taloak nola egiten dituzten erakusten edota erraldioen kalejira egiten erakutsi gura izan dute haurrek, gurasoek eta irakasleek.

Horrekin batera, sagardoa edaten, gazta zozketan eta euskal dantzak egiten agertu dira bideoeko protagonistak. Urtero moduan, hutsik egin barik, ez

dira falta izan bertsoak; kasu honetan, Haizea eta Oihana Aranak egin dutena, eta ezta ere txapel jaurtiketa txapelketa. Horrez gainera, artisau, nekazari eta bestelako postuak ere izan dituzte gogoan, eta, eskerrak emanez, produktuak erosi nahi dituenarentzat harremanetarako kontaktuak ere ezarri dituzte ferriako bideoaren amaieran.

Antolakuntza, eskertuta

"Eskerrak eman nahi dizkiogu aurtengo ediziora begira hasieratik laguntzen eta antolatzen aritu den guraso talde guztiari. Eta Karmelo Oñate marrazkilariri ere eskerrak eman nahi dizkiogu, aurtengo ferriako kartel ederra egitearren eta zapatura begira haurrek marrazteko atera dituen eskuorriengatik. Aurten, hala izan beharko du, baina datorren urtekoa izugarria

YOUTUBEN, 'FERIXIE 2020' IDATZITA IKUS DAITEKE ARIZMENDIKOEK EGINDAKO BIDEOA



Karmelo Oñate marrazkilariak feriarako egindako kartela. KARMELO OÑATE

izango da...", adierazi du Esti Aguado Arizmendi Ikastolako Jose Arana guneko irakasleak.

Eskuorriak, komertzioetan

Karmelo Oñatek egindako feriarra begirako eskuorriak astean zehar banatu dituzte herriko zenbait komertzioetan: Coviranen, Dorleta liburu-dendan, Zarus goxoki dendan eta Eroskin, hain zuzen ere. Hala, koloreztatze eskuorriak gura dituenak hauek komertzioaren batean galdetu eta eskuratu ditzake —edo *Goiena.eus* webgunetik deskargatu—: "Asmoa da herritarrek eskuorri horiek marraztu eta zapatura begira leiho eta balkoiak apaintzea...", gaineratu du Agudok.

Marrazteko bi ereduak

Ferriako kartelean koronabirusari erreferentzia eginez, txorimaloa, astoa eta oilarra marraztu ditu Oñatek maskara jantzita daudela, eta bertako produktuen saskia aurrean dutela. Hori horrela, bi txantilo atera ditu: ,atetik, kartela bera, eta, bestetik, ferriako txorimalo lehiaketari erreferentzia eginez osatutako marrazkia.



IKER MOLINA

Kirol Elkartearen Eguna ospatuz

Iker Molina Maila Nazionalen ari den Eskoriatza areto futboleko entrenatzaileak Gasteiztik bidali zuen argazkia elkartearen egunarekin bat egiteko. Urteroko ohiko ekintzak ezin izan zituzten antolatu, baina *#EskoEguna2020* traolarekin kirol elkarte kamisetarekin argazkia atera eta zenbait herritarrek sare sozialetara bidali dute, eguna gogoratuz.

Inkernun musika emanaldiak 'streaming' bidez

Streaming bidezko kontzertuak eskainiko dituzte Inkernu tabernan, zapatu honetan hasita. Batetik, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan Arkada Social, Rotten XIII, Brigade Loco eta The Guilty Brigade taldeek kontzertua eskainiko dute zapatu honetan, 17:00etan hasita. Hala, Inkernu tabernan pantaila handian ikus-teko aukera emango dutela adie-

razi dute. Hala ere, baldintza batzuk bete beharko direla adierazi dute, eta horrela ez bada, emisioa geratuko dutela azpimarratu.

Bestetik, *Naiz*-eko kontzertuak ere eskainiko dituzte Inkernun: gaur, Gatibu izango da; ekainaren 12an, Nogen; ekainaren 19an, Zetak; ekainaren 28an, Huntza; eta uztailearen 3an, ETS taldea. Kontzertu guztiak 22:00etan hasiko direla adierazi dute, nahiz eta Huntza taldearen ordutegia zehazteko dagoen.

GORA ETA BEHERA



Garbiketa egin dute ur depositu zaharrean

Eskoriatzako Udalak depositu zaharrean zegoen zakarra garbitu zuen joan den astelehenean. Horrekin batera, konfinamendua utzi bezain pronto pertsona batzuen utzikeria salatu gura izan du Udalak; herriko zenbait gune suntsitzen eta zikintzen aritzen direla esan du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Atxorrotzeko eskalada-gunea arautu egin dute

Eskoriatzako Udalak eta Gipuzkoako Mendi Federazioak sinatutako hitzarmenaren bidez, araututa geratzen da Atxorrotzeko eskalada-eremua. Hala, egunotan zenbait lan egiten aritu diren arren, eskalatzeko moduan daude bertako paretak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Apirileko ezohiko osoko bilkuran, *Gipuzkoako eskalada-guneak -berrekipamendua eta mantentzena 2017-2020-* proiektuan parte hartzeko konpromisoa onartu zuten aho batez Eskoriatzako udalbatzako kideek. Hala, egunotan, Gipuzkoako Mendizale Federazioak Atxorrotzeko eskalada-gunea ikuskatzen eta berrekipatzen izan da. Eremua homologatuta geratu da.

Eskalada seguru egiteko, hondatutako materialak kendu eta beharrezkoak diren kalitate arauak betetzen dituzten anklaje herdoilgaitzak jarri dituzte bertan, eta, erabileraren gomendioak errespetatuz gero, eskalatu daiteke.

Gune homologatua

"Agintaldi aurretik datorren gaia da Atxorrotzeko eskalada-gunearena, baina zenbait kontu zintzilik geratu ziren, eta lotzen joan gara. Bi arazo nagusi zeuden bertan: gune historiko, ondare... deklaraturata dago Atxorrotzeko eremua bertan egondako gazteluagatik, eta hori zaindu beharra dago. Beste aldetik, bide batzuk eremu pribatu batean zeuden jarrita. Orduan, eremu pribatuko jabeak ez zuen eragozpenik jendeak gunea erabiltzeko, baina ez zuen erantzukizunik gura. Hala, azkenean, Gipuzkoako Mendi Federazioak hitzarmen bat proposatu digu, eta sinatu egin dugu jabe pribatu horren oniritziarekin, bakoitzaren ardurak zehaztuz. Mendi Federazioarena da eskalada-guneko bideen mantentzea, zaintza... eta Udalarena, berriz, sarbidea. Hau da, modu batean esateko, erantzukizun bertikalaz Mendi Federazioa arduratzen da eta Udala, berriz, erantzukizun horizontalaz. Egunotan, gainera, Federaziokoak izan dira eremua berrekipatzen eta anklajeak aldatzen... eta



Joan den domekan, Atxorrotzeko haitzean eskalatzeko. JULEN AGIRIANO

oharra izan dute jarrita bertan. Dena den, eremua homologatuta, Gipuzkoako Mendi Federazioak Eskalada Eskola moduan izendatzen du eremua, eta erabilgarri dago", adierazi du Eskoriatzako alkate Joserra Zubizarretak.

Federazioaren gomendioak

Gipuzkoako Eskalada Eskolak zenbait gomendio ere ezartzen ditu instalazio horietan aritu nahi duenarentzat: 16 urtetik beherakoek eskarmentudun heldu batek lagunduta -aita, ama edo baimendutako tutorea- joan beharko dute beti, instalazioa erabiltzen duten bitartean. Kaskoa, arnesa, diametroaz eta luzeraz eskalada eskola honi egokitutako soka dinamikoa, segurtasun-jaisgailua, zinta espresa mosketoiduna, HMS mosketoia eta katu oinak, denak homologatuta izan behar dira,

KAREHARRIZKO 18 BIDE DAUDE ATXORROTZEKO ESKALADA-GUNEKO HAITZETAN

eta haitza igotzen hasi aurretik egoera onean daudela ziurtatu. Segurtasunari dagokionez, federaturata egon behar da, eta ezinbestekoa da teknika espezifikoa menderatzea, homologatutako materialak eta segurtasun ekipamenduak erabiltzea, eta sasoi egokia izatea; zuhurtziaz jokatzeko ere eskatzen dute, eta igotzeko bidearen zailtasuna aukeratzean norberaren maila teknikoaren arabera izan dadila gaineratzen dute.

Erañako haitza

Erañako haitza, agian, ezagunagoa da eskoriatzarrentzat Atxorrotzeko eskalada-gunea baino, baina bertan ezin dela eskalatu azpimarratu gura izan du Joserra Zubizarreta alkateak: "Erañako haitzak ez du kondiziorik betetzen, eta ez dago homologatuta. Bertan sartzen dena bere kabuz sartzen da, eta bere erantzukizunaz. Udaletik, gainera, ez dago homologatzeko asmorik. Atxorrotzeko gunea sortu zenean baztertu egin zen, Federazioak Udalarari eskatzen zizkionak ezin dira-eta bete: izan ere, estudio geologikoa egin beharko litzateke..."



IKER BEAMURGIA
ESKALATZAILEA

"Atxorrotzeko eskalatzeko eremua ez da Erañakoaren besteko progresiboa. Haraino, gainera, igo egin behar da oinez herrigunetik; hala ere, oso ondo dago".




IRATI ETXEBARRIETA
ESKALATZAILEA

"Eskoriatza aldean oraintxe hasi naiz eskalatzeko. Etxean eta etxekoekin inon baino hobeto eskalatzeko da; hasteko puntua izan da askorentzat eta itzulera beste horrenbesterezentzat".



BEÑAT ARRIETA
ESKALATZAILEA

"Eskalatzeko ideala da Atxorrotz. Udan, arratsalde, Kobazulo ingurua gerizpean dago beti. Erañan, berriz, harri solte asko dago, eta, jakin barik, arriskua dago".



JULEN AGIRIANO
ESKALATZAILEA

"Atxorrotzeko eskalada-gunea altxor bat da. Erañako haitza ere oso ondo dago, eta bere xarma dauka, baina Atxorrotzekoarekin ezin da alderatu".

Erañako eskalada-gunea

Eskalada-gune moduan ezagunagoa da Eraña auzoko haitza Atxorrotzeko baino; Atxotoki harkaitza izenez ere ezaguna da. Izan ere, hantxe bertan aurkitu ziren urrezko ontziak.

Arrokan gora eta behera aritzen diren kirol honen zaleak diren herriko zein bailarako hainbat lagun pasa dira bertatik, eta, horren ondorioz, harria oso gastaturata dago. Hori horrela, gunea ez dago egonkor eta arrokan bat edo beste jausi izan da errepidera. Gainera, Eskoriatzako Udaletik jakinarazi dutenez, "parea ez dago homologatuta". Hala, bertara eskalatzera joaten dena norbere erantzukizunez joaten da.

Eskalatzeko aritzen diren eremuaz gain, errepiderago geratzen den harkaitza egoera txarrean dagoela ere adierazi dute erabiltzaileek. Eta arriskua ez dagoela eskalatzeko ari direnentzat bakarrik adierazi dute: "Erañan paseoan, bizikletan edo autoz gora eta behera pasatzen direnentzat arriskua du eremu horrek. Segurtasun neurriak hartzen ditugu eskalatzeko, baina zerbait egin beharko litzateke bertan ezer larririk gertatu aurretik", adierazi du Iker Beamurgia eskalatzailer eskoriatzarrek. Bertan aritzen diren eskalatzailerak gustuko dute, baina, lekua, eta eskaladan lehen urratsak egiteko pareta aproposa dela diote. Horrekin batera, errepide alboan geratzen den haitzaren atzean, bestalde, boulderra egiteko gunea ere badago.



"Ez dugu derrigorrezko berrogeialdirik izan"

XABI URIARTE URUGUAIK ETORRI BERRI DEN ESKORIATZARRA

Sei hilabete pasa ditu Uruguain, Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen beka baten bitartez lanean. Hala, etxera iritsi berri, 14 eguneko etxealdia egin beharko du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Osasun krisiak atzerrian harra-patu du Xabi Uriarte eskoriatzarra. Azaroaren 30ean joan zen Uruguaira, Global Training beka gauzatzera, eta ekainaren 2an, martitzenean, iritsi zen Eskoriatzara. Sei hilabeteko praktikaldia bere osotasunean egitea lortu duen arren, Latinoamerikan zehar bidaiatzeko gogoa zuen, baina egoera zein den ikusita etxera bueltatzea erabaki du. Hala, koronabirusak behartuta, 14 eguneko etxealdia egin beharko du orain.

Zertara joan zinen Uruguaira?

Politika Zientziak eginda, atzerrian praktikak egiteko programa bat eskaintzen du Eusko Jaurlaritzak, Global Training beka deritzona. Hala, sei hilabetez egon naiz CLAEH unibertsitatean praktikaldia egiten, Montevideon. Beka bere osotasunean egitea ere posible izan dut; hala ere, ondoren, Latinoamerikan bidaiatzeko gogoa nuen, Kolonia ezagutzeko... baina gauzak nola dauden ikusita etxera etortzea erabaki dut.

Zein izan da bertako egoera?

Pandemia hasi zenetik, Latinoamerikako gainerako herrialdeekiko jarrera ezberdina hartzea erabaki zuen Uruguai koronabirusaren aurkako borrokan.



Xabi Uriarte, aireportuan. X. URIARTE

Gobernuak estrategia arduratsua aukeratu zuen, osasunaren eta ekonomiaren arteko sintonia fina egitera bideratua. Hala, derrigorrezko berrogeialdia saihestu zuen, eta herritarren erantzukizuna eskatu. Hori horrela, erabili duten estrategia arrakastatsua izan dela argi eta garbi ikusten da, kutsatze-tasa baxua izan baita. Lehenengo asteetan neurriak zorrotz hartu genituen, baina ohiko jarduera guztiak erabat irekitzera bideratzen hasi dira. Hala ere, badaude hartu beharreko segur-

tasun neurri batzuk. Esaterako, tabernetan, mahai batean lau pertsona soilik egon daitezke... Horrekin batera, azken hilabeteetan etxetik egin behar izan dugu lan.

Euskaldunekin izan zara bertan, ala bertakoekin?

Asko ikasi dut lanean, oso interesgarria izan da; inoiz egin bako lanak egiteko aukera izan dut... baina azpimarratzekoa bertako jendeak egin digun harrera izan da. Afariak egin ditugu, futbol partiduak... oso ondo aritu gara bertakoekin. Guztira, 14 euskaldun zeuden Montevideo osoan, eta ni egon naizen unibertsitatean bi egon gara. Hala ere, euskaldun batzuekin batu izan gara, eta egin dugu taldetxoa.

Hemengo egoera Uruguai bako bako okerrago bada ere, etxera bueltatzeko gogoz egongo zinen.

Buenos Aires bisitatu dut, eta Uruguai kostaldean egin dugun bidaiarekin ia guztia ikusteko aukera izan dut. Hala ere, beka bukatu berri, gogo gutxi neukan etxera bueltatu eta 14 eguneko etxean egoteko. Ezjakintasuna neukan, eta aurrerago, agian, ezingo nintzateke bueltatu; egoerak txarrera ere egin dezake, betiere... beraz, etxean bezain ondo, inon ez.

Arrazakeriaren aurka

Lokalean entrenatu ezin izan direnez, Apotzagan entrenatzen izan dira Atama Eskoriatza taldekoak. Aste honetan, eguraldiarengatik, Oletan egin dute saioa, eta, entrenamenduaz batera, arrazakeriaren eta intransigentziaren aurka, AEBetan gertatu den George Floyd-en hilketari salatzeko talde argazkia atera zuten.



ATAMA ESKORIATZA



Gatz Museoko harreragunea. I.B.

Gatz Museoko ateak zapatu honetan irekiko dituzte

Euskarazko eta gaztelarazko bisita gidatuak egingo dituzte asteburuetan, ohiko ordutegian

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Asteburu honetan irekiko dituzte ateak Gatzagako Gatz Museoan. Hala, bisita gidatuak berrartuko dituzte, baina erre-serba egin beharko da, 943 71 47 92 telefono zenbakira deituta edo info@gatzmuseo.com helbidera idatzita.

Harrera protokoloa diseinatu, garbiketa lanak sakon egin da eta hidrogelak jarrita, pertsona kopuru mugatuarekin zabalduko dute, eta bisita gidatuek ohiko ordutegia izango dute. Zapatueta eta domeketan egingo dituzte: euskaraz 11:30ean eta gaztelaraz 13:00etan. "Gipuzkoarrentzat zabalduko ditugu ateak, oraingoz, eta ekainean asteburuetan soilik egingo ditugu bisitak. Uztailean, berriz, eguenetan, egubakoitzetan, zapatueta, domeketan eta jaieguetan", adierazi du Libe Ramilak, Gatz Museoko arduradunak.

Maskara, derrigorrezkoa

Horrekin batera, plaza kopuru mugatuak erdira jaitsi behar izan dituztela gaineratu dute museoko langileek: "Ermitan 22 lagun sartuko dira eta gatz fabriketan, berriz, 30. Hala, taldeak eraikinetan banatuko ditugunez, ez digu askorik eragingo. Hori bai, maskara ekartzea derrigorrezkoa izango da, eta etortzen direnek ez dezatela ahaztu", adierazi du Ramilak.

Gomendio sorta

Ateak irekitzearekin batera, mendi eta landa eremuetan aisialdiaz gozatzeko izan behar diren jokabideak zeintzuk diren adierazi gura izan dute sare sozialen bidez. Horretarako, mendizaletasunerako praktika onen dekalogoia ezarri dute Gatz Museoaren Facebook orrialdean. Hori ere beteta mendian ere errespetuz jokatuko.

OHARRAK

Arrate jatetxea

Zapatuan irekiko dituzte ateak Arrate jatetxean. Barrualdea zein kanpoaldea irekitzeko asmoa dute, baina asteburura begira eguraldiak baldintzatuta egin daitezkeela adierazi dute.

Toki-eder elkarte eta erretiratuen lokala

Eraikin guztia itxita egon da, baina datorren astelehenera begira, ateak ireki nahiko lituzketela adierazi dute.

Labidea taberna

10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegia dute Labidean. Hala ere, datorren astetik aurrera ordu gehiagoz zabaltea planteatzen ari direla adierazi dute.



Aurten 20 urte bete dituen Bergarako Erraldoi Taldea ezin izan da kalera irten; irudian, Seminarixoko dantzaldia. GOIENA

Festa gosearen aurrean arduraz jokatura, kaleak jai giroz noiz beteko zain

Udalaren eta ostalarien gomendioak ondo bete dituzte bergararrek eta jai girorik ez da izan kalean maiatzaren 29tik ekainaren 2ra. Terrazak beteta egon arren, ez da jende pilaketarik izan; bergararrak hurrengo jaiak noiz ospatuko zain daude, berme guztiekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Bitorianatxo modu birtualean jaitsi eta igo da *ofizialki* aurten, eta izan dira herritarrek euren kabuz egin dituztenak panpina maitatuaren igoerak eta jaitsiarrik; Matxiategin eta Kruz Gallastegin, esaterako. Hori bai, San Martin plazan ez zen suziririk entzun egubakoitzean, ezta Bergarako Bandaren *Pobres y alegres* pieza berezia ere. Ez da ekitaldirik izan kalean, eta Udala Gobernuak jaien bezperan agerraldia egin zuen ostalarien ordezkariak batekin eta udaltzainburuarekin, bergararrei zuzentuz eta arduraz jokatzeko eskatuz. Bi neurriren berri eman zuten agerraldian: ostalariei gomendatu zitzaizkien terrazaren ordutegi berean ixtea taberna (00:30); eta, bestetik, udaltzainen presentzia indartu zuten. Bergararrek ondo erantzun dute.

Bergararrek arduraz jokatu dute

Izan ere, asteburuaren balorazio eskatuta, Ander Okiñena udaltzainburuak nabarmendu zuen orokorrean bergararrek eskatutakoa ondo bete dutela. Hori bai, asteburuan zehar sei ostalariri isun proposamen bana egin zuten udaltzainek, Okiñenak dioenez, alde aurreko abisua eman ostean. Salaketa proposamen horiek izan dira ostalari horiek zegozkienak baino mahai edo aulki gehiago jarri dituztelako. Udaltzainek, 22:00arte lan egin beharrean 03:00arte aritu ziren lanean asteburuan.

ERANTZUNA ONA IZAN DEN ARREN, SEI ISUN PROPOSAMEN EGINDUTUZTE UDALTZAINEK, ABISUA EMAN OSTEAN


Gobernua, "triste eta etsituta"

Goiena telebistak saio berezia ekoiztu zuen egubakoitzean Seminarixotik, eta bertan izan ziren, besteak beste, Gorka Artola alkatea eta Kultura zinegotzi Kristina Markina. "Tristura eta etsipena" sentitu dute aurtengo jaiak suspenditu behar izateagatik, badakitelako bergararrentzat "oso egun bereziak" direla: "Etorriko dira kaleak jai giroan hartzeko egunak".

Kontzertuak eta film laburrak


Xaxauri esker herriko hamabi talderen kontzertuez gozatzeko aukera egon da, online, eta film laburren lehiaketako sariketa ere telematikoki egin dute. Bederatzi film jaso ditu Xaxauk, eta, herritarrek inkesta bidez botoa eman ostean, *Pernando Ximonen ordezkia* lana izan da boto gehien jaso dituen.

Ostalarien eta Xaxauren balorazioa



AINHOA ROMERO SIRIMIRI JATETXEKO ARDURADUNA

"Kezka bagenuen, eta pozik gaude herritarrek nola erantzun duten ikusita. Terrazetan ez da jende pilaketa handirik sortu eta ostalariok, oro har, ordutegiak eta Udalarekin adostutako neurriak bete egin ditugu. Udaltzainen eta ertzainen presentzia areagotu egin da; seguruenik, beharrezkoa zen..."



AROA ELORTZA XAXAU JAI KONPARTSAKO KIDEA

"Pena itzela izan da. Ilusioz geunden aurtengoei begira. Baltzen jaitziera 2019an berreskuratu nahian ibili ginen eta erabaki genuen 2020ra pasatzea. Aurten ziur geunden eta Udalarekin ere berba eginda zegoen. Omenaldirik ere ezin egin, baina Jardunek merezitako omenaldia izango du 2021ean".

Egitarau egokitua San Antonion

San Antonion egitarau egokitua antolatzea erabaki dute auzoko jaietarako, eta meza eta txistularien kontzertua izango dira ekitaldi nagusiak. Izan ere, kalean ekitaldirik ez antolatzeko Udalak hasiera baten egin zien eskaera ez dute onartu auzotarrek. "Udalak eskatu zigun ekitaldirik ez antolatzeko, Pentekosteetan eskatu moduan. Ez gaude ados, ezin da dena zaku berean sartu; hirugarren fasean egongo gara asteburu horretan, eta meza eta txistularien kontzertua antolatuko ditugu segurtasun neurriak hartuta eta karpa guk alokatuta", dio jaiak antolatzeko taldean dagoen Patxi Uribesalgok. Gainera, zehaztu du alkatearekin egon ostean erabaki dutela Udalar eskatutako karpa euren alokatzea: "Alkateak esan digu ulertzen duela jaietako ekitaldiren bat antolatzeko gure nahia, baina euren zuzentziaz jokatu nahi dutela eta ez dutela Udalaren azpiegiturarik utziko; karpa bat behar badugu, guk alokatu beharko dugula. Eta hori egingo dugu, meza eta txistularien kontzertua antolatuko ditugu". Azkenean, baina, akordio batera heldu dira eta meza ermita kanpoan egiteko aulkiak jarriko ditu Udalak eta txistulari bandaren kontzertua baimenduko du; meza ekainaren 13an izango da (11:00), eta txistularien kontzertua ekainaren 14an (12:30). "Badira 200 urte meza hori egiten dela eta distantzia mantenduz egin daiteke; gero, txistulariek kalea apur bat girotu dezatela", dio Uribesalgok.

Gobernuaren eskerrak bergararrei

Festarako gogo nabarmena izanda ere, herritarrek "eredugarri" jokatu duela uste du Udala Gobernuak, eta horregatik esker ona adierazi nahi izan dute, ohar bidez: "Eskerrik asko oraingoan ere eredugarriak izateagatik eta erantzukizunez jokatu izanagatik. Gai izan gara herri moduan alarma egoerak agintzen duen testuinguruan eta baldintzapean ere tentuz jokatu eta sozializatzen jakiteko. Eta aipamen berezi bat egin nahi diegu, baita ere, herriko tabernariak; haiek ere egoeraren zailtasunaz jabetuta Udalarekin praktika onenak adostu eta gomendioak betetzeko egindako ahaleginagatik". Jarrera horrek bergararren osasuna zaintzen lagundu duela uste dute. "Egon ziur etorriko direla laster herri moduan jaiak eta ohiturak gogoz eta berme guztiekin ospatzeko garaiak", gaineratu dute.



Terraza bat goraino beteta San Martin plazan, maiatzaren 30ean. JULEN IRIONDO

Laguntzandako eskaerak, datorren astetik aurrera

Alarma egoeran itxi behar izan duten edo jardura nabarmen murriztu duten negozioei begira 300.000 euroko partida bideratu du Udalak; datorren astean, oinarriak aldirik ofizialean argitaratzen direnean, eskatu ahalko du negozio bakoitzak dagokion laguntza

Jokin Bereziartua BERGARA

COVID-19ak eragindako alarma egoeraren ondorioz itxita egon edo jardura nabarmen murriztu duten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu emaileei zuzendutako dirulaguntza lerro baten berri eman zuen joan den astean Bergarako Udalak. Honako baldintza hauek bete behar dituzte dirulaguntza hori jaso nahi dutenek: zerbitzua publikora zabalik dagoen komertzioa izatea; kokapen fisikoa, egoitza eta jardura eremua Bergara izatea; fakturazioa %50 edo gehiago jaitsi izana; eta hamar langiletik beherako tamaina duten komertzioak izatea, jardun osoz dihardutenak.

Plan integralaren barruan

Udalak 800 euroko laguntza emango die itxita egon diren negozioei eta 400 euroko laguntza fakturazioa erdira jaitsi zaienei. Partida osoa 300.000 eurokoa da; hau da, poltsa horri ez zaio dirurik gehituko. Izan

ere, Udal Gobernuaren arabera, negozio bakoitzari bideratuko zaion laguntzaren arabera dago kalkulatu dirulaguntza lerroa eta eskatuko luketen guztiak nahikoa diru egongo litzateke.

Hain zuzen, 300.000 euroko dirulaguntza lerro hau COVID-19aren ondorioak arintzera datorren plan integraleko -581.000 euro-, partida handiena da, betiere arlo ekonomikoaren barruan hartu diren neurriek dagokienez.

Berraktibatze neurriak

Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialan argitaratzen diren unean egin ahalko dira eskaerak eta Udalak astean jakinarazi du hurrengo astean argitaratuko direla oinarri horiek guztiak.

**ERABAT ITXI BEHAR
IZAN DUTENEI, 800
EURO; FAKTURAZIOA
ERDIRA JAITSI
ZAIENEI, 400 EURO**

Onuradunek aurkeztu beharko dute, batetik, negozioa itxita izan dutela frogatzen duen agiria eta, bestetik, fakturazio murrizketaren agiria. Horrekin batera, negozioa berraktibatze neurrien berri ere eman beharko zaio Udalari. Neurri horien adibide gisa honako hauek zehaztu dituzte: osasun egoera berrira egokitutako babes neurriek hornitzea negozioa; digitalizazioarako baliabideak garatzea; fidelizazio kanpainak abiatzea edo indartzea; lanpostu finkoak sortzea; eta aholkularitza zerbitzua eskaintzea.

Bonu berriendako aukera zabalik

Kuttuna.org plataformako bonuak negozioek "hasierako likidez arazoa arintzeko" helburuarekin atera zituen Udalak; guztiak agortu ziren maiatzeko bigarren asterako. Hala ere, maiatzeko osoko bilkuran, Gorka Artola alkateak aukera zabalik utzi zuen bonu berri batzuk ateratzeko, sistema berri batekin.

GORA ETA BEHERA



A.G.

Pozik Osintxu sarreran dagoen muralarekin



Osintxura oinez joan ohi den herritar batek txalotu du bidegorri ondoan margotu berri duten murala. Eskola, iturria, frontoia eta Muskiritsu zenbat metrora dauden erakusten du, besteak beste.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Pentsiodunen elkarretaratzea: ohiko ordutegira

Ekainaren 8tik aurrera, asteleheneroko protesta 12:00etan izango da. Aldarrikapenek bere horretan jarraitzen dute: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, egoitzen kudeaketa publikoa eta duina, kalitatezko osasun eta zaintza publikoa...

Seminarixoa hautesleku uztailearen 12an

COVID-19aren erruz Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak era berezian egin beharko direnez, bost hautesleku izatetik zazpi izatera pasatuko da Bergara. Udal pilotalekuan egon ohi diren zortzi mahaietatik hiru pasatuko dira Seminarixora.

BAZ zabalik dago, zita alde aurretik eskatuta

COVID-19aren erruz itxita egon ostean, maiatzaren 19an ireki zen Bergararren Arreta Zerbitzua, hainbat neurriekin. Udalak gogora ekarri du alde aurretik txanda eskatu behar dela, 010 telefono zenbakian edo www.hitzordua.bergara.eus webgunean.

Euskaraldia: entitate berriak batu dira

Euskaraldian parte hartu nahi duten taberna, jatetxe, lantegi, eskola, zerbitzu eta kirol zein kultura taldeek aukera dute izena emateko: bergaraeuskaraldia@gmail.com / 688 60 43 14 (Asier).

UGARTE
ARROZTEGIA · ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoia
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com



Empresa Registrada Nº190/025



Boluko frontoi izango da gaurtik aurrera erabili ahalko den azpiegituretako bat; betiere, segurtasun neurriekin. JOKIN BEREZIARTUA

Frontoi estaliak erabili ahalko dira, gaur hasita

Udalarenak diren gune batzuk zabalik daude edo datozen orduetan irekiko dituzte; betiere, segurtasun neurriak hartuta: Uberako, Zabalotegiko eta Boluko frontoi estaliak, liburutegia, hilerria eta Laboratorium, kasu; Agorrosin noiz irekiko duten ez dute erabaki oraindik

Jokin Bereziartua BERGARA

Konfinamendu-arintzearen fase berri honetan, izaera sozialeko ekintzak betiere segurtasun neurriak ahalbideratuta baimentzen ari diren honetan, Udalak jakinarazi du gune batzuk zabaldu egingo dituztela. Hilerriak astebete egingo du gaur zabalik, eta, gune irekia izanik, ez da sarrera mugatu; nahikoa da jendearen arteko distantziak mantenduta edo, segurtasun distantziak mantendu ezin direnean, maskarak erabilia. Udalak bi aldaketa txiki egin ditu hilerrian: batetik, loreak ureztatze iturri ondoan esku-ragarri zeuden ontziak kendu egin dituzte. Hortaz, egoera aldatu artean, norberak eraman beharko du ontzia. Eta, bestetik, hiru zabor-guneetatik bi kendu eta bakarra utzi dute, oinpekoarekin zabaltzeko modukoa.

Gaur irekiko dira Labegaraietako kanpoko gunea eta tenis pista, eta baita herriko pilotaleku itxiak ere. Hau da, gaur

irekiko dira Uberakoa, Bolukoa eta Zabalotegikoa; Udal Pilotalekua ere gaur irekiko dute, baina, momentuz, federatuen entrenamenduetarako bakarrik izango da. Zerbitzu horiek erabili ahalko dira segurtasun baldintzak beteta eta, betiere, aldagelak itxita daudela; azken horiek erabiltzea galarazita dago.

Hainbat talderen lokalak ere bai Udal liburutegiak ere gaur irekiko ditu ateak, 08:30etik 14:30era. Zapatuan ere zabalik egongo da, 09:00etatik 14:00etara. Erabiltzaileek mailegu berriak hartu ahalko dituzte; betiere, liburutegiko langileei eskatuta. Eta umeeke guraso batek lagunduta joan beharko dute. Heldu zein ume,

KIROL EREMU BATZUK ZABALDUKOTU DITUZTEN ARREN, UDALAK EZ DU ERABAKI ORAINDIK AGORROSIN NOIZ IREKI

musukoa jantzita sartu beharko dira liburutegira. Laboratorium zapatuan irekiko dute, distantziak mantentzeko aginduekin eta ohiko ordutegian: eguzten eta eguenetan, 10:00etatik 14:00etara; egubakoitz eta zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta domeketan, 10:00etatik 13:00etara.

Horrez gain, Udalarenak diren baina beste eragile batzuek erabiltzen dituzten hainbat lokal martxan daude: Goikorock-en musika taldeen entsegu lokalak; Beart-en Boluko lokala; Alai taldearen eta Aritzeta abesbatzaren Mizpildiko eliza; eta Arizondoren, Taila elkartearen, Buztinzalaren eta erraldoi taldearen Zabalotegiko lokalak, besteak beste. Beste lokal batzuk ere zabaldu ahal izango dira, baldin eta 15 pertsonatik gora elkartzen ez badira eta segurtasun neurriak betetzen badituzte. Agorrosingo kiroldegia noiz ireki "aztertzen" ari da Udalak, baina ez dute oraindik erabaki.



Miguel Altunarako pasabide berria, eguzten arratsaldean. JONE OLABARRIA

Miguel Altunarako pasabidea ekainaren 20an ireki nahi dute

COVID-19a heldu zen lanak "ia bukatuta" zeudenean; seinaleak, baranda eta azken ukituak falta zaizkio obrari

J.B. BERGARA

COVID-19ak zuzenean eragin du Miguel Altuna Lanbide Heziketa eta Bergarako herrigunea lotzeko pasabidearen obran. Martxoaren 23rako erabilgarri egotea aurreikusten zuen Udalak, baina alarma egoerak atzeratu egin du irekiera. Lanak "ia bukatuta" zeudenean heldu zen COVID-19a.

Seinalizazioa eta baranda jarzea falta zen, eta, hornitzaileak zerbitzuz kanpo egon ostean, obra "orain dela gutxi" jarri da berriro martxan: "Berriro ekin diogunean, lanak nahiko martxa onean doaz eta ekainaren erdirako bukatuta egotea espero dugu. Likidazioa onartu eta harrera egin behar dira irekitzeko, eta ekainaren 20an irekitzeko ahalegina egingo dugu. Obra atzeratu egin da, baina emaitza txukun geratu da", adierazi du Hirigintza Sailak.

Labegaraieta, bigarren fasean

Labegaraietako kiroldegia eraberritzeko bigarren fasea ere martxan dago, maiatzaren 29an obrari hasiera emateko akta sinatu ostean. Diputazioaren ia 589.000 euroko dirulaguntza bati lotuta dagoen proiektua da, epe zehatzetan gauzatu beharrekoa. Kiroldegi barruan hainbat lan egingo dituzte; tartean, kantxako lurra erabat berritzea. Artzemandi enpresari esleitu zion Udalak bigarren fasea, 1.557.190 euroko aurrekontuarekin; aurreikuspena da lanak urtea bukatu aurretik amaitzea.

San Lorentzoko ur zikinak

Bestalde, hasita daude San Lorentzoko poligonon ur zikinak bideratzeko lanak, ur zikinaren %99 Mekolaldeko araztegi bideratzeko. Aurrekontua 52.877 euro da -BEZa barne-, eta lanek bi hilabete iraungo dute.

Udalekuekin zer egin erabakitzeko bilerak hurrengo astean

COVID-19ak eragindako alarma egoera betean, Udalak erabaki zuen uztaileko udalekuetarako izen-ematea martxan jarzea, azken erabakia pandemiaren bilakaeraren arabera hartzeko konpromisoarekin. Hasieratik erabaki zuen Udalak eskaintza urterokoa baino murriztagoa izatea, eta udaleku irekiak eta kirol campusa bakarrik antolatzea

erabaki zuten. Maiatzaren 24an amaitu zen izena emateko epea, baina Udalak ez du erabaki oraindik udalekuekin aurrera egin edo bertan behera utzi. Adierazi dutenez, hurrengo astean egingo dituzte erabaki hori hartzeko behar dituzten bilerak.

Udaleku irekiak Jardunek kudeatzen ditu, eta izen-ematea irekitzeaz bat abiatu zuten hezitzaileendako lan-poltsa; udalekuak egiten badira, zehaztuko dute noiz egingo den hezitzaileendako formakuntza saioa.

"Goranzko bidean ari ginela harrapatu gintuen"

JOSE JAVIER BARKERO BKE-KO OHOREZKO ERREGIONAL TALDEKO ENTRENATZAILEA
Lehen denboraldia izan du aurtengoa Jose Javier Barkerok ohorezko erregional mailako taldea zuzentzen. Taldearen egoeraren eta denboraldiaren balorazioa egin du

Jone Olabarria BERGARA

Ohorezko erregional tadea zuzendu ostean, datorren denboraldian ere talde bereko entrenatzaile izaten jarraituko du Jose Javier Barkerok aretxabalarak. Jokaturako azken jardunaldira arte, 15. postuan zegoen taldea sailkapenean, 23 puntuarekin. Fokua datorren denboraldian jarritako dagoeneko, lanean jarraitzeko "gogoz" agertu da Barkerok.

Denboraldia bertan behera geratuko zela jakitean, erabakia nola hartu zenuten?

Azken batean, salbatu egin gara, eta hori zen guk finkatutako helburua; denboraldia salbatzea, nahiz eta azkenean COVID-19ak eraginda izan. Alde horretatik, esan daiteke ondo etorri zaigula erabaki hori. Bestalde, baina, goranzko bidea egiten hasita geunden momentu batean harrapatu gintuen, taldea dinamika harrapatzen zebilen eta taktikoki ere askoz hobeto ari ginen. Pena izan da noraino heltzeko gai ginen ezin ikustea. Albistea iritsi eta ziur jakin genuen arte, zalantza asko genituen; hirugarren mailan Gipuzkoako bi talde jaitsi beharko lirateke, eta gu ere hor zalantzan egon ahal ginen, nahiz eta COVID-19a iritsi zen unean salbatuta geunden.

Lehen denboraldia izan duzu taldea gidatzen. Nolako taldearekin egin zenuen topo?

Oso ondo hartu ninduten, harrera beroa izan zen hasieratik eta oso eroso sentitu naiz denboraldi osoan zehar. Bost urtean entrenatzaile berbera izandako talde bat zen, bost-sei jokalarik taldea utzi berri zuten eta hauen hutsunea jokoan igartzeko beldur handia zegoen, bai klubaren

partetik, baita taldearen baitan ere. Egoera ez da batere erraza izan, baina lanarekin eta jokalarien gogoekin talde bat izatera iritsi gara. Gauzak ondo joaten hasi zirenean, baina, iritsi zen koronabirusa; urte gogorra baina polita izan da niretzat.

Hasiera nahiko aldrebesa izan zenuen, baina hobera egin zuen gerora egoerak...



2019-2020 denboraldiko ohorezko erregional taldea. B.K.E.

Datorren denboraldia helburu

Bertan behera geratu den 2019-2020 denboraldirako Jose Javier Barkerok entrenatzaileak finkatu bezala, "maila mantentzea" izango da 2020-2021 denboraldira begirako erronka ere. Bertan pentsatzen, entrenatzen hasteko "irrikaz" daudela azaldu du.



Jose Javier Barkerok entrenatzailea, prestaketa saio bateko irudian. GOIENA

Denboraldi honetako gauzarik okerrera bi garaipen jarraian lortu ezin izana izan dela esango nuke. Beheko postuetara kondenatu gintuen horrek, eta presio handia eragin du; etxetik kanpo ez dugu emaitza on askorik lortu, eta, hortaz, etxean jokatzeko askoz presio handiagoarekin egiten genuen. Hala ere, denboraldia etxean jokatu-tako partiduekin salbatu dugu, eta datorren denboraldira begira landu beharreko zerbait izango da. Oraingoari begira, uste dut maila eman dugu kategorian mantendu ahal izateko, eta hori da garrantzitsua.

Nola bizi izan duzue, talde modura, itxialdia?

Kirol talde gehienek egin bezala, gu ere online bidezko ariketa batzuk egiten ibili gara. Dena den, zaila zen taldean elkartzeko uneak topatzea. Konfinamendua bukatu zenean, taldeka batzen hasi gara; hitz egiteko, gehienbat. Kirolik ezin dugu egin, baina animikoki asko laguntzen digu taldeki-

deekin elkartu eta inpresioak trukatzeko. Komunikazioa mantentzea oso garrantzitsua da. Hiru hilabete futbol gabe asko da gazteentzat eta goz daude berriz ere zelaira itzultzeko. Dena den, tentuz gabiltza, ez dakigu noiz entrenatu ahal izango garen batera. Berriak ez dira heltzen, eta itxaron egin beharko dugu.

Hortaz, datorren denboraldian pentsatzen hasiak zarete..

Aurtengoa hobetzea da datorren denboraldira begira erronka. Ez dugu aurrekusten aldaketa askorik egongo denik taldean datorren denboraldira begira; pare batek utzi egingo dute taldea, baina gazteak sartuko dira. Taldean aurrerapausoak eman behar dira beti.

"ETXETIK KANPO EZ DUGU EMAITZA ON ASKORIK LORTU; PRESIO HANDIA ERAGIN DU HORREK"

San Antonio, San Martzial eta Antzuolako sariak, bertan behera

Joan den astean, maiatzaren 27an, eman zuen aditzera erabakia Bergarako Lokatza Ziklismo Eskolak

J.O. BERGARA

Lokatza Ziklismo Eskolarendako garrantzitsuak diren hiru proba suspenditu ditu COVID-19ak. Lokatzako presidente Ion Unamunok sinatutako gutun baten jakinarazi dute aipatu

hiru lasterketak ez direla egingo aurten. Batetik, ekainaren 13ko kadete mailako San Antonio lasterketa, aurten 84. aldia bizi behar zuena.

Bestalde, 2017an lehenengoz antolatuta zuten eta urtez urte

indarra hartzen den San Martzialgo igoera ere ez da egingo. Aurtengo data ekainaren 26a zen, eta bertan, kadete, junior, 23 urtetik azpikoek eta elite mailako emakumeek lehiatu behar zuten San Martzialerako aldapa gogorretan, erlojuaren kontra. Uztailaren 11n Antzuolan egin behar zen DH (Downhill) proba ere suspenditzea erabaki du Lokatzak. "Erabakia ulertuko duzuela espero dugu", adierazi dute Lokatzatik erabakia aditzera ematearekin batera.



Txirrindulari bat prest iazko San Martzialgo igoerako irteera puntua. GOIENA

Etxetik ere, muralgintzan eta ilustrazioan etengabe

Mr. Sor2 izenez ezaguna den Jokin Oregi ilustratzaile eta muralgile bergararrak '#ARTdemia' erakusketan hartu du parte konfinamenduak iraun duen bitartean. 'Safe' izeneko lana aurkeztu du ARTgia areto gasteiztarrak antolatutako erakusketara

Jone Olabarria BERGARA

13 urte zituenetik aritu da artea egiten Jokin Oregi ilustratzaile eta muralgile bergararra. Mr. Sor2 izenez ezaguna, metodo artistiko askorekin lan egiten du, bere estiloa barruko eta kanpoko giroetara egokituta eta, askotan, pintura surrealista zehatzak sortuz. COVID-19 gaitzak eragindako konfinamenduan ere hainbat sormen proiektu garatzen aritu da bergararra, etxetik bada ere. Aitortu duenez, "gustura" hartu du etxean egoteko tartea, eta bestela denbora faltagatik baztertua zituen proiektu pertsonalak garatzeko tartea izan du.

Erakusketa birtuala

Konfinamenduan egindako lanekin ere Gasteizko ARTgia aretoak abiarazitako #ARTdemia izeneko erakusketa birtualean parte hartu bergararrak azkeneko hilabeteetan. Erakusketaren helburua da une zail eta aurrekaririk gabeko hauetan adierazpen askearen premia aldarrikatu eta kulturak bizi duen egoera larria agerian uztea. Izan ere, antolatuak zehaztu dutenez, "artista guztiak egoera berean egonda, entzierroan, lehenengo aldiz guztiak berdintzen dituen ikuspegi batetik sortutako erakusketak da #ARTdemia".



Jokin Oregi, iazko maiatzean Brisbane Street Art Festival-en, Australian. J.O.

Hala, guztira aurkeztutako 78 sormen-proposamenen artean, 30 aukeratu dituzte #ARTdemia proiektuaren parte izateko; tartean, Jokin Oregiren (Mr. Sor2) Safe lana.

Proiektu ugari esku artean


Pandemiak lanez gainezka zebilela harrapatu zuen Mr. Sor2, eta, azaldu duenez, egoera normala balitz une honetan Txinan beharko luke, zenbait lan egiten. Bergaran ere proiektu bat garatzen hasi behar duela zehaztu du hark.

Datorren asterako Australiako musika areto garrantzitsu baten antolatutako lan bat egin behar duela azaldu du: "Musika areto garrantzitsu bat da Australian, eta bertako merchandising-erako diseinuak egin behar ditut proiektu horrekin, pandemiaren gaia aitzakia hartuta".

Bartzelonan ere fatxada batean mural bat garatzeko proiektua zuen esku artean bergararrak, baina egoera ikusita atzeratu egingo den susmoa du. Egunkari batekin elkarlanean ere hasiko dela azpimarratu du: "Eus-

Babesa oinarri duen lana

Safe izeneko lana eraman du Mr. Sor2-k #ARTdemia erakusketara. 300 gramoko Canson paperean inprimatutako ilustrazio digitalak islatu nahi du konfinamendu garaian norberaren etxeko lau paretek eragiten duten babeslekua: "Izaki bakoitzak sortzen duen espazio fisiko eta emozionala islatu nahi izan dut, ongizatea bermatzeko eta eragozpenei aurre egiteko gure lekua, bakoitzak berea; kasu honetan gure etxeetan".



Safe laneko irudia. MR.SOR2

Ilustrazioaren sinbologiaz galdetuta, elementu ezberdinen konbinazioa azpimarratu du: "Aurpegi bat eta bere inguruan bi tigre jarri ditut, babesa erakusteko asmotan. Leku askotan halako animalia edo pertsonai mitologikoak jartzen dituzte atarian, norberaren etxea babesteko. Eskailerekin pertsonaren barnera eraman nahi dute, denok ditugun arazo eta kezak islatuz".

kal Herriko hogeita hamar ilustratzaile ariko gara hainbat testuri irudia jartzen. Nire kasuan, mugikortasuna oinarri duen lan bat bukatu berri dut bertarako asteon".

Etorkizunari begira

Azken bi urteetan lan "dezente" izan duela aitortu du, eta hainbat kasutan ezezkoak eman behar izan dituela, "denbora faltagatik". Oregik azaldu duenez, diziplina bakar batera mugatuta ez egoteak ate asko ireki dizkio orain arte: "Ilustrazio digitala, koadroak, muralak, eta abar egiten ditut. Ilustratzaile moduan lan pila bat dut; pandemiak harrapatu gintuen arren, lanean jarraitu dut".

Australian ere pintura festival batean parte hartzea zuen aurreikusita hemendik gutxira, eta

bergararrak zehaztu du bertako zenbait ekintza era telematikoa egingo dituztela, edo, pilaketarik ez egoteko, txandaka antolatuko dituztela. Atzerrian zituen plan guztiak bertan behera geratu dira: "Ez dakigu noiz arte atzeratuko dituzten edo zelan egingo diren, ea egoera nola doan".

Era berean, COVID-19a dela-eta komertzio askok atek itxi dituztela azaldu du Oregik, eta berriz ere zabaltzerakoan aire berri bat eman nahi dioten zenbaitek bere lanetara jo dutela adierazi du.

ETXEAN EGON DEN DENBORAN, UTZITA ZITUEN PROIEKTU PERTSONALAK GARATU DITU AZKEN ASTEETAN

Entsegu presentzialetara itzuli da Bergarako Orfeoi Gaztea

Babes neurri guztiak hartuta eta txanda sistema batekin bueltatu dira era presentzialera orfeoiko kideak

J.O. BERGARA

Hiru hilabetez etxetik lanean aritu ostean, martitzenean itzuli ziren entsegu presentzialetara Bergarako Orfeoi Gazteko kideak. Taldeko nagusienei dagokienez, egun bat geroago,

eguaztenean itzuli ziren orfeoiko kideak.

Orain arte, aplikazio eta bideo dei bidez aritu dira entseguak egiten, baina aitortu dute "gogoz" zeudela elkar ikusi eta ikasturtea "era duinean" bukatzeko.

Babes neurriei dagokienez, bi metroko distantzia bermatzeaz gain, maskarekin ari dira kantuan: "Musukoekin kantatzea askoz zailagoa da, haize gabe geratzen zarela dirudi".

Horretaz gain, entsegu lokalean pilaketarik ez gertatzeko, aurretik txanda hartzeko sistema bat ezarri dute: "Entsegura era presentzialean etorri nahi duenak izena eman behar du aurretik. Horrela, zehazki zenbat izango garen jakin eta neurriak beharretara moldatzen ditugu".



Martitzeneko entsegu presentzialeko irudia, babes neurriekin. ORFEOI GAZTEA

Egin tokiko komunikabideen alde

Egin Goiena Klubeko bazkide



Anima zaitetz, egin zaitetz Goiena Klubeko bazkide. Baduzu zer irabazi:

- Deskontuak hainbat komertziotan: Goiena Klubeko txartela erabilia.
- Puntuak aldizkaria jasoko duzu: zeuk eskatutako helbidean.
- Zozketak: irabazi ekitaldietarako sarrerak, liburuak, teknologia gailuak...
- Deskontuak Iragarki sailkatuak atalean, Goiena aldizkarian.
- Deskontuak eskelak jartzean Goiena aldizkarian.

Gainera, ORAIN egiten bazara bazkide, beste abantaila hauek ere izango dituzu:

- **30 euro bakarrik** kostako zaizu urte bukaerara arteko kuota, 56 beharrea.
- **%30 merkatuko zaizu bazkide** kuota errenta aitortpena egiterakoan. Izan ere, Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.
- **Maskara jasangarria** jasoko duzu, 300 aldiz garbitu daitekeena. (Maskarak agortu arteko oparia.)



BAZKIDE EGITEKO:

☎ 943 25 05 05 ✉ kluba@goiena.eus



Orain arteko jaiak ez dira, aurten, posible izango

Egoera normalean, Ferixa Nagusiko jaiak prestatzen hasteko egunak lirateke honako hauek. Argi dago, ordea, guztiz ezohiko jaiak izango direla Elgetan ere. Udalak bertan behera utzi du jai egitaraua. Erabakiak ez du herrian sorpresa handirik eragin

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Lau aste gelditzen dira jaien hasiera eguna beharko lukeen uztailaren 2rako, baina oso bestelakoak izango dira jaiak aurten. Jai batzordearen erabakiak inor gutxi harrapatu du ezustean.

Aurreko aste bukaeran izan ziren Bergarako Pentekoste jaiak. Kasu honetan ere, eta segurtasun kontuak tarteko, Bergarako Udalak ekintzarik ez antolatzea erabaki zuen. Eguraldia lagun izan zuten Pazkoek, eta bergar askok egindako aukera izan zen herriko terrazetan eta jatetxetan zein inguruko naturguneetan elkartzea. Asentziorik ere sumatu zen ohikoa baino auto eta autokarabana pilaketa handiagoa; tartean, Bergararik etorritako bat baino gehiago.

Aste bukaeran, baita ere, bertso saioa egin zuten Antzuolan. Bertsolariak udaletxeko balkoian eta ikusleak plazan musukoekin eta distantziak mantenduz nor bere aulkian eserita egin zuten.



Neska-mutikoen dantza saioa, iazko jaietan. IMANOL SORIANO

Zaila da aurreratzea Ferixa Nagusiko jaiak dagokien egunetan zer gertatuko den. Elgetako ostalariak ere ez dira horretan pentsatzen hasi. "Ez gara elkar-tu, eta ez dugu oraingoz ezer landu", azaldu du Rincon de

Lola tabernako Maria Coboek. "Nik alkatearen dei bat jasotzen jaiak bertan behera gelditzen zirela esateko, eta albisteak ez ninduen ezustean harrapatu. Mentalizatuta nengoen. Bizi dugun egoera zein den ikusita

Ganadu azoka zalantzan, bestela ere

Elgetako ganadu azokaren etorkizuna ez dago batere argi. COVID-19arekin lotutako neurri bereziak etorri aurretik ere zalantzan zegoen 2020koa egiterik izango zen edo ez. "Ikusteko dago hemendik aurrera jarraipenik izango duen ere", esan du Agustin Beretxinagak. Azaldu duenez, osasun arautegi berria jarri du Aldundiak, eta uztailaren 2an da indarrean sartzekoa. "Beti egon dira bete beharreko osasun neurri batzuk. Animaliei, esaterako, bi analisi egiten zitzaizkien -*tuberculina* eta *brucelosis*-. Orain, zazpi bat egin beharko zaizkie". Azokei ere osasun-kalifikazio bat ezarriko zaiela azaldu du, eta animalia guztiak ezingo dutela denetan parte hartu. Kontu horiek guztiak argitzeko Diputazioan bilera eskatuta zutela esan du elgetarrak: "Baina alarma egoera etorri zen, eta ez dugu egiterik izan".



Ganadu azoka Elgetan, iaz. I.S.

argi neukan jaiak ez zirela ospatu behar. Egoera aldatu daiteke, baina gaur-gaurkoz ez dakigu zein izango den, eta oraingoz, ez dugu ezer landu".

Azokarik ez aurten

Ganadu azoka antolatzen duen Agustin Beretxinaga prestaketa lanetan hasi gabe zegoen. "Nahiko argi ikusten genuen aurten ez dela azoka egiterik izango. Dena dago geldirik". Azaldu du alarma egoera indarrean denetik ezin dela ganadu azokarik egin, ez EAEn ez Estatu mailan.

Abeltzainei ondorio larrikerik ekarriko dien galdetuta, hauxe esan du: "Elgetakoa erakusketa feria bat da, ez salmenta feria bat. Badaude feria handiagoak, eta ez dira egingo". Beretxinagak Asturias eta Kantabria ditu bereziki buruan.

KONFINAMENDU NEURRIEK HOBERA EGINDA ERE EZINGO DIRA EKITALDI JENDETSUAK EGIN

220 bat maskara berrerabilgarri banatu ditu euskara elkarteak

Ahoa estalita bada ere euskaraz komunikatzen jarraitzeko mezuarekin batera banatu ditu Goibekok

Goiena komunitatea
Goibeko elkarteak / ELGETA

Bazkideek eta herriko merkatariek jaso dituzte maskarak. "Oraintsu arte *ahobizi* eta *belarriprest* ibili gara etxeetan jo eta su euskaraz, maskararik gabe. Maskara honekin ahoa eta sudurra tapatuko dituzu, baina eragin mingainari eta komunikatu euskaraz. Ahoa estalita, baina mingaina bizi-bizi. Erabili maskara herriko komertzioetan eta bi metroko distantziarik ez dagoenean. Maskara berezia da. Zumaiako enpresa

batetik ekarria. Tela homologatua duena eta kirurgikoa dena. Eta badu berezitasun handi bat: 300 aldiz garbitu daiteke".

Merkatariendako ere, mezua

"Maskara hau bazkideei banatu diegu eta oso harrera ona izan duen ekimena da. Pentsatu dugu Elgetan komertzioan lanean zaudetenok ere merezi duzuela beste horrenbeste edo gehiago. Hori bai, maskara jarrita bada ere, eman euskarari bidea, ados? Eskerririk asko egoera zail hauek egiten zabiltzaten lanagatik".



Goibeko euskara elkarteak bazkideei bidalitako idatzia eta musukoak. L.Z.L.

Urteurreneko ekintzak

Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak 25 urte betetzen ditu aurten. "Egoera nahasia dago, dena den, eta ekintzak egiteko jende askorik ere ez dago batzerik... Ea urte akabera zelan datorren.

Nahiko genuke pandemia honi neurria hartuta egotea denok eta azaroan-abenduan Euskalraldian buru-belarri sartzea. Bitartean, zaindu zaitezte eta zaindu zuten ingurukoak ere. Eutsi eta animo!".

OHARRAK

'Kutxabank ez itxi'

Kutxabank bulegoa ez itxi lelopean elkarretaratzea deitu du martitzenerako, ekainak 9, Xalbadorpe elkarteak. Dei egin dute 12:00etan plazan elkartzeko. Alarma egoera dela-eta musukoa erabiltzea eta bi metroko segurtasun distantzia mantentzea derrigorrezkoa izango da.

Nekazarien elkarteak

Elgetako nekazarien kooperatibatik jakinarazi dute alarma egoera dela-eta uztailaren egingo dutela urteko batzar orokorra. Data zehazteko dago oraindik. Dena den, finkatutakoan, hamabost eguneko epearekin iragarriko dutela esan dute.



Udal liburutegia, asteazkenean. G.E.

Udal zerbitzuak, aurrez aurreko arretara itzulita

Liburutegiak astelehenean, ekainaren 1ean, zabaldu zituen ateak, beste hainbat udal zerbitzuekin batera. Izan ere, ohiko ordutegiarekin zabaldu dute, baina, edozelan ere, neurri bereziak hartu beharko dira bertara gerturatzeko

Naroa Urien Berrio ELGETA

COVID-19ak eragindako krisialdiatik itxita egon ostean, Elgetako Udalak berriz zabaldu du udal liburutegia. Ohiko ordutegiarekin, herritarrek liburuak maileguan hartu ahal izango dituzte eta liburutegian bertan egoteko aukera ere izango dute.

Mailegu zerbitzua, abian

Astelehenean zabaldu zituzten ateak, eta dagoeneko hainbat herritar gerturatu direla azaldu du Geaxi Ezpeletak, liburutegiko arduradunak: "Astelehenetik hasita hainbat erabiltzaile hurbildu dira liburutegira. Gehienak liburuak etxerako maileguan hartzera etorri dira". Hala ere, bertara joateko neurri bereziak hartu beharko direla azaldu du Ezpeletak: "Liburutegiak segurtasuna bermatzeko beharrezko neurri guztiak hartu ditu: txandakako arreta, gelak, ibilbide markatuak eta mugatuak, itzulketen desinfekzio garaia, eta abar. Txanda hartu daiteke te-

lefonoz (943 78 80 12), Whatsapp edo Telegram bidez (688 72 96 03) edo posta elektronikoz: elgetakoliburutegia@elgeta.eus". Bestalde, mailegutako materialaren itzulketei dagokienez, liburu dezente maileguan jarraitzen dute oraindik. "Liburu asko itzuli diren arren, oraindik liburu dezente jarraitzen dute maileguan; berez, mailegu epe guztiak liburutegi zerbitzutik ekainaren 15era arte luzatu ziren. Beraz, oraindik, itzulketak garaiz egiteko tartean dira erabiltzaileak", dio Ezpeletak.

Online bidezko zerbitzua

Modu berean, online bidezko maileguetan gorakada sumatu dela dio Ezpeletak: "Konfinamen-

UDAL ZERBITZUEK NEURRI BEREZIAK HARTU DITUZTE, SEGURTASUNA BERMATZE ALDERA

du garaian Elgetan ere *eLiburutegia*-ren erabilerak gorakada izan du, aurrez erabiltzen ez zutenek mailegu digitala ezagutu dute eta ezagutzen zutenek ere normalean baino gehiago erabili dute". Azken finean, ezin salbuespena izan, eta liburutegien itzulera ere aldaketa askorekin etorri da, baina itxaropentsu agertu da Ezpeleta: "Momentuz, behintzat, ezin dugu zerbitzua lehen bezala eman, baina, erabiltzaileen segurtasuna bermatuz, egoerara moldatu eta ahalik eta zerbitzurik aberatsena eskaintzen saiatuko gara".

Udaletxea eta Suradesa

Beste udal zerbitzu batzuk ere martxan jarri dira berriz ere. Hala, udaletxearen aurrez aurreko zerbitzua abian da astelehenetik. Hala ere, kontsultak telefonoz edo posta elektronikoz egitea aholkatzen da. Suradesa zerbitzua ere martxan da berriz. Astelehenetan egongo da esku-ragarri, 09:00etatik 10:00etara.



Pabiloi berria, Pagatza industrialdean. I.A.

9.400 metro koadroko pabiloia zabaldu du IDR taldeak herrian

Servimasa enpresa Pagatza industrialdean dago jada, eta martxan hasi dira, hamabi langilerekin

Naroa Urien Berrio ELGETA

Lau enpresak osatzen dute gaur egun IDR taldea. Enpresa horiek dira tenperatura handietarako isolamenduak egiten dituen IDR, sukaldako eta bainuko altzariak egiten dituen Servimasa, siderurgiako osagaietan espezializatutako Sidermes eta aluminiozko estrukturalak egiten dituen OSG.

Azken ukituetan lanean

Taldeak 9.400 metro koadroko planta zabaldu du Elgetako Pagatza industrialdean. Servimasa enpresako gerente Ion Agirre-

beñak baieztatu du inbertsio handia egin duela taldeak pabiloi berria egiteko, eta obrak bukatzeaz daude jada: "Obrak egin ditugu, sukalden espozizioa amaitzea eta dekorazio xehetasun batzuk falta zaizkigu bakarrik, baina martxan gaude".

Servimasa enpresako planta berriak 12 langile ditu, eta, nahiz eta bide korapilatsua izan, itxaropentsu agertu da Aguirrebeña: "Ez da erraza izan; argindarrekin eta zuntz optikoarekin atzerapen asko eduki ditugu. Baina orain martxan gaude eta ilusio handia daukagu".



L.Z.

Kolonbarioa hilerrian

Udalbatzak onarpena eman zion Elgetako Udalerrian kolonbario zerbitzua arautzeko ordenantzari. 8.000 euro kostatu den obraren ostean, kolonbarioak udal hilerrian daude, eta herritar bakoitzak errauts-kutxatila bakarra gorde dezake. Arautegi osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dago ikusgai, eta Udalaren webgunean.

Guztira, 16 dirulaguntza eskaera jaso ditu Udalak

13.500 euro pasatxoko dirulaguntza banatuko du ondorengo egunetan Udalak herriko komertzioen, tabernen, jatetxeen eta ile-apaindegien artean, besteak beste. Hain zuzen, 16 establezimenduk egin dute COVID-19ari aurre egiteko diru-eskaera



Herritarrak, Herriko Plazan, ilaran, erosketak egin ahal izateko zain. MAIDER ARREGI

Maidar Arregi ANTZUOLA

Joan den astean amaitu zen COVID-19ak eragindako kalteak arintzeko Antzuolako Udalak abian jarri zuen dirulaguntza eskaera egiteko epea.

Eskaera guztiak aztertu dituzte jada, eta asteon Lege Dekretua aterako dutela adierazi du Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak. Nabarmendu du ordainketak ere ahal bezain azkar egiten hasiko direla laguntza eskatu duten herriko jatetxeen, tabernen eta komertzioen artean, besteak beste.

Guztira, 16 establezimenduk egin dute eskaera: herriko taberna eta jatetxe guztiek, lau ile-apaindegik, herriko landetxeak, mertzeria batek eta altzari dendak egin dute dirulaguntza eskaera.

Hala, bi hilabeteko itxieragatik Udalak 13.500 euro pasatxoko laguntza bideratuko du. Diru banaketa honela egitea dago jasota dekretuan: lokal bakoizteko eta hilabeteko 400 euro.

Langile bat kontratatuta izanez gero, aldiz, 100 euro hileko. "Adibide bat jartzearen: taberna batek, esaterako, bi hilabete itxita egon izanagatik 800 euro jasoko ditu; bi langile baditu, 400 euro; guztira, mila eta berrehun euro. Ordainketa berehala egingo dugu, Lege Dekretuarekin batera. 13.500 euro pasatxo bideratuko dugu. Oraindik, baina, diru partida dezente dago. Izan ere, 60.000 euro jarri genituen dirulaguntza poltsan. Ez genekien zein izango ote zen egoera eta jatetxeak zenbat denbora egongo ote ziren itxita. Guk urte osorako aurreikuspena egin dugu. Baina alarma egoerak egoten jarraitzen du eta ez dakigu zer gertatuko den. Gainera,

DIRULAGUNTZA EZ EZIK, TERRAZAK HANDITZEKO AUKERA ETA LAGUNTZA ERE EMAN DU UDALAK

taberneak eta jatetxeek, oraingoz, ez dute %100ean irekitzeko aukerarik. Datorrenaren arabera ikusi eta aztertuko dugu zer egin", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Ahalegina, begi onez ikusia

Oro har, laguntza eskatu dutenek Udalaren ekimena begi onez hartu dutela aitortu diote GOIENARI. Mox tabernako Sergio Sanchez ugazaba da dirulaguntza eskatu duenetako bat, eta balioa eman dio Udalaren ahaleginari: "Pertsonak lehenetsi dituzte, eskertzekoa da. Dirulaguntza ez ezik, terrazak handitzeko aukera eman digute, eta egunotan lan asko eta hobeto egiteko aukera izan dugu. 800 euro jasoko ditut, gustura hartu ere, bi hilabete diru sarrerarik gabe egotea ikaragarria da eta. Udalaren proposamena izan da, eta eskertzen dugu, euren iniziatiba izan da; guztiz baloratzekoa, nire ustez. Bestela, herria hilda geratuko litzateke".



Galeano ahizpak martitzeneko entrenamendu saioan. J.M. GALEANO

Galeanotarrek finalerdia jokatu dute hilaren 26an

Emakumezko Master Cup txapelketak finalerdia eta finala ekainaren 26an eta 28an jokatzeko aurreikusitako du

Maidar Arregi ANTZUOLA

COVID-19aren ondorioz Galeano ahizpek entrenatzeko aukera mugatuak izan dituzten arren, desiratzen daude Emakumezko Master Cup-eko finalerdia jokatzeko. "Jada uste genuen ez zela jokatu, baina ilusioz gaude eta oso pozik erabakiarekin; partidu guztiak irabazten gertatzen, eta pena izango litzateke". Azken bi hilabeteotan, ahal bezala egin dituzte entrenamenduak. "Etxeko hormetan eskuak egiten ibili gara; eta arrabolean ere aritu gara. Ziurtagiri batekin, ordea, pilotalekura joateko au-

kerare ere izan dugu, eta ondo erantzun dugu; pixkanaka, geneukan sasoia berreskuratzen hasiak gara", diote Galeano ahizpek. Ilusioz daude, finalerdia jokatzeko aukera izango dutelako. Pilota Goxoa kategorian teknikoki onak diren aurkariak dituztela diote: Ainhoa Ruiz de Infante eta Amaia Jaka.

Asteburu erabakigarria

Master Cup-eko antolakuntzak finalerdia eta finala bata bestearen atzetik jokatzeko erabaki du, ekainaren 26an eta 28an, hurrenez hurren, Elgoibarren.

GORA ETA BEHERA



Herria garbi izatea denon ardura da



Herriko zaborrontzi-guneak eta espazio publikoa garbi izatea denen betebeharrak dela gogorarazi gura du herritar batek. Are gehiago, COVID-19a gure artean bizi dela ikusita.



Bertso saio ibiltariaren lehen geltokia Herriko Plaza izan zen; adi-adi jarraitu zuten herritarrek. GOIENA

Herri bat, eta zazpi plaza bertsoan jarduteko

Babes neurri zorrotzekin, bakoitza bere maskara jantzita eta distantzia mantenduta egin dute asteburuan bertso saio ibiltaria. Bertsozaleak eta antolatzaileak pozik azaldu dira bertso-trikiti saio emankorrarekin. Saioa osorik, 'www.bertsoa.eus'-en

Maidar Arregi ANTZUOLA

Berezia eta hunkigarria izan zen, inondik ere, zapatuan herritarrek eta bertsoari bizi izan zutena. Maialen Lujanbiok, Miren Amurizak eta Beñat Gaztelumendik udaletxeko balkoitik abestu zuten lehenengo, eta ondoren, udal kamioi gainean herriko sei auzo eta sei plaza ezberdin bisitatu zituzten.

Segurtasun neurriak betetzea zen helburua, eta horrela izan zen. 70 bat entzulek jarraitu zuten hiru bertsoari udaletxeko balkoitik egindako saioa, plazan. Nor bere eserlekuan eta maskara jarrita entzun zituzten Beñardo Kortabarria alkateak jarritako gaiei erantzunez bertsoari botatuko bertsoak. Askotariko gogoetak eta txantxak

proposatu zituzten. "Bertsozaleak ez dira sekula gaur besteko jarraitzaile izan", bota zuen Gaztelumendik. Antzuolarren antolaketarako grina ere goraiatu zuten bertsoari. Kultura agendak zuri egon diren sasoi honen ostean lehen saioa balitz moduan sentitu direla ere esan zuten. Bai entzuleek, bai bertsoari eskertu zuten saioa.

Auzoz auzo

Trikitilariek aurretik eta bertsoari kamioian ondotik egin zuten bidea. Lehenengo geldialdia, Errekalde; ondoren, Antigua, Ibarrondo, Sagasti, Eguzki eta Beheko auzoa. Balkoietatik entzun zituzten bertsoak auzotarrek.

Irailtik aurrera emango dute Antzuolako bertso saioa *Hitzetik hortzera*-n. Baina jada *www.bertsoa.eus*-en ikusgai dago.



Antigua auzoko bertso saioa. GOIENA



ANTZUOLAKO UDALA

Aurpegia babesteko pantailak

Antzuolako Erreka Group enpresak aurpegia babesteko 200 bat pantaila eman dizkio Udalarri. Merkataritzaren zein zerbitzuen alorretan diharduten langileei banatu zaizkie. "Etxez etxeko zerbitzuan dihardutenei, saltoki eta azokako langileei... banatu dizkiegu; norbaitek nahiko balitu, udaletxean ditugu, eta jaso ditzake", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Antzuola Saria lasterketa bertan behera geratu da

Zalantzak zalantza, azkenean, Antzuolako Udalak eta Aiaastui taldeak hartu dute erabakia: aurten ez da Iñaki Leteren omeneko Antzuola Saria txirrindularitza lasterketa jokatu. Berez, uztailearen 12an zen jokatzea lasterketa, herriko jaien baitan. Baina alarma egoerak dena kolokan jarri du eta lasterketa aurten ez jokatzeke era-

bakia hartu dute antolatzaileek eta udal ordezkariak.

1946tik, urtero-urtero, etenik gabe jokatu da txirrindularien Antzuola Saria. Gaur egun, 23 urtez azpikoen mailako proba da, eta Lehendakari txapelketarako puntuagarria, gainera.

Martxoan jokatzeko den jaiorren Uzarragako igoera, berriz, egitea erabaki du Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak. Hala, irailaren 26ra atzeratu dute, eta egoerak baliatzen badu egin egingo dela iragarri dute.



'EZ DUT MOZTUKO BIZARRA'

Presoen eskubideen alde

Bi hilabete pasatxoren ostean, abian dira euskal presoen eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratzeak. "Dispertsioaren kaltea are larriagoa da une honetan. Bisitarik ere ez dute jasotzen. Hala, egubakoitzero, Herriko Plazan leku zabala hartuz, 19:00etan batzen gara, segurtasun neurri guztiekin", jakinarazi du *Ez dut moztuko bizarra* taldeak.

Oihana Elortza OÑATI

Badator uda, baina ezohiko udazateko itxura guztia du aurten goak. Aste batzuk edo hilabete batzuk barru egoera zelakoa izango den ezin jakinda, kanpora ateratzeko gogoia bai, baina mesfidati daude herritarrek. Hori da, behintzat, Oñatiko ostatueta sumatzen dutena. Prest dituzte logelak, oheak eta jangelak, baina normalean baino askoz dei gutxiago ari dira jasotzen.

Turismoa eta industria

Joan den asteburuan, eguraldi ona lagun, lurraldeko beste herri batzuetako jende asko etorri zen Oñatira asteburu-pasa. Arantzasun autokarabana asko zeuden zapatuan eta San Martingo gunean ere furgoneta eta autokarabana dezente egon ziren egubakoitzetik domekara bitartean. Eta datozen asteetan, behintzat, joera hori errepikatu egingo dela uste dute herriko ostatu jabeek; asteburu-pasa bai, baina lo-lekua norberak ekarrita.

Horrekin konturatu da, esaterako, Ongi Etorri hoteleko Belen Martin, horrelako ibilgailu asko egon direla asteburuan Oñatin. Turistekin baino gehiago langileekin lan egiten dute Ongi Etorri hotelean, herriko enpresetara kanpotik etortzen direnekin. "Baina lana ere asko jaitsi da. Gainera, konfinamendu garai honetan, ikastaroak zein bilerak online egiten ikasi dute, eta horrela egiten jarraitu dezakete. Ez dakit zer gertatuko den. Aurten, akaso, turistendako iragarriak egin beharko ditugu, baina ez dakit horiek ere etorriko diren. Aurten herritar gehiago gelditzen bada Oñatin udan, tabernak beste uda batzuetan baino gehiago emango digu. Nork daki", dio Martinek.


Etxe Aundiko Marga Romariz ere "konbentzita" dago aurten aldaketak egin beharko dituztela: "Guk, normalean, itxi egiten dugu hotela bi astez abuztuan, baina aurten hilabete osoan izan beharko dugu zabalik. Udaberriko ospakizunak ere ez da egon, ez jaunartze, ez antzekorik, eta ez dakit familiarteko ospakizunak egiten ere noiz hasiko diren herritarrek, ekonomia ez da batere ona eta. Ahal dugun toki guztietan ari gara gure berri ematen, bisitariak erakartzeko. Baina etorkizuna oso beltz ikusten dut nik".



San Martingo autokarabanen gunea, joan den domeka goizean. MIREN ARREGI

Normalean baino askoz dei gutxiago ari dira jasotzen ostatueta

Uztailerako erreserba gutxi eta abuzturako askorik ez, oraingo; horixe da Oñatiko ostatueta egoera. Aurreko urteetako besteko uda ona ez dela izango uste dute, baina prest dituzte lo-lekuak eta jangelak bisitariak hartzeko. 348 ohe daude Oñatin




MIREN MAIZTEGI
GOIKO BENTA OSTATUA

"Oso uda arraroa izango da. Sasoi honetan deiak jasotzen aritzen gara, eta aurten ez da horrela. Ekaina trantsizioa izango da, eta gero, ikusi behar zer gertatzen den".



IÑAKI ARKAUZ
ARREGI LANDETxea

"Abuztua nahiko beteta dugu eta uztaile ere ari da betetzen, baina poliki. Estatuko familiak dira etorriko diren gehienak; atzeritik etorritako turistarik ez dugu, oraingo".



MARGA ROMARIZ
ETXE AUNDI HOTELA

"Oso beltz ikusten dut. Corpus jaiak, ezkontzak, jaunartzeak... ospakizun guztiak bertan behera. Lan kontua ere gaizki dago eta jendeak ez du dirurik izango ospakizunak egiteko".




BELÉN MARTÍN
ONGI ETORRI HOTELA

"Etorkizun iluna ikusten dut. Guk langileekin ere asko egiten dugu lan, baina enpresak ez doaz hain ondo eta ikastaroak eta bilerak online egiten hasi dira orain. Beltz ikusten dut".



JULEN ARABOOLAZA
SINDIKA HOTELA ETA BORDAK

"Hotelean erreserba gutxi ditugu eta bordan gehiago, baina inola ere ez ditugu espero aurreko urteetan eduki ditugun zifrak. Kostako zaigu lehengo egoerara bueltatzea".



EDURNE GOROSTIDI
ZUMELTZEGI DORREA HOTELA

"Ekainerako eta uztaileko baditugu erreserba batzuk eginda. Udan beteta egotea espero dut, baina uste dut jende asko azken unera arte zain egongo dela".

Baikortasun puntu bat

Zumeltzegi dorrean eta Arregi landetxean, berriz, baikorra da. "Guk zortea izan dugu, eta, Osasun Sailaren eskaeratik bada ere, ez dugu itxita eduki hotela, eta gutxi, baina egin dugu lan kanpotik hemengo enpresetara etorri diren langileekin. Logeletako eta beste espazio batzuetako dekorazioa aldatu egin dugu, ahalik eta elementu gutxien egoteko. Turistendako, aurreko asteburuan zabaldu genuen. Uztaileko, baditugu Valentziako, Kataluniako eta Madrilgo erreserba batzuk. Dena dela, uste dut askok azken orduan erabakiko dutela etorri edo ez, egoera zein den kontuan hartuta", dio Edurne Gorostidik.

Arregi landetxeko Iñaki Arkauz da, akaso, etorkizuna baikorren ikusten duena. "Hirugarren fasean sartuko gara eta hor aldatetako etorriko dira eta ekainean ere jendea mugituko dela uste dut. Guk abuztu erdia beteta dugu dagoeneko eta uztaileko ere tokia hartu dute batzuek. Familiak etortzen dira, gehienbat; eguna inguruak ikustera joateko aprobetxatzen dute eta iluntzerako bueltatzen dira, lasai egon eta atseden hartzeko".

Arantzazu, betiko bisita-leku

Arantzazun, berriz, tentuz begiratzen diote datorrenari. Egoera zein den ikusita, aurreko urteko udan aldean aurtengoa eskasagoa izango den ziurtasuna dute, baina badute lan egiteko esperantza. Goiko Bentako Miren Maiztegi, esaterako, ekaina modu horretan pasako dela uste du, "trantsiziozko hilabetea" izango dela. "Orain arteko dena jausi egin da eta uztaile ere makala izango dela dirudi. Guk Inaziotar Lurraldeko eta gazten ibilbideekin ere oso ondo egiten dugu lan, baina horiek ere bertan behera gelditu dira. Abuzturako ditugun erreserbak, aldiz, mantendu egiten ditugu. Egia da, baina, euskaldunak hasi direla deitzen eta galdetzen ostatu zabalik ote dugun, eta baliteke abuztuan zertxobait betetzea. Baina uda arraroa izango da, bai".

Bordetan eginda dauden erreserbak konfinamendu aurretik egindakoak dira, eta bertan behera geldituko diren beldur da Julen Arabaolaza. Sindika hotelean ere ez dituztela erreserba asko dio: "Europatik eta Estatu-

tik etortzen diren turistak izaten ditugu gurean, normalean. Aurten badirudi gehienbat turismo nazionala izango dugula, baina dena ikusteko dago. Euskal Herrira hurbiltzen diren turistak, normalean, kosta ingurura mugitzen dira, eta gutxiago barnealdera. Azken urteetan asko igo da turismoa hemen, eta kostako ostatuak betetzen joan diren heinean hasi da jendea barnealdera hurbiltzen. Aurten jende gutxiago mugitzen bada, ikusi egin beharko da zenbat turista izango ditugun, baina inolaz ez ditugu espero aurreko urteetan eduki ditugun zifrak".

348 ohe daude Oñatin

Ostatu hartzeko denetarikoa aukeratu Oñatik: hotela, landetxea, aterpetxea, autokarabanan gunea, ostatua... Guztira, 348 ohe daude, baina kategoriatan edo gustu ezberdinetakoak dira. Eta aukera zabal hori egotea aberasgarria da herriarendako, duda barik. Gainera, estilo askotariko ostatu motak izateaz gain, bereizgarri egiten dituzten zerbitzuak edo elementuak ere badituzte. Esaterako, Zumeltze-

gi dorreak paretan artean gordezten duen historia, Goiko Bentan dauden Oteiza eta halako artista euskaldunen artelanak, eta Sindikako borden luxua, batzuk aipatzearen. Turistak ondo hartzeko, erosotasuna eskaintzeko, eta eurei zerbitzu emateko guztiek egiten duten etengabeko lana ahaztu barik.

Herri turistikoa da Oñati eta uda askotan beteta egon dira zerbitzu guztiak, ohe guztiak. Aurten, baina, hori ez dela gertatuko uste dute ostatu jabeek, eta zenbateraino hutsik edo beteta egongo diren ez dakite. Hala ere, euren ahalegin guztia jarri dute lo eta jan lekuak bisitariendako behar bezala egokitzen, adituek eskatutako segurtasun neurriak hartzen. Esaterako, *checking*-a modu ordenatuan egingo dute, jende asko ez pilatzeko, eta egun batzuetako egonaldia egingo duten bezeroei jangelan beti mahai eta eserleku berdinak erabiltzeko eskatuko diete. "Bezeroek egoera zein den badakite eta hartutako neurriak eta arauak kontuan" hartuko dituztela uste dute ostatuen jabeek.

Turismo Bulegoan deiak


Eta herriko ostatuak eta jatetxeak turistak hartzeko prestatzen aritu diren bitartean, Turismo Bulegoa eta Arrikruz kobak kudeatzen dituen Oinatur kooperatibako langileak ere bisitariak hartzeko aurretiazko lanak egiten ibili dira. Atzo, eguena, ziren, esaterako, Arrikruzera joatekoak, manpara jarri eta gelak eramateko. Turismo Bulegoak, esaterako, ohiko ordutegia izango du ekainean zapatutik aurrera. Orain artekoak baino txikiagoak izango dira bisita gidatuetako taldeak, baina herriko ondarea erakusteko moduan egongo dira aurrerantzean ere, musuko edo maskarekin izan arren.

Deiak ere jaso dituzte astean. Arrikruzen, esaterako, lau zapatu jaso dituzte egunero, batez beste. Era guztietako deiak izan dira, gainera. Batek, adibidez, Oartzundik Arrikruzera autobusean nola joan daitekeen galdetuz deitu du. Beste batek, Donostiatik, familiarekin batera etortzeko erreserba egin du; gaztetxoak zela egon zen Arantzazun baina harrezkero ez, eta familiarekin bueltatzea erabaki du oraingoan, bide batez kobak ikusiaz. Urbiako fondaren berri jakiteko ere deitu du batek baino gehiagok, zabalik ote dagoen galdezka. Arabatik deitutako neska batek, berriz, kobetako bisitaren inguruko informazioa eskatzeko deitu du, "probintzien arteko mugikortasuna baimentzen dutenean joateko intentzioa" duelako.

Parketxea ere zabalik dago

Aste bukaeran, zapatuan zabalduko dituzte zerbitzu biak, eta, Turismo Bulegoak ohiko ordutegia izango badu ere, Arrikruz "poliki-poliki hasiko da, egunean hiru bisita egiten", Ikerne Altube teknikariak azaldu duenez. Txokolateixia, aldiz, denda moduan zabalik dagoen arren, ez ditu, oraingoan, bisitak hartuko.

Arantzazuko parketxea, bestalde, astean zabaldu dute, Gipuzkoako beste parketxeekin batera. Eta ekainerako egitaraua zapatuan estreinatuko dute hegazi sarraskijale bila abiatuko dira GPSarekin. Domekan, Arantzazu inguruko paisaiak ikusteko irteera egingo dute. Ekaineko gainerako asteburuetan ere egingo dituzte irteerak parketxetik abiatuta.



Maiatzeko osoko bilkura ere telematikoa izan da. O.E.

342.000 euro bideratuko die Udalak negozio txikien jabeek

COVID-19ak ekarritako egoera arintzeko dirulaguntza da; uztailaren 30a aurretik egin behar dira eskaerak

O.E. OÑATI

COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean, Oñatiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko enpleguari eta jarduerari eusteko ezohiko dirulaguntzak emango ditu Oñatiko Udalak: 342.000 euro guztira. Horixe erabaki zuen udalbatzak, aho batez, maiatzeko osoko bilkuran.

Baldintzak bete behar dira

Dirulaguntza hori eskatzeko, baina, hainbat baldintza bete behar ditu hirugarren sektoreko langileak. Hainbat astez itxita eta jarduerarik gabe egon diren hirugarren sektoreko autonomoek eta hamar langile baino gutxiago dituzten mikro-entrepresen arduradunek eskatu dezakete laguntza hau, baldin eta egoitza fiskala eta lantokia Oñatin badute, Ekonomia Jardueren gainera Zergan Oñatin alta emanda badute eta Oñatiko

Udalarekiko, Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean badauzka. Gainera, alarma egoera amaitutakoan lan jarduerarekin berriz hastea, edo horri eustea, eta hurrengo sei hilabeteetan gutxienez alta egoeran egotea.

Laguntza honen helburua negozioen gastu finkoei aurre egitea da. Horrela, establezimendua itxita egon den hilabete bakoitzeko 300 euro emango ditu Udalak; langile kopuruaren arabera, langile bakoitzeko eta hileko, 35 eta 60 euro artean, eta argindar, ura eta hondakinen bilteta gastuak arindu ahal izateko dirulaguntzak ere emango dira. Negozio bakoitzak, gehienez, 2.000 euro jaso ahal izango ditu.

Eskaerak uztailaren 30a baino lehen egin behar dira udal webgunean dagoen eskaera orria beteta. Eskaerak jaso ahala emango du Udalak dirulaguntza.



Talde bat Arrikruz koba ezagutzen. GOIENA

Herriko turismo zerbitzuak, zabalik

Arrikruz kobak eta Oñatiko Turismo Bulegoa asteburuan, zapatuan, zabalduko dituzte, herrira datozen turistek zerbitzu emateko. Egoerak eskatzen dituen segurtasun neurriak hartuko dituzte batean zein bestean. Esaterako, taldeak orain artekoak baino txikiagoak izango dira; Arrikruzen, 15ekoak, gehienez. Bestalde, erreserbak aurretik hartuko dituzte telefono bidez, eta kreditu txartelarekin ordaintzea eskertuko dute. Musukoa edo maskara eramatea derrigorra izango da.

Arrikruzen, hiru bisita gidatu egingo dituzte egunean: 11:00etan, 13:00etan eta 17:00etan. Astebururako dagoeneko badituzte erreserba batzuk eginda, eta informazioa eskatzen edo erreserbaren bat lotzeko lau zapatu dei jasotzen dituzte egunero. Gipuzkoa barrutik jaso dituzte dei gehienak.

TAO sistema martxan dago berriz ere erdiguneko kaleetan

Martxo erdialdean bertan behera gelditu zen TAO sistema, baina indarrean dago berriz; aste honetan, astelehenean, jarri zuten martxan. Beraz, koloretako guneak kontuan hartu behar dira aurrerantzean ibilgailua aparkatzeko orduan. Bestalde, kale eta auzoetako komun publikoak ere irekita daude.



Bidebarrieta kalea. O.E.

Krisi Mahaia amaitu da, egoera hobea delako

Orain arteko ibilbideaz balorazio ezberdina egin dute mahaiko kide izan diren EH Bilduko eta EAJko ordezkariak: Udal Gobernuko kideen ustez, oposizioak ez du lanketa zehatzik egin; eta jeltzaleek diote hasieratik egin dituztela proposamenak

Oihana Elortza OÑATI

Apirilaren lehen astean eratu zen Oñatin Neurri Ekonomikoen Mahaia, EAJk proposatuta. Harrezkero, astero batu dira hor alderdi bietako udal ordezkariak eta hainbat udal teknikari, COVID-19 gaitzak eraginda herriko hainbat sektore izaten ari diren kalteak arintzera bideraturiko neurri ekonomikoak zehazteko. "Egoera bestelakoa dela iritzita", azken bilera izan da aste honetako. Hala ere, ez da erabat deseginda geratu mahaia: behar berriak sortuz gero berriz batzeko aukera zabalik dago; unean uneko beharrek hala eskatuta batuko litzateke Neurri Ekonomikoen Mahaia aurrerantzean.

Herriko komertzioetako langileei laguntzak ematea zein gizarte zerbitzuetan jasotako beharrei erantzuteko bideak jartzea adostu dituzte, esaterako, mahai horretan. "Maiatzeko osoko bilkuran onartutako dirulaguntza ere martxan jarri da aste honetan, eta orain, horri guztiari jarraipena egitea dago-kigu", adierazi du alkateak, Izaro Elorzak.

Balorazioan, iritzi ezberdinak

Neurri Ekonomikoen Mahaiaren balorazioa egin du Udal Gobernuak. "EAJren proposamena izan zen mahaia eratzea, eta ondo iruditu zitzaigun, ideiak eta proposamenak beti dira-eta ongi etorriak". Baina mahai hori ez dela espero bezain emankorra izan dio Udal Gobernuak: "Oposizioaren ekarpen zehatzik izan ez delako". Izaro Elorzak azaldu duenez, mahaiaren hartutako erabaki guztiak aho batez hartu dituzte: "Eta hori pozgarria da; eramandako ideia guztietan adostasuna lortu dugu, baina oposizioak apenas egin du landutako proposamenik. Agian, izan daiteke guk genituen asmo berak izatea beraiek ere, eta



Oñatiko Foruen plaza. OIHANA ELORTZA

BEHARRAK ESKATUZ GERO, BERRIRO ERE BATUKO DA NEURRI EKONOMIKOEN MAHAIA

guk gaia landuagoa izatea eta ondo ikustea, ez dakit. Azken finean, elkargune informatibo bat izatera mugatu dira bilera horiek".

EAJk, berriz, bestelako iritzia du. "Positiboa eta aberasgarria izan da mahai hori. Teknikariak lan izugarria egin dute, eta eskertzekoa da", dio Ainhoa Galdosek, alderdi jeltzaleko udal bozeramaileak. Gaineratu du "hasieratik" ari direla proposamenak egiten: "Zein egoera etor zitekeen ikusita, martxoan proposatu genuen diru partida bat gordetzea honek sortu ahal zituen kalteei erantzuteko. Herriko dendetan erabiltzeko bonuen proposamena ere geurea izan zen. Herri ezberdinetan hartutako adibideak jaso eta landu genituen. Gero, guztion artean erabaki genuen plataforma horren bitartez banatzea bonuak,

baina ideia guk jarri genuen mahai gainean. Kultur foroa sortzea ere proposatu genuen, eta hori ez da onartu. Udal Gobernuak du kudeaketaren ardua eta berak ditu baliabideak. Baina guk argi izan dugu hasieratik ezin genuela kritikara mugatu eta soluzioaren parte aktibo izan nahi genuela, eta horretara bideratu ditugu gure indarrak". Galdosek esan du Udal Gobernuko kideekin eta teknikariekin batera ari direla lanean mahai horretan eta "teknikoki eta politikoki egindako lanetaren fruitu" izan direla azken osoko bilkuran onartutako neurriak.

Elkarlana aurrerantzean ere

Egungo egoera hau bada ere, alderdi biek adierazi dute aurrerantzean ere elkarlanean jarraitzeko gogoia eta prestutasuna. Tokian tokiko beharrei erantzuteko prest agertu dira EH Bilduko zein EAJko udal bozeramaileak, eta herritarrei laguntza nola eskaini landu eta proposamenak egin eta denen artean eztabaidatzeko eta aztertzeke. Bitartean, irekitako laguntzen jarraipena egingo dute.

Irailaren 19an egingo da aurtengo Oñatiko mendi martxa

Proba ezin eginga ere gerta daitekeela onartzen dute antolatzaileek, baina izen ematea zabalik dago

O.E. OÑATI

Oñatiko mendi martxaren antolatzaileek probarekin aurrera egitea erabaki dute, eta aurtengo irailaren 19an egingo dela jakinarazi. Jakitun dira orduko egoera zein izango den ezin daitekeela orain jakin eta posible dela proba ezin egin izana gertatzea, baina seigarren mendi martxa antolatzen hasi dira dagoeneko.

Aurten ere bi ibilaldi egongo direla aurreratu dute, betiko moduan, bata bestea baino luzeagoa. Eta biak izango dira

Oñatiko plazatik abiatu eta han amaituta eta bata luzeagoa bestea baino. Eta, aurreko edizioetan moduan, aurtengo martxa biak Oñatiko lurretan barrena egingo dira.

Irailaren 19an izango da Oñatiko mendi martxa eta izen ematea www.kirolprobak.com webgunean zabaldu dute. Federatuek 12 euro ordaindu beharko dute izen ematea eta ez federatuek, 14 euro. Proba ez bada egiten parte-hartzaileek izen ematearen dirua bueltan jasoko dutela bermatu dute antolatzaileek.

"Emaitzarekin pozik" amaitu dute aurtengo Eskola Kirola

Oñatiko Eskola Kirola antolatzen ibiltzen diren arduradunek, koordinatzaileek eta hezitzaileek eskerrak eman gura dizkiete aurtengo ikasturtean Eskola Kirolean parte hartu duten ume guztiei. "Emaitzarekin pozik" daude. Bideo batean jaso dute urtearen laburpena, eta bertso bat egin, *Aldaketaz beteriko urte aberasgarri bat* izenburupean.



Eskola Kiroleko begiraleak. R.L.

NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Beharrezkoak

Konfinamendu garaian, behar-beharrezkoak diren autoak bakarrik saldu omen dira, auto saltzaile batek aipatu du hori egunkari batean. Krisian sartu dira kontzesionarioak eta autogintza. Ateratzeko, beraz, behar-beharrezkoak direnak baino auto gehiago saldu behar dira, eta agintariak, horretaz jabetuta, enegarren Renove plana egin dute. Autogintzakoak dira Euskal Herriko enpresa handienak, milaka langile ari dira horietan. Beste milaka asko autogintzaren arloan. Auto asko saldu beharra dago guztiek soldata bat izateko. Albiste ontzat jotzen da autoen salmenten igoera, baina txanpon horrek badu bere ifrentzua: auto gehiago egoteak esan nahi du kutsadura gehiago, zarata gehiago, asfalto gehiago eta autoa oinarri duen bizimodu bat. Beharrezkoak direnak baino askoz auto gehiago saldu behar dira bizi garen ekonomia, kapitalista eta kontsumista krisian ez egoteke. Ez bakarrik autoak; ekonomia horretan geroz eta leku gehiago dauka beharrezkoak ez diren produktuen kontsumoak, eta horientzat jasanezin bihurtzen da oraingoa bezalako egoera. Pandemia honek balioko ote digu kontsumo ohiturei buruz gogoeta egiteko?

Umoretik joango da gaur bakarrizketa saioa

'ESKU-LTU-RA Kultura eskura' programa jarri du abian Udalak, udara begira. Egitarau oparoa antolatu dute; doako ekintzak egingo dituzte, baina edukiera mugatuarekin. Barry Manley bakarrizketari irlandar-euskaldunak irekiko du egitaraua, gaur gauean

Maialen Santos OÑATI

Oñatiko udaletik *ESKU-LTU-RA Kultura eskura* programa osatu dute ekainera, uztaileta eta abuztura begira, eta zenbait ekintza antolatu dituzte hilabete horietarako. Udaleko Kultura zinegotzi Inaki Olalde azaldu duenez, *Kalean* egitasmoaren "espirtua" gordetzen saiatu dira egitarauaren bitartez: "Orain arte, kultura ekitaldirik ez da egon, eta, nolabait, galdutakoa berreskuratu gura dugu". Gaineratu duenez, urteko sasoi honetan auzoetako jaietan kontsumitzen da kultura, eta, horien faltan, programa honen bitartez "aktibatu" gura izan dute, baita herritarren "eskura" jarri ere. Bide batez, kulturara bideratzeko aurrekontuetan zehaztutako diru partidak baliatuko dituzte udarako egitaraua osatzeko.

Ekintza gehienak aire librean egingo dituzte –espazio ezberdinetan– eta guztiak doan izango dira. Edozelan ere, edukiera "mugatu" egingo dute; arrazoi horregatik, ekintza guztietarako txartelak aurrez eskuratu behar dira, www.oñati.eus webgunean edota Txokolateixan.

Bakarrizketa saioa, gaur

ESKU-LTU-RA Kultura eskura programari ekiteko, gaur, 22:00etan, umorezko bakarrizketa saioa eskainiko du Barry Manleyk, Santa Ana aretoan. Irlandarra jaiotzez, Euskal Herria du orain bizitoki bakarrizketariak, eta "euskaraz bizi" gura duela azaldu dio GOIENARI; euskaraz egiten ditu *show*-ak. Aitortu duenez, "ohorea" eta "pribilegioa" da Udako Kultura agenda zabaltzea, eta dio konfinamenduaren ostean egingo duen lehenengo saio presentziala izango dela, online bidez jardun baita orain artean: "Baikorra naiz, eta jendearen erantzuna ona izango delakoan nago. Hala izatea espero dut".



Barry Manley bakarrizketalaria. B.M.

Bakarrizketak egiten hamar urte daramatzen arren, kantuen sorkuntzan ere badihardu irlandar-euskaldunak, eta horiei, berak sortutako letrak jartzen dizkio. Hain justu, kantuek ere izango dute tokia gaurko saioan; izan ere, bost kantu inguru eskainiko ditu emanaldian zehar –lau euskaraz eta bat gaelikoz–, eta kanta bakoitzaren ostean horri lotutako istorio bat kontatuko duela aurreratu du, "umoreaz baliatuta". Azaldu duenez, Euskaraldiari buruzko kanta batekin hasiko du bakarrizketa, eta, barre eragiteaz gainera, ikusleak "hausnarketara" bultzatzea izango du helburu.

'ESKU-LTU-RA' egitaraua

Hauek dira udara begira antolatutako ekintza guztiak:

- **Ekainak 10** *Tuppersex eta ipuin erotikoak* lantegia, Virginia Imaz eta Inma Merinorekin. Zine aretoan, 17:30ean.
- **Ekainak 12** Aire libreko zinema: *La Mujer de la Montaña*. Plazako pilotalekuan, 22:30ean.
- **Ekainak 14** Musika Banda eta txistulariak. Larrazagako lorategian, 13:00etan.
- **Ekainak 18** Solasaldia: *Miñan* liburua. Amets Arzallus eta Ibrahima Balderekin. Zine aretoan, 19:00etan.
- **Ekainak 19** Aire libreko zinema: *Black is beltza*. Plazako pilotalekuan, 22:30etan.
- **Ekainak 26** Ganbara eta Hots abesbatzak: *Uraren doinuak*. Lazarragako lorategian, 22:00etan.
- **Ekainak 27** Musika Eskola: *Herrixa Kantuan*. Plazan, 12:30ean.
- **Uztailak 1** *Baldin bada* familientzako ikuskizuna, Shakti Olaizolaren eskutik. Olaiturrin, 19:00etan.
- **Uztailak 5** Bakarrizketa: El Chef. Lazarragako lorategian, 19:00etan.
- **Uztailak 8** Kontzertua: Dama Beltzak. Lazarragako lorategian, 19:00etan.
- **Uztailak 17** Kontzertua: Ainhoa Larrañaga eta banda. Lazarragako lorategian, 19:00etan.
- **Uztailak 19** Musika Banda eta bertso saioa. Lazarragako lorategian, 13:00etan eta 19:00etan.
- **Uztailak 26** Eleder magoa. Lazarragako lorategian, 17:00etan.
- **Uztailak 30** Kontzertuak: Bizarro eta Sharon Stoner. Gaztelekuan, 22:30ean.
- **Abuztuak 30** *Zinemaz blai* familientzako ikuskizuna, Zirika Zirkusen eskutik. Errementeri plazan, 19:00etan.



Aita-alabak, umeen liburutegian, etxera eramateko liburua aukeratzen. M.S.

Haurren eta helduen liburutegiak zabalik daude dagoeneko

Erabilera mugatuta dago; mailegu zerbitzua ari dira eskaintzen, bietan. Ekaineko egitarauari eutsi egin diote

M.S. OÑATI

Ekainarekin batera zabaldu dituzte umeen zein helduen liburutegiak. Erabilera mugatuta dute, halere; mailegu zerbitzua ari dira eskaintzen. Liburutegira sartzeko hainbat arau eta segurtasun neurri bete behar dira, eta bertatik eskatu dute posible den heinean liburuak, DVDak eta CDak alde aurretik aukeratzeko, online katalogoa erabilita.

Irakurketa saioak, zabalik

Liburutegia orain arte itxita egon den arren, hitzaldiak eta

irakurketa saioak telematikoki egin dituzte. Ekaineko egitarauari ere eutsi egin diote; eta presentzialki egingo dituzte zenbait ekintza. Ekainaren 9an, idazketa lantegia egingo dute, erakusketa gelan; hilaren 11n, psikologia irakurle taldea batuko da, zine aretoan, *Temple Grandin* filmari buruz jarduteko. Azkenik, ekainaren 16an, Tertulixan egingo dute, euskaraz. Nobedadea da ekaineko irakurketa saioak zabalik egingo dituztela, eta, beraz, edonork hartu ahal izango du parte. Saio guztiak 18:00etan egingo dituzte.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Maskarak, lurrean botata

Ugarkalde inguruan ikusitakoarekin bere kezka helarazi digu herritar batek: "Ez da lurrean botata agertu den maskara bakarra. Garbiagoak izaten ikasi beharko genuke denok".

Xabier Urzelai ARRASATE

Joan den astean aurreratu zuen GOIENAK Euskadiko Automobilismo Federazioa eta Jaurlaritza lasterketen egutegia uztailean berrekiteko adostasunera iritsi zirela –egoerak baimentzen badu, behintzat–. Albiste horren aurrean, baina, Debagoieneko lasterketetako antolatzaileek hartu dute hitza. Pandemia egoeran bertan behera geratu dira Eskoriatzako esaloma –maiatzak 16– eta Gorlako igoera –maiatzak 23–; ikusteko dago zer gertatuko den gainontzeko lau hitzorduekin. Oraingoz, hauxe da egoera.

GORLAKO IGOERA

MAIATZEAN IZAN BEHAR ZUEN, ETA ZAIL IKUSTEN DUTE UDAZKENEAN EGITEA

"Oso zail ikusten dut udazkenean Gorlako igoera antolatzea". Gorla Racing taldeko ordezkari Xabier Zabaletaren hitzak dira: "Babesleei udazkenean diru eske joan behar badugu, eta hilabete gutxira 2021eko edizioa ostera ere antolatu ahal izateko ate joka hasi behar badugu... Ez dut batere garbi ikusten".

Horrekin batera, Zabaletak Federazioak segurtasun neurriak zaintzeko landutako protokoloaren berri ere izan du –ez da behin betikoa–, eta zalantzak ditu hor ere: "Jendea lasterketetara ondo pasatzera etortzen da, eta denek maskarak jantzira etorri behar badute, jende pilaketak zainduta, distantziak... Nork egin behar du hor polizia lana? Antolatzaileok? Urtebetez ez antolatzearen ez da ezer gertatzen".

INTXORTAKO IGOERA

LEHENENGO EDIZIOA IZAN BEHAR ZUENA BERTAN BEHERA UZTEA ERABAKI DUTE

Ekainaren 27an antolatu behar zuten lehenengoz A+Gas taldeko lagunak Intxortako igoera. Errepide horiek ohituta daude auto lasterketak hartzera, Bizkaiko Balkoiko rallyko tramuetako bat Angiozartik eta Asentziotik pasata egin izan dute eta. Hala, duela urte gutxi Udalako igoera antolatzeko izandako zailtasunak ikusita, A+Gasekoek aukera polita zuten Bergarako errepideetan. "Baina datorren



Pilotuak Aramaioko rallysprinta hasteko gertu, 2017ko edizioan. Baliteke hori izatea ibarreko lasterketa bakarra 2020an. GOIENA

Zailtasunak ikusten dituzte udazkenean probak antolatzeko

AUTOMOBILISMOA Dena ondo bidean, uztailean lehenengo auto lasterketak ikusi ahal izango dira Euskal Herrian, baina ez Debagoienean. Aramaioko Azpiko Racing taldekoek bakarrik dute garbi irailan rallysprinta antolatzeko ahalegina egingo dutela

urtera atzeratzea erabaki dugu, lasterketa antolatzeko astirik ez izatearekin batera ez dugu-eta uste babesleengana jotzeko momentu egokia denik", dio Asier Amutxastegik.

Izan ere, beste urte batzuetan antolatu izan dituzten erakustaldi edo lasterketetan izan dituzten babesle nagusietako batzuek lotura zuzena zuten automozioarekin: "Eta krisialdi honek gogor astindu du sektore hori. Lantegiak itxita izan dituzte eta auto kontzesionarioek ere ezin izan dute normaltasunarekin lan egin. Horrenbestez, ikusten dugu ez dela momentu egokia ate joka hasteko, eta, pena ematen badigu ere, ez da ezinbestekoa lasterketa antolatzeari; horrenbestez, 2021ean egingo dugu".

LEINTZ GATZAGAKO IGOERA

UZTAILEAN EZ DUTE LASTERKETA ANTOLATUKO, ETA UDAZKENEAN...

Egutegiko hurrengo hitzordua Eskoriatzan egin beharko zuket, Leintz Gatzagako igoerarekin. Eta, Ander Corcuera garbi dauka uztailean 4an, behintzat, ez dela lasterketarik egongo: "Kartelak hilabete lehenago egon behar izaten du gertu, eta, gainera, gure lasterketa Eskoriatzako jaien egitarau barruan egoten da. Horrenbestez, aurtan ez dakigu zer egingo dugun. Garbi dugu uztailean, behintzat, ez dela lasterketarik egongo".

Horrekin batera, babesleekin hartu-emanetan hasi ez badira

ere, garbi dauka ez dela dirua eskatzera joateko momentu onena: "Zeinengana joko dugu laguntza eske? Jendea egoera delikatuana dago eta horrek ere ez du batere laguntzen". Eta azkenik, oraindik ikusteke dago datozen asteotan zenbat aldatuko diren jende pilaketak ekiditeko segurtasun neurriak: "Kontuan hartu Eskoriatzako tabernen laguntza ere izaten dugula lasterketa antolatzeko, baina ondoren, sari banaketa ekitaldia egiten dugun momentuan jende asko batzen gara plazan, eta sekulako poteo giroa sortzen da Eskoriatzako kaleetan. Hor, neurri baten, tabernei aurrez emandako laguntza itzultzen diegu. Baina aurtan ezin bagara batu jende asko, ala sari banaketa ekitaldia beste modu batean

egin behar badugu... ez dakit, Oraingoz, zailtasun asko ikusten ditugu".

UDANAKO IGOERA

TALDE ALDAKETA IZAN DUTE; BESTELA ERE, AURTEN EZ ZUTEN ANTOLATU BEHAR

Udana Racing taldeko ordezkariak trantsizio urtean harrapatu ditu COVID-19aren gaitzak. Jende berria sartu da, eta aurtan ez zuten lasterketa antolatzeko asmorik. Hala, pandemiak ez dizkie urte hasierako asmoak aldatu: "Taldeen zeuden aurreko kideek oso lan txukuna egin dute azken urteotan, eta gure aurtengo helburua gehiago izan da lan administratiboarekin hastera, dena eguneratzea".

Hala, gazteek erreleboa hartu dute eskudarian: "2021ean Udana igoera normaltasunez antolatu gura dugu. Gainera, udazkenean antolatzea erabakiko bagenu, arazoak izango genituzke, besteak beste, argitasunarekin. Izan ere, gure lasterketa udan antolatu izan dugu eta batzuetan proba asko luzatu izan da; udazkenean eginez gero, gaez amaituko genuke proba".

ARAMAIOKO RALLYSPRINTA

LASTERKETA NORMALTASUNEZ ANTOLATZEKO DABILTAZ LANEAN

Gauzak ondo bidean, badirudi Aramaioko rallysprinta dela aurtan Debagoienean izango den automobilismo hitzordu bakarra, "Gu lasterketa antolatzeko asmotan gaitzeta, hori dugu buruan", dio Inhar Amenabar aramaiorak.

Berez, irailaren 12an dira lasterketa egitekoak, eta badute lasterketa txukun antolatzeko astia, baita datozen asteotan nobedadeak egongo balira horietara egokitzeko denbora ere: "Babesleen beharra dugu denok, eta oso kontziente gara zein den egungo egoera. Ez da batere erraza izango laguntza jasotzea, baina uste dugu bestela ere aurrera egin genezakeela, nahiz eta zailtasunekin izango den. Neurriak hartu beharko genituzke, gastuak murriztu... Baina irailako lasterketa antolatzeko prest gaude gu".

"Pista estalian baino aire librean nahiago dut"

MARISOL RAMOS ATLETA

ATLETISMOA Larrialdi egoerak lesionatuta harrapatu zuen oñatiarra; bada, abendutik martxora arte lortutako emaitzengatik, atleta beterranoen artean liderra da Ramos

Arantzazu E. eta Mireia B. OÑATI

Master mailako atleta onenen artean dago Ramos oñatiarra. 60 urtetik gorakoan artean liderra da 1.500 eta 3.000 metroko probetan. Maiatzaren 28an, 61 urte bete zituen.

Liderra 61 urterekin. Zorionak!

Pozik nago, bai. Sorpresa ere izan da. Kataluniako Federazioan dagoen lagun batek pasa zidan abisua. Atleta katalanen rankinga begiratzen hasi zen, eta han nengoen ni, bi probatan.

Nola baloratzen duzu ranking hori? Urtean zehar egindako lanaren adierazle da edo zerrenda huts bat besterik ez?

Balio handia duen zerrenda da. Mundu mailako beterranoen artean lehenengo egoteak esan gura du ondo nabilela. Urtean zehar egindako lanaren emaitza ikusten da hor. Ez dut lana alferrik egiten. Nik, bereziki, egiten dudana denbora baloratzen dut gehien. Liderra izatea oso inportantea da, baina denborak ere bai. Bereziki, 61 urte ditudala kontuan hartzen badut. Oso onak dira, eta oso pozik nago. Pista estaliko denboraldia izaten da abendutik martxora, eta tarte horretan lau lasterketa oso onak egin nituen; emaitza horiek hartu dituzte kontuan zerrenda egiteko orduan.

Pista estaliko zerrendak dira horiek. Ondorioztatu daiteke hobeto moldatzen zarela pista estalian?

Ez; kar, kar, kar. Nahiago dut aire zabalean korrika egin. Pista egiten dut askotan, eta gustura ibiltzen naiz, baina nahiago dut kanpoan ibili. Eta distantziari dagokionez ere, proba kuttunenak maratoni erdia eta 10.000 metroko probak dira.

Aurretik ere egon izan zara atleta beterranoen zerrendan.

Bai, hala da. Beste hirutan hirugarren postuan egon naiz, lehenengo hamarren artean ere hainbat alditan egon naiz. Orain, liderra izatea tokatu zait.



Marisol Ramos, Antixena parkean, martitzenean. ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

"KORONABIRUSAK LESIONATUTA HARRAPATU NINDUEN; ISKIOA HOBETZEKO BALIO IZAN DIT"

Ze ezberdintasun daude estaliaren eta aire librearen artean?

Nahiago dut kanpoan korrika egin. Pista diziplina azkarra da, eta nik erresistentzia handikoa naiz, baina ez horrenbeste azkarra. Pistako lasterketak etortzen dira oso ondo entrenamendu modura, gero bestelako proba luzeagoak egin ahal izateko. Pista estaliko Espainiakoetan ere parte hartu izan dut.

1.500 eta 3.000 metroko probak. Bata bestearen bikoitza. Horiek prestatzeko lan espezifikoak eskatzen du? Alegia, modu ezberdinean prestatzen dituzu?

Ez dut entrenamendu berezirik egiten. Orokorrak izaten dira, eta probak nahastu egiten ditut. Hori egitea ohikoa da beterranoen mailan. Gu ez gara profesionalak eta ez ditugu entrenamendu espezifikoak egiten. Zumarragan dago beterranoen taldetxo bat

eta ni eurekin entrenatzen naiz. Hango futbol zelaian serieak egiteko hobe da taldean jardutea bakarka baino. Gogorra izaten da, bestela.

Bi hilabetez mundua geratu egin da koronabirusagatik. Zure entrenamenduak ere bai?

Niretzat arinagoa izan da, larrialdi egoera ezarri zenean lesionatuta nengoelako: iskioa nuen minduta. Hortaz, bizikleta apur bat egin dut eta ariketa batzuk, baina, betiere, lesiotik errekuiperatzeko lana izan da. Orain hasi naiz berriro korrika, baina ondo etorri zait geldi egotearena. Poliki hasi naiz orain; asteen hiru edo lau egunetan egiten dut korrika, baina lesioak okerrera egiteko beldurra daukat oraindik.

Geldialdi horren ostean, nola gertatzen zaizu denboraldia?

Guztiak dago airean. Oraindik ez dago egutegirik. Beharbada, urriari hasiko dira lasterketak egiten, eta horiek egiten badira parte hartuko dut. Urrira begira, datorren hilean hasiko nintzateke entrenatzen, baina ezjakintasuna da nagusi. Proba nagusi guztiak bertan behera utzi dituzte.



Aramaioko pilotariak iazko partidu batean. GOIENA

Bertan behera utzi dute Gipuzkoako Herri Artekoo

PILOTA Gipuzkoako Federazioak ez du inolako txapelketarik egingo geratzen den denboraldi zatian

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE

Denboraldia aurrera doa, eta, kirola egiteko egoera normaltzen ez den heinean, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak erabaki du egin barik dauden txapelketa guztiak bertan behera uztea. Erabaki horrek zuzenean eragiten dio Herri Arteko Txapelketari. Aurten, ez da jokatu. Hori horrela, iaz txapelketa horretan parte hartu zuten Oñatiko, Arrasateko eta Aretxabalako pilotariak hurrengo urtera arte itxaron beharko dute.

Aramaioko pilotariak ere parte hartu zuten Arabako Herri

Artekoan. Oraingoan, ez dute erabakirik hartu txapelketa horren eta beste batzuen gainean.

Beste txapelketak ere bai

Izan ere, Gipuzkoako Federazioak jokatzeko zeuden federatuen txapelketa guztiak suspenditu ditu. Besteak beste, ezker hormako klubak arteko Gipuzkoakoak, eskuz banakakoan eta zesta-puntan; errebote txapelketa eta esku pasakako txapelketa.

Era berean, larrialdi egoerarengatik etenda geratu ziren txapelketak bertan behera geratu dira.

LASTERKETA 2020an ez dute Arrasate-Udalatz proba egingo

"Erabakia ez da erraza izan, baina, egoera ez-jakin honen aurrean, zuzentzeko eta arduraz jokatzeko dagokigula uste dugu. Etorriko gara hobeak, eta gu dagoeneko 2021eko edizioarako lanean jarri gara". Berba horiekin eman du ezagutzera Mondraitz taldeak lasterketa bertan behera uztearena.

Aurtengo probarako izena eman zutenei diru kopurua oso rik itzuliko diete, eta aurreratu dute 2021eko izen-ematean lehen-tasuna izango dutela. Ezohiko izen emate prozesua zabalduko dugu, eta aurten dortsala dutek aurrez izena emateko aukera izango dute urtarril inguruan", esan dute.

MENDI DUATLOIA Ez da probarik egingo Aramaion

Azken ordura arte bigarren mendi duatloia antolatzeke ahalgintetan ibili diren arren, antolatzaileek erabaki dute probarik ez egitea. "Antolakuntzaz gain, proba honek arlo ekonomikoa dauka atzetik. Zoritxarrez, ezin izan dugu gura genuen guztia lortu. Ea, bada, laster bueltan gauden", esan dute.

Euskal Herriko mendi duatloien zirkuituan hamar proba egingo dituzte, irailetik azarora. Igantzen, Igartzan, Urduñan, Arriaranen, Zegama-Aizkorri, Ibarran, Arespalditzan, Amasan, Zeaurin eta Adunan egingo dira horiek. Aramaioko lasterketa ez dago 2020ko zirkuituaren barruan.

Lokalean entseatzeko irrika, ezin oraindik ase

Debagoieneko herri guztietan daude udalen jabetza duten kultura taldeen lokalak, eta horien artean daude musikarien entsegu-lokalak. Bergarakoek bakarrik dute, oraingoz, zabaltzeko aukera; beste herrietan arautegia lehenbailehen adostu guran ari dira

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Herriaren arabera, musika entsegu lokalen kudeaketa-formula ezberdinak daude; izan ere, lokalen jabetza udalarena bada ere, formazio eta profil ezberdinetako musikariak batzen dituzten elkarteek dute lokalen funtzionamendua eta antolaketarako arloko gaiak kudeatzeko eskumena hainbat herritan.

Musikariak, orokorrean, "de-seatzen" daude entsegu lokaletan lehenbailehen sartzeko eta taldeen ohiko martxari heltzeko; kontzertuak lotuta dituzte batzuek, eta lan berriak prestatzen ari dira beste hainbat; horregatik, bada, bete beharreko neurrien protokoloa edo arautegia prestatu eta udal ordezkariari aurkeztu dizkiete. Ateak zabaltzeko Udalaren baimenaren zain daude gehienak; oraingoz, Bergarako GoikoRock elkarteak bakarrik dute aukera.

Bergaran, atzotik hasita

2009an sortu zuten GoikoRock elkarteak, eta musika estilo eta formazio ezberdinetako musikariek osatzen dute, taldeka edo bakarka; 80 bazkide dira.

Atzotik hasita, lokalak erabiltzeko aukera dutela azaldu du GoikoRock elkartearen ordezkari Eugenio Pelicanok: "Hainbat



Zai Zoi Bele elkartearen kide batzuk, martitzenean, entsegu lokal kanpoan. I. M.

neurri betetzeko baldintza jarrita eta erantzukizuna gurea dela argudiatuta eman digute sartzeko baimena. Konfinamenduan zehar, bazkideok adostutako arauak eta neurriak batzen dituen protokolo-dokumentu bat prestatu dugu, eta Udalari aurkeztu diogu. Han jasota daude, besteak beste, lokal bakoitzean bost lagun baino gehiago ezin direla egonaldi berean; kideon artean bi metroko distantzia mantentzea; bakoitzak bere tresnak bakarrik erabili behar dituela, eta, hala ez bada, garbitu

egin behar dira aurrez; eta eraikinean maskara erabili beharra. Udalak onarpena eman zigunean, bazkide guztien artean banatu genuen dokumentua, eta guztiok adierazi dugu jasotakoa betetzeko asmoa".

Arrasaten, DeposGaz elkarteak

Udaleko Gazteria Sailak du musika entsegu lokalen ardura Arrasaten, eta DeposGaz elkartearekin batera kudeatzen ditu. "Erabiltzeko aukerarik ez dago oraindik. Protokolo bat ari gara lantzen, baina ezin dugu, mo-

mentuz, zehaztu noizko izango den indarrean, ezta zabaltzeko aurreikusitako datarik ere", azaldu dute Gazteria Sailatik.

Uarkapeko erabilera askotariko eraikinean daude elkarteak entsegu lokal batzuk, eta garai bateko ur depositu zaharreen besteak; gaur egun, 110 lagunek osatzen dute DeposGaz elkarteak. Eurek ere segurtasun neurrien protokoloa prestatu dutela azaldu du Zuhaitz de Inda elkartearen ordezkari jaso gaineratu: "Itxialdian ibili gara elkartearen ordezkari batzuk arautegi hori lantzen, Udalari bigarren fasean lokalak zabaltzeko eskatzeko; izan ere, elkartearen hainbatek, afizioaz gainera, ofizioa ere badugu musikagintza, eta hainbat taldek kontzertuak hitzartuta dituzte; era berean, ezaugarri ezberdineko formazioak daude elkartearen batuta. Hau da, batetik, taldeak daude, baina bakarka jarduten duten musikariak eta DJak ere bai, eta horiek errazago dute eskatutako baldintzak betetzeko. Protokolo-dokumentuan, baimendutako jende kopurua, maskara erabili beharra, distantziak mantentzea... daude jasota. Komunetan eta lokal bakoitzaren ate ondoan beharrezko gelak eta xaboi poteak jarri ditugu. Horrez gain, guk ordainduta, enpresa garbitzaile bati eskatu diogu birritan etortzeko, eta, ateak zabaldu aurretik, hirugarrenez etortzeko eskatuko diegu".

Eltzia elkartearen barruan

25 talde daude Oñatiko Eltzia kultur eraikinean batuta, eta horietako bat da musikariek osatzen duten Zai Zoi Bele kolektiboa. "Denetarikoa kultura eta bestelako arloetako taldeak

gaude: bertsolariak, argazkilarik, tailaginarik, jostunak, Txantxiki familien elkarteak, trikitalariak, musikariak... Asanblada bitartez funtzionatzen dugu, eta hiru lantalde ditugu: komunikazioa, mantentzea eta koordinadora; azken horrek erabakitze ahalmena dauka, eta hark hartu zuen erakina ixteko erabakia. Irekiera noiz eta zelan egingo dugun erabakitze, ekainaren 10ean bilera egingo dugu, taldeko ordezkari guztiak deituta, eta han erabakitzen dena udal ordezkariari aurkeztuko diegu. Behar den protokoloa landuko dugu bi aldeetara. Itxi genuenetik ez dugu aukerarik izan tresnak hartzera sartzeko, eta bazkideen eskaerak aintzat hartuta martitzenean izan genuen horretarako baimena", azaldu du Eltzia koordinadorako kide Ione Zubizarretak.

Gainontzekoetan ere, itxita

Kuarantelean dute egoitza Aretxabaletako musikari askok, eta Udalari "zabaltzeko matraka ematen" ari direla diote, baina ez dutela oraindik erantzunik jaso. Eskoriatzan, kiroldegia azpiko Udalaren lokaletan daude bost talde, eta "datorren astean sartzeko esperantza" dute.

Aramaioko sei musika taldeak ere "borrokan ari direla" diote, baina, oraingoz, Udalarenak diren lokalak erabiltzeko aukerarik ez dute. Elgetan eta Antzuolan badaude musikariak, baina entsegu lokal publikorik ez.


MUSIKA ENTSEGU LOKALETAKO ERABILTZAILAK, PROTOKOLOAK BETETZEKO GERTU

ETXETIK PLAZARA

GOIENA TELEBISTA

EKAINAREN 5EAN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN
KOMUNITATEAREKIN EKOIZTUTAKO SAIOA

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Zarramarra egitasmoan, "oñatiartasuna agerian"

Taldeak zuen proiektua geldiarazi egin du konfinamenduak, eta hari berriz heldu artean sortu dute 'Zarramarra Podcast'; gaurtik hasita, egubakoitzero, 15:30ean irratsaio itxura duen umorezko podcast zirikatzailera estreinatuko dute 'online' hainbat ataritan

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Azaroan hasi ziren herriko 11 gazte egitasmoa lantzen; guztiak dira saltseroak eta erronka-zaleak. Umorez eta modu sanoan zirikatzeko gogoak batuta sortu dute Zarramarra.

Zirikatzeko gogoz

Zarramarraren zentroa Oñati dela dio taldeko kide Josu Zubiak: "Uste dugulako Oñatik badituela mahai gainean jartzeko gauza asko, bere buruari begira eta Euskal Herrira begira ere bai. Gure herriko topiko eta esaldi ohikoei arrazoi bat ematen saiatuko gara, gure betaurrekoetatik begiratuta".

Muga asko apurtzen dituen umorezko saioa da. "Herri gutzietan moduan, gurean ere tabu diren gaiak, ukitu ezin diren pertsonak eta bestelako bereiztasun asko daude; horietatik abiatuta, horiei buruz berba egin gura dugu, umoretik eta fikziotik. Modu informalean, baina fundamentuz, gidoiari baino gehiago, bat-batekoari balioa emanda. Debagoieneko beste herri batzuekiko pikea sustatu nahi dugu; eta adi, prest gaude Goienaren egoitza Oñatira ekartzeko".

Formatua: irratsaioa

Saio bakoitzean gai batetik abiatuta, "oso etxeko giroan" egindako irratsaioa da. "40 minutuko iraupena du. Filtro barik jarduten dugu, oso freskoa da. Gaurko saioaren gaia da: *Zer izan behar du oñatiar batek benetako oñatiarra izateko?* Horren inguruan lau lagunek egingo dugu berba hasteko, eta gonbidatuarekin gero. Oraingoan, Aratz Losada da, eta hurrengo astekoa Antxon Telleria; aurretiko dizuet bere ametsetako bat beteko duela podcastean".

Sarean aktibo

Saio osoak Youtubeko *Zarramarra* kanalean izango dira;



Gaur estreinatuko duten atalaren hasiera. ZARRAMARRA

audio formatuan, berriz, Spotifyn eta iVooxen. Instagramen eta Twitterren ere aktiboak direla dio: "Bitxikeriak eta bestelakoak igoko ditugu, eta gure proiektu izarraren berriak ere hor konstatuko ditugu".

Gazteendako eta antzokietan

Horixe da taldearen proiektu originalaren mamia. "Gaur estreinatuko dugunarekin ez dauka zerikusirik; oso potentea da, gazteendako eta aurrez aurre, aretoetan eskaintzeko modukoa".

"Barkatu, gure umorea ulertzen ez duzenok"

IKER PLAZAOLA 'PLAXA'
PODCAST SAIOEN GIDARIA

Oñati irratan ibilitakoa da, eta film laburrak egitea oso gustuko du; pozik abiatu da abentura berrian.

Zelako esperientzia ari da izaten Zarramarra?

Bikaina! Lantalde ikaragarria dago, eta eskertzekoa da lagun horiek ezagutu izana. Ikusleen erreakzioen zain gaude. Beldur naiz, baina disimulatu egiten dut. Paracetamol pare bat eta esne gaingabetu beroa hartzea da sekretua.



IKER PLAZAOLA

Zer moduz moldatzen zara saioaren gidari lanetan?

Une batzuetan nire papera nola bete ez dut guztiz argi izaten... Gidabaimenaren azterketa teorikoa birritan suspenditu izana gogorarazten didate...

Zer esango diezu ikusleei?

Barkamenik beroenak, ez badute egiten dugun umorea ulertzen. Gu ongi pasatzeraz goaz, eta ez erretorika metafisikoaren abagunea inauguratzera.

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira maiatzeko irabazleak!

32' LG TELEBISTA

Amaia Otadui Arana (Arrasate)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Lorea Suarez Ibarguren (Oñati)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Lorea Ercilla Okina (Arrasate)
Jose Aitor Belastegi Aranzabal (Antzuola)
Javier Gantxegi Aldai (Bergara)

ZUMELAGA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Feli Zumalde Barrena (Oñati)

MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Miren Aranguren Artolazabal (Antzuola)

ITURRIETA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Mirari Arando Ilarduia (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzteko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Aratz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deltu hitzordua egiteko) Harreman dendako otarra **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Erakle hiparmerkatuan duen dendara. **Saria jasotzeko***, zatorz GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jasotzeko eman behar da. GOIENA Oñatiaren Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenerdik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

*COVID-19a dela eta, alarma egoera pasatu ostean disfrutatuta ahal izango da sariak

Irabazi bi lagunendako otordua

ETXE AUNDI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hertu parte!
Parte hartzea: Ekainaren 9ra arte

943 25 05 05  klubak@goiena.eus

 KLUBA Jatezkoa
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...




ESKAITZA BEREZIA!!

Maiatzetik abendurako bazkidetza: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • klubak@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA



Jesus Bengoa Cortabarría
Julia Urcelayren alarguna



2019ko maiatzaren 27an hil zen, 84 urte zituela.

Beti gure bihotzean.

Oñatin, 2020ko ekainaren 5ean.

OROIGARRIA



Gorka Garitano Arregi



2020ko maiatzaren 27an hil zen, 50 urte zituela.

*Mendixan, bizikletan,
eskiatzen sarri,
Pirineo aldean
elur eta harri.
Zure etxekoekin
famili egarri,
'Unbleble' batez agur
Gure Aranbarri.*

Zure lagunak.
Antzuolan, 2020ko ekainaren 5ean.

OROIGARRIA



Gorka Garitano Arregi




2020ko maiatzaren 27an hil zen, 50 urte zituela.


*Ezin degu sinetsi
zu ez zaudenik hor!
Kirolezale, saltsero
adar jole eta nor
lagun, senar, guraso,
senide, fin, jator..
izan nahi genuke,
be ote da inor!
Beti izan zaren bezain
alai eta baikor?*

Zure eguneroko kuadrilla.
Antzuolan, 2020ko ekainaren 5ean.

OROIGARRIA



Blanka Ruiz de Zarate Berrio-otxoá



2020ko ekainaren 3an hil zen, 64 urte zituela.


*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*

Lagunak.
Arrasaten, 2020ko ekainaren 5ean.

OROIGARRIA



Blanka Ruiz de Zarate Berrio-otxoá



2020ko ekainaren 3an hil zen, 64 urte zituela.

*Pilates-kideok beti bihotzean izango zaitugu.
Eskerrik asko.*

Arrasateko Yoga Elkarte.
Arrasaten, 2020ko ekainaren 5ean.

ESKER ONA



Gorka Garitano Arregi




1970-2-6 / 2020-5-27

*Ezkontzean, garia, loreak eta kandela eskaini genizuen.
Garia garatu da, loreak loratu, eta kandelak izartxo bat piztu du zeruan.
Hark erakutsiko digu argia non den!*


Eskerrik asko egun latz hauetan ondoan izan zaituztegun denoi.

Antzuolan, 2020ko ekainaren 5ean.

ESKER ONA



Luis Mari Aguirre Tellería




2020ko maiatzaren 27an hil zen, 90 urte zituela.


*Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.*

Bergaran, 2020ko ekainaren 5ean.

ESKER ONA



Jose Garcia Delgado




2020ko ekainaren 3an hil zen, 76 urte zituela.


*Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna
adierazi diguzuen guztioi, familiaren partetik.*

Oñatin, 2020ko ekainaren 5ean.

ESKER ONA



Juan Ignacio Gabilondo Sorotegi



2020ko martxoaren 16an hil zen, 68 urte zituela.


*Haren aldeko elizkizuna martitzenean, ekainak 9, izango da,
19:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokian.*

*Pertsonalki ezinezkoa zaigunez, familiak lerro hauen bitartez
eskertu nahi dizkizue jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak.*


Aurrera bolie!

Aretxabaletan, 2020ko ekainaren 5ean.

ESKELA



Carlos Saenz de la Cuesta Moreno



2020ko maiatzaren 30ean hil zen, 80 urte zituela.

*Bere emaztea: Amparo Rodríguez.
Seme-alabak: Sonia eta Unai Busturia, Sergio.
Bilobak: Atxart, Arhane, Kai, eta gainerako ahaideak.*

*Bere hileta-elizkizuna ahal denean egingo da.
Eguna eta tokia jakinaraziko dizkizuegu aurretik.*

Arrasaten, 2020ko ekainaren 5ean.

ESKER ONA



Maritxu Gorrotxategi Elorza



2020ko ekainaren 2an hil zen, 93 urte zituela.

*Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.*

Oñatin, 2020ko ekainaren 5ean.

BABESLEA

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Momentu zail hauetan,
lankideok, Jonak, Ibanek, Mariok eta Maribik,
sentsibilitate eta maitasunarekin lan egingo dugu
Zure senideak ahalik eta ondoen agurtuko ditugu
Beti izan dugun lan egiteko eran.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



ARRASATEKO OSOKO BILKURA

'Bereziak' Zapatua, 21:30



ILASKI SERRANORI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa' Eguaztena, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 5

08:00 Txantxariak
08:30 Kantari Arrasate 9
09:00 Kantari Arrasate 8
09:30 Kantari Arrasate 5
10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Eskulanak etxetik
11:30 Hala Bazan
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Kantari Arrasate 5
13:30 Kantari Arrasate 7
14:00 Hemen Debagoiena
15:00 Albisteak
15:30 Kantari Arrasate 9
16:00 Albisteak
16:30 Ane Lore sukaldean: Guacamole
17:00 Albisteak
17:30 Adinberri 5
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Elkarrizketa: Alex Txikon
19:30 Jaiak: Bergara
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Hala Bazan
21:30 Etxetik plazara
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Kooltur: Deadyard

ZAPATUA, 6

09:00 Kantari Oñati 1
09:30 Kantari Arrasate 10
10:00 Kantari Oñati 2
10:30 Etxetik plazara
11:30 Ane Lore sukaldean: Guacamole
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Astearen errepasoa
13:30 Elkarrizketa: Alex Txikon
14:00 Etxetik plazara
14:30 Hala Bazan
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Kooltur: Deadyard
17:00 Hala Bazan
17:30 Adinberri 6
18:00 Etxetik plazara
18:30 Elkarrizketa: Alex Txikon
19:00 Hemen Debagoiena
19:30 Astearen errepasoa
20:00 Etxetik plazara: Arrasate Musikal
20:30 Ane Lore sukaldean
21:00 Hemen Debagoiena
22:00 Hala Bazan
22:30 Kooltur: Deadyard
23:00 Elkarrizketa: Alex Txikon

DOMEKA, 7

08:00 Etxetik plazara
08:30 Hala Bazan
09:00 Txantxariak
09:30 Kantari Arrasate 10
10:00 Kantari Oñati 1
10:30 Kantari Oñati 2
11:00 Elkarrizketa: Alex Txikon
11:30 Hala Bazan
12:00 Hemen Debagoiena
13:00 Astearen errepasoa
13:30 Elkarrizketa: Alex Txikon
14:00 Etxetik plazara
14:30 Hala Bazan
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Kooltur: Deadyard
17:00 Hala Bazan
17:30 Adinberri 7
18:00 Etxetik plazara: Arrasate Musikal
18:30 Astearen errepasoa
19:00 Hemen Debagoiena
20:00 Elkarrizketa: Alex Txikon
20:30 Hala Bazan
21:00 Kooltur: Deadyard
22:00 Hemen Debagoiena

ASTELEHENA, 0

TITXXX 2

'Saioarenizaxxx'
Egunaxxxx, 00:00

MARTITZENA, 0

TITXXX 2 LERRO

'Saioarenizaxxx'
Egunaxxxx, 00:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUNERO



EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK


'Albistegia'
15:00, 16:00, 17:00

EGUNERO

ADINDUENDAKO KIROL ARIKETAK

'Adinberri'
17:30

TXUTXU-MUTXUAK



1. '#zuerekontalari'

Xabier Jausorok irabazi du Oñatiko liburutegiak deitutako #zuerekontalari lehiaketa. 100 euroko bonua irabazi du, liburuak erosi ahal izateko. Herriko hainbat neska-mutikok parte hartu dute ipuinak kontatzeko ekimenean.

2. Azken solasaldia

Jorge Luis Borges *Ficciones* liburuaren gaineko literatura solasaldiarekin bukatu du ikasturtea Oñatiko gaztelarazko taldeak. Telematikoki konektatuta, eta Ivan Repilak gidatuta.

3. Andartora

Araotzetik irtenda eta Degurixatik pasata, Andartoraino heldu ziren Barrena Bikuña familiakoak, 14 kilometroko ibaldia eginda. Andarto gainera dauden parajeet gozatu zuten elkarrekin.

4. Aitzulora bisita

Aurreko asteburuko eguraldi ederra aprobetxatu zuen Manu Diazek mendi buelta egiteko. Urrun joan barik, Oñatiko Aitzuloraino joan zen, Araotz auzotik igota.

5. Koronabirusari, agur!

Asmo horrekin elkartu ziren Arrasateko Itxaropena kaleko bizilagunak. Balkoiak globoz apaindu, eta urez betetako globoak bota zizkieten kalerik kale ibili zen birusari.

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatuz Goienaren ordezkarietara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Oinatz Guzman Arregi
Ekainaren 11n,
urtebete. Zorionak,
maittia! Urtebetetxo!
Muxu potolo bat
etxeko danen partetik.



ANTZUOLA
**Amets Arrizabalaga
Zubikarai**
Ekainaren 11n, 9 urte.
Zorionak, Amets!
Etxeko danen, eta
bereziki, Izaroren
partetik, patxo potolo
bat!



ARRASATE
Alaitz Bergaretxe Aldazabal
Ekainaren 6an, 14 urte. Zorionak eta urte
askotarako, familia osoaren partetik!



OÑATI
Aitzol Arregi Urzelai
Ekainaren 6an, 43
urte. Egun ederra
ospatu, aitatxo!
Infinitora arte maite
zaitugu! Ainhize, Ekhi
eta amatxo.



BERGARA
**Ekain Miranda
Arabaolaza**
Ekainaren 6an, 8 urte.
Zorionak, Ekain! Oso
ondo pasatu eguna!
Musu handi bat,
etxekoen partetik.



OÑATI
Lur Ruiz Martin
Ekainaren 6an, 12
urte. Zorionak, Lur! 12
urte. Oso ondo pasatu
zure eguna. Muxu
handi bat, familia
osoaren partetik.
Bereziki Hodei,
aita eta ama.



ARETXABALETA
Alain Rodriguez Arca
Ekainaren 5ean, 7 urte.
Zorionak lehengusuen
eta familia osoaren
partetik. Aitaxoren eta
amatxoren partetik,
muxuak!



ARRASATE
Jon Bereziartua Zabala
Ekainaren 5ean, 5 urte. Zorionak, potxolo! Bost
urte munduari irribarre egiten, bost urte guretzako
bizipoz iturri izaten. Segi horrela, polit hori!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta
senitartekoak; hiru bide dituzu
Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu
eta [https://goiena.eus/
zorionagurrak](https://goiena.eus/zorionagurrak) helbidean sartu
zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan
argitaratuko da webgunean eta
egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@
goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, herria,
urtebetetze-eguna eta nahi
duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren
ordezkaritzaren batera edo deitu
943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak
arte jasotako zorion
agurrak bakarrik
iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.



OSINTXU
**Auritz Laskurain
Gabilondo**
Ekainaren 5ean, 9
urte. Zorionak, *poto*.
Ondo pasatu eguna eta
topera disfrutatu.
Muxu handi bat,
etxekoen partetik.
Maitte zaitxugu!



BERGARA
**Amets Uribealago
Uzin**
Ekainaren 5ean, 6
urte. Zorionak,
txapeldun! Mutil handi,
sei urte jada!
Ondo-ondo pasatu
zure egunean familia
arte. Super ondo
pasatuko dugu.
Etxekoen eta, batez
ere, Egoitzen partetik.
Patxo potolo bat,
maitia.



ARETXABALETA
**Malen Makazaga
Revalo**
Ekainaren 3an, 2
urte. Zorionak,
prexioki! Egun politxa
pasatu! Patxo handi
bat, familia osoaren
partetik.



ESKORRIATZA
**Enara eta Olatz
Urrutia Lasagabaster**
Enarak ekainaren 2an,
13 urte eta Olatzek
ekainaren 4an, 9 urte.
Zorionak, bikote! Ondo
pasatu eguna! Musu
handi bat, etxekoen
partetik!



OÑATI
Etxahun Lizarralde
Ekainaren 2an, 12
urte. Zorionak eta urte
askotarako etxekoen,
eta bereziki, zure
arriba Itsasneren
partetik. Ondo pasatu
egun berezi honetan
eta muxu potolo bat,
txapeldun!
BERGARA
Haizea Mujika



Beistegi
Ekainaren 2an, 10 urte. Zorionak, maitxia. Oso
ondo ospatu eguna eta jarraitu zaren modukoa
izaten. Patxo mordo bat Unaxen, aitaxoren eta
amatxoren partetik.
ARRASATE



Juanma Poza
Ekainaren 2an, 45
urte. Zorionak,
korrikalari! Ondo
pasatu zure eguna,
Juanma! Musu asko
eta besarkada handi
bat 'Peña Park
Deluxe'-ren partetik.
ARETXABALETA



Mare Eskibel Olalde
Maiatzaren 31n, 2 urte.
Zorionak, Maretxo!
Etxeko danon partetik,
patxo handi-handi bat,
politx hori!



ARRASATE
Danel Saiz Cenciaga
Maiatzaren 28an, 6
urte. Zorionak,
Daneltxo! Aitaxoren,
amatxoren eta, batez
ere, zure arreba
Anetxuren partetik.
Patxo handi bat .



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Sentsazioak

Iruditzen zait garai hauetan inoiz baino diluituagoa dagoela euskal sena, EAEn behintzat. Uste nuen Gobernu Zentralarekiko harreman berezia genuela; Madrilekiko nolabaiteko erlazio bilateralak genuelakoan nengoen. Hala ere, igande eguerdiro argi geratzen da pantailako laukitxoetako bat dela EAE – eta beste bat Nafarroa-. Ez du laguntzen ere egunero eskean ibili beharrak –merezimendua erregutzen–.

Ukertzen dut jende asko dabilen guneak aldiro-aldiro desinfektatu behar direla, hasierako momentuan eta ondoren. Hala ere, Espainiako armadak leku batzuk behin bakarrik desinfektatu dituenen –laguntza baino gehiago, propaganda diruditen ekintzak–, hainbati entzun didan bakarria izan da:

"Laguntza guztiak ongiatorriak dira".

Harritu nau ere hizkuntza-paisaiak. Komertzioetako kartel asko ikusi ditut gazteleraz soilik. Zenbait kasutan, ondokoa esateko: lehen, *Cerrado* eta orain, *Abierto*. Jabeari euskara zergatik erabili ez duen galdetuko banio, seguruenik hauek lirerateke erantzunak: "Denborarik ez dugu izan euskaratzeko" edo "bizi dugun egoeran hori galdetzea ere, mesedez!".

Ez dakit, ba. Sentsazioak dira.

BUKATZEKO

Traje berriak Arrasateko haur danborradarako

Arrasateko Udalak diru partida bat bideratu du arropa berriak egiteko. SUDC elkarteko kideen eta Amaia Albesesen artean egin dituzte diseinuak, eta Natalia Garciak dihardu horiek josten. Bi konpainiarendako trajeak egingo dituzte

Mireia Bikuña Madrid ARRASATE

Urrian hasitako proiektuak ekainaren 13an ikusi beharko zukeen argia. Sanjuanei ongiatorria emateko Arrasateko haurren danborradako kideek dotore erakutsiko zituzten euren dako propio egindako traje berriak. Bada, aurtengo jaiak ez dira betikoak izango, eta danborrada ere ez. "Hurrengo urtean estreinatuko dituzte", diote.

Estreinatuko edo ez, traje horiek labean daude. "Iazko urrian hasi nintzen SUDCeko kideekin batera traje berrien diseinua lantzen. Oraingoek 30 urte baino gehiago dituzte, eta berritu beharra zeuden. Udalak diru partida ipini zuen, eta lanean hasi ginen", dio Amaia Albesek.

Garbi zuten umeen trajeak berritu egin behar zirela, baina danborradaren esentzia galdu barik. "Elkarlana prozesu polita izan da. SUDC elkartekoek ezagutzen dute danborrada barrutik. Gainera, arrasatear gehienok parte hartu dute inoiz danborradan. Baita nik ere. Hortaz, bi aldean ilusio horrekin jokatu dugu diseinuak egiteko orduan", esan du Albesek.

Urdin, berde, beltz eta more koloreko oihalak erabili dituzte



Umeen danborradako trajeen diseinuak.



Natalia Garcia jostuna.



Amaia Albes diseinatzailea.

txaketak egiteko. Praxak zuriak izango dira. Eta hor dago berrikuntzetako bat: haur danborradako kide guztiek praxak erabiliko dituzte.

Haur danborradan parte hartzen duten bi konpainiarendako egingo dituzte arropak. Guztira, 58 traje: 26na konpainia bakoitzarendako, zuzendarirendako bana eta zaldi gainean doazendako beste lau. Era berean, adostu zuten helduen danborradan zaldi gainean doazen emakumeendako trajeak berritzea.

Jostun baten eskutik

Diseinuak bukatu ostean, lanaren bigarren zatia nola kudeatu erabaki behar izan zuten. Jostun lanak egitearena, hain justu ere. "Aukeratako bat zen arropak norabait bidaltzea, han josteko. Bada, erabaki zen jostun bat kontratatzea jostun lana egiteko". Eta lan horretan dihardu Natalia Garciak azken sei hilabeteetan. "Prototipoak egin genituen, hezur-haragizko modelo izan genituen, neurriak ondo zehaztu ahal izateko. Umeei probatu genizkien trajeak, ahalik eta eroso sentitzeko. Eder to pasa genuen", esan dute.

Aurkezpen ofiziala

Alarma egoerak behartutako bi hilabete ostean, azken ukituak ematen dabilta. 2021ko danborradara itxaron barik, Arrasate Udalak eta SUDC elkarteak herriaren aurrean aurkeztu gura dituzte traje berriak. Ekitaldi hori noiz, non eta nola izango den ez dute arretatu, baina, dena delakoa izanda ere, segurtasun neurriak bete beharko dira.



g
gamarra
ostalaritza eskola

Presagana kalea 1 behea,
01013 Gastelz
Tel.: 945 25 80 25
gamarra@gamarraeskola.com
www.hosteleria.gamarra.com

Oinarrizko lanbide heziketa:

- Sukaldaritza eta jatetxe arloa

Erdi mailako zikloak:

- Sukaldaritza eta gastronomia
- Jatetxe arloko zerbitzuak
- Okingintza, gozogintza eta konfiteria

Goi mailako zikloak:

- Sukalde-zuzendaritza

Matrikula egiteko derrigorrezkoa da aurrematrikula egitea: ekainaren 1etik 19ra